



# AVD·ZEA

Academia  
Vasca de  
Derecho

Zuzenbidearen  
Euskal  
Akademia



BIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • B  
KARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE D  
SCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AK  
KAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA AC

• ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA  
A / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA D  
EMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKA  
EN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE I

## Aldizkaria

III. URTEA • 7. zk. • BILBO • 2005eko IRAILA  
AÑO III • N. 7 • BILBAO • SEPTIEMBRE 2005

## Boletín

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako argitaraldia  
Edición patrocinada por la Excm. Diputación Foral de Bizkaia





**AVD·ZEA**

Academia  
Vasca de  
Derecho

Zuzenbidearen  
Euskal  
Akademia

# ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA ALDIZKARIA

III. urtea - 7. zk. - Bilbo - 2005eko Iraila  
Año III - N.º 7 - Bilbao - Septiembre / 2005  
ISBN: 84 896 8919 9 - L.G./D.L.: BI 1677-03

## **A**urkibidea / Sumario

Or./Pág.

1. **EUSKARA HUTSEAN ARGITARATUTAKO  
LEHEN ALEA**, Adrian Zelaia ..... 5
2. **DERRIGORREKO JUBILAZIOAREN  
INGURUKO ZENBAIT GOGOETA**,  
F. Javier Arrieta Idiakez ..... 7
3. **2005. URTEKO ALDAKETAK  
BIZKAIKO ZERGETAN**,  
Alberto Atxabal Rada ..... 23
4. **TERRORISMO-DELITUAK ETA ESPETXEETAKO  
ESPARRUAN EGINDAKO AZKENEKO  
LEGE-ALDAKETAK (1996-2004):  
EREDU-ZIABOGA ETA NORABIDE-ZUZENKETAK.  
NORA GOAZ?**, Jon-Mirena Landa Gorostiza ..... 39
5. **BIZKAIKO ERAKUNDE JURIDIKO JATORRAK:  
BIDIGAZAK ETA ABEURREAK**, Gotzon Lobera ..... 61
6. **KOOPERATIBEN EUOPAR LEGEDIA ALDATZEKO  
OINARRIAK**, MCC Idazkaritza Nagusia, Zorione Arregi  
Elkorobarrutia eta Adrian Zelaia Ulibarri ..... 71

7. **EUSKARAREN JURILINGUISTIKA:  
ALOR BERRIA OTE?**, Andres Urrutia .....93
8. **ALARGUNAREN OINORDETZA-ESKUBIDEAK,  
KODE ZIBILA ALDARAZI DUEN 15/2005  
LEGEAREN ARABERA**, Esther Urrutia Idoiaga ..... 105

**Liburuak / Libros**

9. **IPARRALDETIK DATOR NOTIZIYA:  
HERRIKO ETXEENDA KO LEXIKOA**,  
Cesar Gallastegi eta Arantza Etxebarria ..... 123
10. **DERECHO PÚBLICO DE LOS TERRITORIOS  
FORALES. DE LOS ORÍGENES A LA  
ABOLICIÓN FORAL LIBURUA AURKEZTEKO  
HITZALDIA**, Santiago Larrazabal Basáñez ..... 133
11. **LAU JURISTA EUSKALDUN**,  
Andres Urrutia .....141
12. **AKADEMIAREN ALBISTEAK / NOTICIAS  
INTERNAS**, Txabi Oleaga Echeverria .....147



# tarjeta e-Business BBK



Una herramienta  
única para gestionar  
los gastos de su  
negocio.

La tarjeta e-Business BBK es el instrumento de pago más innovador del mercado. La primera tarjeta que permite gestionar, como usted quiera y a través de internet, los gastos de su negocio. Y la mejor forma de demostrar que en BBK trabajamos para acercarnos al futuro y mejorar el de quienes confían en nosotros.



www.bbkk.es



La red de Oficinas de Empresas BBK tiene  
el Certificado de Calidad ISO 9002

**bbk<sup>2</sup>**

# **EUSKARA HUTSEAN ARGITARATUTAKO LEHEN ALEA**

Zuzenbidearen Euskal Akademia Bilbon jaio zen, Euskal Herrian alegia. Akademiak zuzenbidearekiko duen joera, eta, horrekin batera, haren pentsamolde euskalduna, begi-bistakoak dira.

Hori dela eta, gure aldizkariak, bere lehenengo zenbakitik, euskarazko testuak argitaratu izan ditu. Bestalde ere, Akademiak gizarte-bizitzari buruz duen ikuspuntu juridikoa guztiz praktikoa da, eta beren beregi aplikatzen zaio Euskal Herrian indarrean dagoen zuzenbideari. Bide beretik, Europako legeria eta Espainiako kodeak interesgarriak dira Akademiarentzat, horiek ere arau biziak direlako gure lurraldean.

Arrazoi berbera aintzakotzat hartuta, idatzizko artikulua batzuetan, euskara ofiziala erabili da, eta beste batzuetan, berriz, euskalkiak (batez ere, bizkaiera), guztiak ere indarreko hizkuntzak baitira gure jarduera-esparruaren barruan. Jakina denez, jarduera-esparru horrek bere barruan hartzen ditu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia. Gure gizartea elebiduna da, eta gure Akademiak ezin dio muzin egin elebitasun horri.

Gaur aurrerapausoa eman nahi dugu, idatzizko aldizkaria euskara hutsean argitaratuz. Egiatan, hainbat artikulua jaso ditugu

euskaraz, eta horrek lana ahalbidetu du. Zin-zinez legelari euskaldunei atea irekitzen diegu, eurentzat askoz errazago gertatzen delako euskaraz hitz egin eta idaztea.

Hori egin ezean, egundoko amildegia zabalduko genuke, hizkuntza baten eta bestearen gaineko ezagutza juridikoari dagokionez. Euskara gurea da, eta baztertuta geratuko litzateke, edozein gizartetan erabakigarri den gai batean, zuzenbidearen arloan alegia. Euskarak aukera galduko luke herriko hizkeratik haratagoko erabilera izateko.

Jalgi adi plazara! entzuten da sarri-sarri Etxeparek bertsoa egin zuenetik. Zelan joango gara “plazara” gure hizkuntza ez bada foro ofizialetan erabiltzen, gure hizkuntza ez bada erabiltzen zuzenbideak bere adierazpenik gorenak dituen tokietan?

Horixe izan da gure zuzendaritza-batzaren erabakia. Erabaki horretan ez da alderdikierarik ikusi behar, ezta hurrik eman ere. Akademiak, beti bezala, aniztasunari eutsi nahi dio, eta ideia guztiak barneratu nahi ditu. Alabaina, ez da aniztasunaren seinale geurea ez lantzea.

Akademiaren asmoa da urtean zehar argitaratzen duen aldizkariaren zenbaki bat euskara hutsean kaleratzea.

***Adrian Zelaia***



# **DERRIGORREKO JUBILAZIOAREN INGURUKO ZENBAIT GOGOETA**

1. Lan-zuzenbidean eta Gizarte Segurantzaz arazoak eta eztabaidak sortu dituen erakunderen bat izatekotan, derrigorreko jubilazioa da hori. Bada, doktrinan eta jurisprudenzian, asko dira erakunde horren aldeko zein aurkako arrazoiak, erakunde horren baliagarritasunaz edo komenigarritasunaz ari direnak. Konstituzio Auzitegiakak ere epai garrantzitsuak eman ditu, derrigorreko jubilazioaren arauketari estu lotutako hainbat betekizun Konstituzioarekin bat datozen erabakitzeko.

2. Kontzeptuaren inguruan izan bada, halaber, erakunde horrek duen izaera korapilatsu eta gatazkatsuen zenbait zantzu.

Esangura horretan, derrigorreko jubilazioaren kontzeptua ez da batere egokia<sup>1</sup>.

Derrigorreko jubilazioa aipatzean, badirudi jubilazioaren ondoriozko pentsioa jasotzera derrigortzen dela. Alabaina, derrigorreko jubilazioaren xedea guztiz kontrakoa da: lan egiteari behin betiko uztea, aurretiaz ezarritako adinean jubilazioa hartzeagatik.

---

<sup>1</sup> Ikus ESTEVE SEGARRA, A. *La jubilación Forzosa*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999, 13. or.

Hain zuzen, xede hori oinarri hartuta, borondatezko jubilazioa eta derrigorreko jubilazioa bereiz daitezke. Borondatezko jubilazioan, lan-kontratua azkentzeko arrazoa jubilazioaren ondoriozko pentsioa jasotzea da. Derrigorreko jubilazioan, ordea, jubilazioaren ondoriozko pentsioa lanari derrigorrean uztearen ondoreetako bat da.

Areago, azken aldi honetan, legegilearentzat tabu bihurtu da derrigorreko jubilazioaren kontzeptua. Horren adibide da uztailaren 1eko 14/2005 Legea<sup>2</sup>. Arean ere, lege horrek Espainiako antolamendu juridikoan derrigorreko jubilazioa berrezarri arren, izenburuan honako eufemismoa jaso du<sup>3</sup>: «Jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeari buruzko hitzarmen kolektiboetako klausulak».

3. Egia esan, ez da harritzekoa legegileak berak ere nolabaiteko «beldurrez» so egitea derrigorreko jubilazioari. Erakundearen bilakaera aztertzea besterik ez dago horretaz konturatzeko.

Legegileak, oraintsu onetsi duen 14/2005 Legean, tentuz, arretaz begiratu du atzera; iragana hartu du abiapuntu. Duda-mudarik gabe, aurrekaririk hurbilenekoa du gogoan, alegia, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretuak<sup>4</sup> onetsitako Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren (LELTBren) 10. xedapen gehigarria.

4. Modu horretan, LELTBren 10. xedapen gehigarriak derrigorreko jubilazioa arautu zuen, martxoaren 10eko Langileen Estatutuari buruzko 8/1980 Legeak<sup>5</sup> LEk ezarri 5. xedapen gehigarriaren idazkera aldatuta. Hala ere, lan-merkatua

---

<sup>2</sup> EAO, 2005eko uztailaren 2, 157. zk.

<sup>3</sup> BALLESTER LAGUNA, F. Derecho transitorio en el proyecto de ley sobre las cláusulas de los convenios colectivos referidas al cumplimiento de la edad ordinaria de jubilación. In *RL*, 2005, 17. zk., 11. or.

<sup>4</sup> EAO, 1995eko martxoaren 29, 75. zk.

<sup>5</sup> EAO, 1980ko martxoaren 14, 64. zk.

eraldatzeko, enplegua gehitzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko presako neurriei buruzko martxoaren 2ko 5/2001 Errege Dekretu-legeak<sup>6</sup> lehenengo, eta izen bereko uztailaren 9ko 12/2001 Legeak<sup>7</sup> gero, LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetu zuten. Lau urte geroago, 14/2005 Legeak 10. xedapen gehigarria berrezarri du, legegileak aipatu nahi ez badu ere, hitzarmen kolektiboetan derrigorreko jubilazioa ituntzea ahalbidetzeko.

5. Aurrekaririk hurbilenekoaz landa, 14/2005 Legeak kontuan hartu ditu derrigorreko jubilazioak Espainiako antolamendu juridikoan izandako gorabehera guztiak. Horretarako, KAren jurisprudentzia ez ezik, Europar Batasuneko zuzenbidea ere aintzat hartu du (14/2005 Legearen zioen azalpenaren II. idatz-zatia).

6. Ondorenez, derrigorreko jubilazioak gaur egun duen arauketa ulertzeko, nahitaezkoa da erakundearen bilakaera historikoa aztertzea. Orobat, bilakaera historikoaren azterketak agerian jarriko ditu derrigorreko jubilazioaren inguruan dauden interesak, bai eta interes horien ondorio diren erakundearen aldeko zein aurkako arrazoiak ere.

7. Azken buruan, 14/2005 Legeak bilakaera historikoaren emaitza jaso du, alegia, ezaugarri jakin batzuk dituen derrigorreko jubilazioa arautu du.

8. Dena dela, bilakaera historikoa aztertzeari ekin aurretik, orain arte esandakoaren ildotik, badira nabarmendu beharreko zalantza batzuk. Egin-eginean ere, guztiz esanguratsua da LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetzea, eta lau urtera hori berori berrezartzea.

Hartara, zein izan ziren indargabetzearen arrazoiak? Bestela esanda, zer dela-eta indargabetu zen ordura arte, *lege lata* behinik behin, lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren

---

<sup>6</sup> EAO, 2001eko martxoaren 3, 54. zk.

<sup>7</sup> EAO, 2001eko uztailaren 10, 164. zk.

xedeak<sup>8</sup> betetzeko baliagarritzat jo zen erakundea? Ustez, pisuzko arrazoiak izan beharko ziren indargabetzea erabakitzeke.

Orduan, lau urte igaro ondoren, zergatik berrezarri da derrigorreko jubilazioa? Hainbeste aldatu ote da, bada, gizarte-egoera? Zein arrazoi daude gaur egun erakunde hori «berpizteko»?

Bestalde, legegileak derrigorreko jubilazioarekiko duen «beldurrak», eta «beldur» horrek eragindako atzera-begiratze ia-ia obsesibo horrek, ez al dute LELTBren 10. xedapen gehigarri berria iraganari gehiegi lotu? Eta, horrela bada, botere legegilea ez al dabil iparra galduta, batetik bestera salto-brinkoka, lan-zuzenbidearen nahiz Gizarte Segurantzaren oinarritzko xedea bazter utzi eta errealitatetik kanpo?

Labur-zurrean esanda, iraganeko indargabetze-arrazoiak ez ziren pisuzkoak, edo, pisuzkoak baziren, ezin uler daiteke hain epe laburrean berriro iraganen oinarritutako erakundea ezartzea.

Haatik, baliteke gaur egungo gizarte-beharrizanak eta-arazoak konpontzeko derrigorreko jubilazioa baliagarri izatea, baina eguneratuta, hots, iraganeko ezaugarriak zeharo eraldatu edo eraberrituta. Horrela izanez gero, legegileak ez du fin jokatu; horrenbestez, «beldurrak» eragotzi dio aģian beharrezkoa den eraldaketa gauzatzea, etorkizunari oinarri sendo eta seguruekin aurre egiteko. Horrela izanez gero, nahiago izan du begiak estali eta, besterik gabe, «egoerari eustea», nahiz eta kontraesanak nagusitu eta segurtasun juridikoa zalantzan jarri.

---

<sup>8</sup> Oro har, lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren xede nagusia gizarte-bakea lortzea da. Enpresaburuen eta langileen artean dauden aurkako interesak orekatuta bakarrik lor daiteke gizarte-bake hori. Horregatik, lan-zuzenbideak eta Gizarte Segurantzak mekanismo bereziak ezarri behar dituzte, uanean-uneke gizarte-beharrizana eta -arazoak aintzat hartuta. Gaur egun, Gizarte Segurantzak gaintitu egin du lan-zuzenbidearen aplikazio-esparrua, eta lan-zuzenbidetik at dauden pertsonak ere babesten ditu, legean aurretiaz tipifikatutako beharrizana-egoera jakin batzuetatik. Edozelan ere, gutxieneko koherentzia izan behar da lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren artean. Aipatu oreka horrek zuzendu beharko lituzke beti botere legegilea, betearazlea eta judiziala.

# **1.- DERRIGORREKO JUBILAZIOAREN BILAKAERA HISTORIKOA ESPAINIAKO ANTOLAMENDU JURIDIKOAN**

## **1.1. Aurrekariak**

9. Lan-zuzenbidean, derrigorreko jubilazioaren hastapenak 1942ko urriaren 16ko lan-araudien araubideari buruzko Legearen<sup>9</sup> ondorio ziren lan-araudi batzuetan daude.

Itxura denez, lan-araudi batzuek derrigorreko jubilazioa ezarri zuten. Beste lan-araudi batzuek halakorik jaso ez zutenez, eztabaida sortu zen. Hain justu ere, eztabaida horren ondorio izan zen 1953ko uztailaren 1eko Agindua<sup>10</sup>.

Bada, 1953ko uztailaren 1eko Aginduak ondokoa ezarri zuten: «adinaren araberako jubilazioa langilearen eskubidea da beti; langileak eskubide hori egikari dezake jubilazioa arautzeko xedapenetan jaso baldintzak eta betekizunak betetzen dituenean» (1. artikulua).

Gerogarrenean, Auzitegi Gorenak (AGk) berretsi egin zuen hori, 1966ko ekainaren 30eko epaian<sup>11</sup>. Epai horren bosgarren kontuan hartuzkoan argiro adierazten da «prozesuko subjektu aktiboaren borondatearen aurka ezin dela jubilaziorik ezarri..., 1953ko uztailaren 1eko Aginduaren arabera langilearen eskubidea delako egoera pasibora igarotzea».

10. Antzeman daitekeenez, legegileak eta jurisprudentziak derrigorreko jubilazioaren aurka egin zuten, jubilazioa langile bakoitzaren eskubide gisa hartu baitzuten. Jubilazioa banakako eskubide zen heinean, ezin zen inola ere mugatu. Horren ondorioz, indargabetutzat jo ziren derrigorreko jubilazioaren inguruko klausulak ezarri zituzten lan-araudi guztiak.

---

<sup>9</sup> EAO, 1942ko urriaren 23, 296. zk.

<sup>10</sup> EAO, 1953ko uztailaren 7, 188. zk.

<sup>11</sup> Ar. 3636.

11. Zernahi gisaz, 1953ko Agindua onetsi eta lasterrera, errealitatean, sektore jakin batzuetan, aurkako interesak agertu ziren. Halako sektoreetan, komenigarritzat jotzen zen derrigorreko jubilazioa. Horregatik, arau orokorrari salbuespenak egin zitzaizkion. Horren adibide dira, besteak beste, 1955eko urtarrilaren 18ko Agindua<sup>12</sup>, 1955eko martxoaren 15eko Agindua<sup>13</sup>, 1955eko apirilaren 30eko Agindua<sup>14</sup>, 1956ko urtarrilaren 24ko bi Aginduak<sup>15</sup> eta 1954ko maiatzaren 1ean Laneko Zuzendaritza Nagusiak emandako Ebazpena<sup>16</sup>.

12. Lan-zuzenbidearen aplikazio-esparrutik at, funtzionarioen lan-harremanetan, derrigorreko jubilazioa erakunde klasikoak da; izan ere, funtzionarioen lan-harremanetan borondatezko jubilazioa, ezintasun fisikoaren ondoriozko jubilazioa eta derrigorreko jubilazioa bereiz daitezke<sup>17</sup>.

Administrazioak berebiziko interesa izan ohi du funtzionarioen lan-harremanak azkentzeko, funtzionarioak adin jakin batera heltzen direnean. Adin jakin batetik aurrera trebetasunik eza nagusi dela uste da. Uste hori oinarri hartuta, derrigorreko jubilazioaren xedea da zerbitzu publikoen jardunbidea hobetzea. Gainera, Administrazio publikoak hobeto jarduteko xede horrek

---

<sup>12</sup> EAO, 1955eko urtarrilaren 25, 25. zk. Agindu horrek 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zituen hurrengo lan-arauiak: RENFERi buruzkoa, estatuak ustiatutako trenbideei buruzkoa, nazioarteko ohe-bagoien konpainiari eta Europako tren espres handietan lan egiteari buruzkoa eta «Banco de España» bankuari buruzkoa.

<sup>13</sup> EAO, 1955eko martxoaren 26, 85. zk. Agindu horrek 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zuen «Tabacalera S.A.ren» lan-araudia.

<sup>14</sup> EAO, 1955eko maiatzaren 16, 136. zk. Agindu horrek 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zuen Espainiako Telefónica Konpainia Nazionalaren lan-araudia.

<sup>15</sup> EAO, 1956ko urtarrilaren 31, 31. zk. Agindu horietarik lehenengoak 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zuen «Compañía Arrendataria del Monopolio de Petróleos, S.A.ren» lan-araudia; bigarren Aginduak 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zituen «Banco Hipotecario de España» eta «Banco de Crédito Local» bankuen lan-arauiak.

<sup>16</sup> EAO, 1954ko maiatzaren 7, 127. zk. Ebazpen horrek 1953ko uztailaren 1eko Agindutik salbuetsi zuen «Banco de España» bankuaren lan-araudia.

<sup>17</sup> ESTEVE SEGARRA, A. *op. cit.* 19. or.

justifikatu du, esparruen arabera, derrigor jubilatzeko adin desberdinak ezartzea. Horrenbestez, Administrazio publikoan, neurri handi batean behintzat, eutsi egiten zaio zahartzaroa trebetasunik ezarekin identifikatzeko joera klasikoari<sup>18</sup>.

Horrez gain, funtzionarioen derrigorreko jubilazioa sekula ere ez da zalantzan jarri<sup>19</sup>. Areago, 1978an Espainiako Konstituzioa (EK) aldarrikatu ostean, KAK sarritan adierazi du desberdinak direla lan-zuzenbidearen aplikazio-esparruko langileen eta Administrazio publikoaren esparruko funtzionarioen eta estatutudun pertsonalaren lan-harreman juridikoak. Horrexek justifikatzen du horien arteko tratamendu desberdina<sup>20</sup>.

Laburbilduz, lan-zuzenbidearen esparrukoak dira derrigorreko jubilazioaren baliagarritasunaren inguruko arazo eta eztabaidak.

---

<sup>18</sup> ESTEVE SEGARRA, A. *op. cit.* 48 eta 49. or.

Esangura horretan, gogora bedi, 1947ko apirilaren 18ko Dekretuak (EAO, 1947ko maiatzaren 5, 125. zk.) zahartzaroaren eta elbarritasunaren gizarte-asegurua eratu zuela. Dekretu horren zioen azalpenean parekatu egiten dira zahartzaroa eta elbarritasuna ondoreei dagokienez.

<sup>19</sup> Beste kontu bat da derrigorreko jubilazioa aplikatzean «bigarren mailako» arazoak edo «arazo eratorriak» izatea. Horixe gertatu zen, esaterako, uztailaren 1eko Botere Judizialaren Lege Organikoaren (EAO, 1985eko uztailaren 2, 157. zk.) 386. artikulua epaile eta magistratu guztien derrigorreko jubilazioa 70 urtetik 65 urtera jaitsi zuenean.

Konstituzio-aurkakotasuneko errekursoak eta konstituzio-aurkakotasuneko galdekizun bat jarri ziren manu horren aurka, hurrengo printzipioak urratzen zituela adieraziz: Espainiako Konstituzioaren (EKren) 117.2 artikuluko mugikortasunik ezaren printzipioa, 9.3 artikuluko atzeraeragin judizialik ezaren, botere publikoen nahierakeria-debekuaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak eta 106.2 artikuluan jaso subjektu pribatuen eskubidearen inguruko printzipioa, «ondasun eta eskubideetan izandako kalte guztien ordaina jasotzeko». Edu berean, EKren 33.3 artikuluan jaso «ondasunak eta eskubideak kentzearen» biderei ekin zitzaion.

KAK atzera bota zituen halako errekursoak. Galdekizunarekin ere gauza bera egin zuen. Horien guztien inguruan, ikus KAREN uztailaren 29ko 108/1996 epaia (epai horri buruz, eta, orokorrean, funtzionarioen derrigorreko jubilazioari buruz, oso interesagarria da: PÉREZ DE LOS COBOS ORIHUEL, F. Sobre la jubilación forzosa de los funcionarios. In *RL*, 1987, I. liburukia, 7. zk., 326-336 orr.), KAREN ekainaren 11ko 19/1987 epaia, KAREN apirilaren 19ko 51/1986 epaia.

<sup>20</sup> Ikus, besteak beste, KAREN urtarrilaren 12ko 10/1983 autoa; KAREN uztailaren 29ko 108/1986 epaia eta KAREN ekainaren 11ko 19/1987 epaia.

## **1.2. Martxoaren 10eko Langileen Estatutuari buruzko 8/1980 Legearen 5. xedapen gehigarria**

13. Martxoaren 10eko Langileen Estatutuari buruzko 8/1980 Legearen (LEren) berrikuntza nabarmena 5. xedapen gehigarrian araututako derrigorreko jubilazioa izan zen<sup>21</sup>.

Isilbidez bada ere, LEk indargabetu egin zuen 1953ko uztailearen 1eko Agindua. Ordura arte, kasuan kasuko salbuespenak gorabehera, jubilazioa subjektu pribatuen banakako eskubide mugaezina izan zen. Aurrerantzean, berriz, posible izango da, interes kolektiboaren izenean, eskubide hori mugatzea.

Orobat, derrigorreko jubilazioak lan-kontratua azkentzea dakarrenez, lan-kontratua azkentzeko arrazoien artean jubilazioa ezarri zen estreinako (LEren 49.1.f artikuluan). Bada, 49.1.f artikulua ezarri zuen adinaren arabera derrigorreko jubilazioaren oinarri juridikoa<sup>22</sup>.

14. Alabaina, laster sortu ziren derrigorreko jubilazioaren inguruko zalantzak. Hurrean ere, EKren 35.1 artikulua «lanerako eskubidea» ezarri du, eta EKren 14. artikulua debekatu egin du bereizkeria oro, «jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsona zein sozial aintzat hartuta». LEren 14.2.c artikulua enplegurako, edo behin enplegatuta, adinaren ondoriozko bereizkeriarik ez izateko eskubidea ezarri du, eta LEren 17.1 artikulua gauza bera egin du, baina, orokorrean, lan-harremanei dagokienez.

---

<sup>21</sup> Honakoa zen 5. xedapen gehigarriaren idazkera:

«Lan egiteko gaitasunak, bai eta lan-kontratua azkentzeak ere, Gobernuak, Gizarte Segurantzaren eta lan-merkatuaren baliabideak kontuan hartuta, adinaren inguruan ezarri gehieneko muga izango dute. Edozein kasutan ere, gehieneko adina hirurogeita bederatzire urte izango da, jubilazioa hartzeko kotizazio-ezaldiak betetzeari kalterik egin gabe.

Negoiazio kolektiboan askatasunez itun daitezke jubilazioa hartzeko adinak, ondore horietarako Gizarte Segurantzaren ezarritakoari kalterik egin gabe».

<sup>22</sup> Horren inguruan ikus BORRAJO DACRUZ, E. La jubilación laboral como institución jurídica. Vejez, senilidad, retiro y redistribución del empleo. In *AL*, 2005, 16. zk., 1868 eta 1869. orr.



15. Hasierako zalantzak praktikan konstituzio-aurkakotasuneko galdekizun bihurtu ziren. Azkenean, KAren epaiak zehaztu behar izan zituzten derrigorreko jubilazioaren nondik norakoak.

16. KAren uztailaren 2ko 22/1981 epaiak ebatzi zuen derrigorreko jubilazioaren gaineko lehenengo konstituzio-aurkakotasuneko galdekizuna.

Epai horrek LEn 5. xedapen gehigarria, zati batean behintzat, Konstituzioaren aurkakoa zela adierazi zuen. KAren arabera, ezin zen interpretatu hirurogeita bederatzi urte betetzean lan egiteko ezintasuna zegoenik, eta, adin horretan, modu zuzenean eta inolako baldintzarik gabe, lan-harremanak azkentzen zirenik.

Hala eta guztiz ere, KAren ustez, derrigorreko jubilazioa enplegu-politikaren tresna gisa erabiltzen denean, hots, lana banatzeko, ez da berdintasun-printzipioa hausten. Gainera, derrigorreko jubilazioaren erabilera horrek justifikatu egiten du lan egiteko eskubidea mugatzea.

Baina derrigorreko jubilazioa enplegu-politikaren tresna gisa erabili ahal izateko, bi baldintza bete behar dira. Batetik, langabezia daudenei lan egiteko aukera eskaini behar zaienez, derrigorreko jubilazioak ezin du eragin lanpostuak amortizatzea. Bestetik, jubilazioa ezarri zaion langileari jubilazioaren ondoriozko pentsioa bermatu behar zaio.

17. KAren apirilaren 30eko 58/1985 epaiak ebatzi zuen derrigorreko jubilazioaren gaineko bigarren konstituzio-aurkakotasuneko galdekizuna.

Epaiak ebatzitakoaren arabera, hitzarmen kolektiboetan derrigorreko jubilazioa ezar daiteke, baldin eta KAren uztailaren 2ko 22/1981 epaiak ezarri bi baldintzak betetzen badira.

### **1.3. Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren (LELTBren) 10. xedapen gehigarria**

18. LELTBk idazkera berria eman zion 1980ko LEren 5. xedapen gehigarriari. Horrez gain, xedapen gehigarri hori 10.a izatera igaro zen<sup>23</sup>.

Dena den, idazkera berriaren helburu bakarra izan zen KAK derrigorreko jubilazioari buruz adierazitakoa jasotzea. Hori dela eta, hirurogeita bederatzi urteko gehieneko muga ezabatu zen, eta derrigorreko jubilazioa enplegu-politikari lotu zitzaion.

19. Horrela, derrigorreko jubilazioaren arauketa egonkortuta zegoela zirudienean, AGren 2000ko uztailaren 14ko epaiak<sup>24</sup> interes-aldaketa eragin zuen, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtso bat ebatzi zuenean.

Interes-aldaketa horrek zerikusia zuen derrigorreko jubilazioa enplegu-politikaren tresna gisa erabiltzearekin. Bada, malgutu egin zen KAren uztailaren 2ko 22/1981 epaiak erabilera horren inguruan egindako interpretazioa.

Ordura arte, enplegu-politika lanpostuak amortizatzen debekuekin identifikatu zen. Etorkizunera begira, aldiz, nahitaezkoa zen interpretazio hertsia hori malgutzea.

---

<sup>23</sup> Idazkera eta zenbaki berriak zituen derrigorreko jubilazioaren inguruko xedapen gehigarriak ondokoa ezartzen zuen:

«Lan egiteko adinaren inguruko gehieneko muga.

Manu honetan ezarri mugekin eta baldintzetan, derrigorreko jubilazioa enplegu-politika gauzatzeko tresna gisa erabil daiteke.

Lan egiteko gaitasunak, bai eta lan-kontratua azkentzeak ere, Gobernuak, Gizarte Segurantzaren eta lan-merkatuaren balia bideak kontuan hartuta, adinaren inguruan ezarri gehieneko muga izango dute, jubilazioa hartzeko kotizazio-etzaldiak betetzeari kalterik egin gabe.

Negoiazio kolektiboan askatasunez itun daitezke jubilazioa hartzeko adinak, ondore horietarako Gizarte Segurantzaren ezarritakoari kalterik egin gabe».

<sup>24</sup> Ar. 6630.

Horregatik, AGren epai horrez geroztik, derrigorreko jubilazioaren bidez gauza daitekeen enplegu-politikara bilduko dira beste neurri batzuk ere, baita lanpostuak amortizatzea dakartenak ere. Hori berori gertatzen da, esate baterako, enpresaren egitura-arazoak konpontzeko plantila murrizten denean. Halakoetan, langile-talde baten lan-interesak defendatzeko, langile batzuen lan egiteko banakako eskubidea mugatzen da.

#### **1.4. LETBren 10. xedapen gehigarria azkentzea**

20. Arestian esan bezala, lan-merkatua eraldatzeko, enplegua gehitzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko presako neurriei buruzko martxoaren 2ko 5/2001 Errege Dekretu-legeak lehenengo, eta izen bereko uztailaren 9ko 12/2001 Legeak gero, LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetu zuten.

21. Indargabetzearen arrazoiak arau horien zioen azalpenetan jaso ziren. LETBren 10. xedapen gehigarriak bat egiten ei zuen zaharkituta edo gaindituta zeuden errealitate demografikoarekin eta lan-merkatuaren egoerarekin. LETBren 10. xedapen gehigarriaren xedea neurri jakin batzuk bultzatzea omen zen, urte gehien zituzten langileen derrigorreko jubilazioa lortzeko. Nolanahi ere, hori guztia ez omen zettorren bat egungo enplegu-politikaren irizpideekin. Bada, irizpide horien artean jubilazioa hartzeko adinera heldu eta lanean irautea dago.

22. LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetzearekin batera, eztabaida sutua piztu zen eskezkiko errekursoak ebatzi behar zituzten auzitegi nagusietan; izan ere, LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetu arren, ez zen araurik onetsi, hitzarmen kolektiboetan derrigorreko jubilazioa ezartzea debekatuta zegoen ala ez zehazteko<sup>25</sup>.

---

<sup>25</sup> Eztabaida horri buruz ikus MERCADER UGUINA, J. R. eta NOGUEIRA GUASTAVINO, M. Muerte y previsible pronta resurrección de la validez de las cláusulas convencionales de jubilación forzosa. In *Revista Práctica Mensual, Social Mes a Mes*, 2004, 98 eta 99 zk., 36 eta 37. or.

23. Hori dela eta, auzitegi batzuek derrigorreko jubilazioa hitzarmen kolektiboetan ezar zitekeela adierazi zuten, batez ere, LETBren 85.1 artikuluan oinarrituta<sup>26</sup>. Auzitegi horientzat, LETBren 10. xedapen gehigarriaren indargabetzeak deslegeztapena eragin zuen.

Beste auzitegi batzuek, ordea, derrigorreko jubilazioa hitzarmen kolektiboetan ezin ezar zitekeela adierazi zuten. Auzitegi horiek ulertu zuten LETBren 10. xedapen gehigarriak izaera eratzailea zuela, hots, xedapen horrek ematen ziola baimena negoziazio kolektiboari derrigorreko jubilazioak arautzeko. Hortaz, behin LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetuta, ezinezkoa zen hitzarmen kolektiboek derrigorreko jubilazioa ezartzea.

24. Eztabaida horiek guztiak AGk konpondu zituen, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtso bi ebatzi zituenean, 2004ko martxoaren 9an emandako beste horrenbeste epaietan<sup>27</sup>.

25. Epaia horietan, AGk bi ondorio ezarri zituen. Lehenengo ondorioaren arabera, indargabetze-datatik aurrera ezin zen derrigorreko jubilazioarik jaso hitzarmen kolektiboetan. Bigarren ondorioaren arabera, indargabetze-data baino lehenago hitzarmen kolektiboetan ezarri derrigorreko jubilazioari buruzko klausulak legezkoak ziren, baina hitzarmen kolektiboaren indarraldia amaitu arte bakarrik iraun zezaketen.

26. AGk lehenengo ondorioa arrazoitzeko hurrengo irizpideak erabili zituen:

— LETBren 10. xedapen gehigarriak balio eratzailea zuela ulertu zuen. Ondorenez, indargabetzeaz geroztik, negoziazio kolektiboak ez zuen derrigorreko jubilazioa ezartzeko baimenik.

---

<sup>26</sup> Artikulu horren arabera, «legeak errespetatuta, hitzarmen kolektiboek arau ditzakete ekonomia- lan- eta sindikatu-izaerako gaiak, eta, oro har, enplegu-baldintzetan eta langileen zein euron ordezkari-tza-erakundeen eta enpresaburuen zein enpresaburuen elkarteen arteko harremanen esparruan eragina duten gaiak».

<sup>27</sup> Ar. 841.

Ildo horretatik, ulertu zuen LETBren 10. xedapen gehigarria indarrean zegoenean, saihestu egiten zela derrigorreko jubilazioa adinaren arabera bereizkeriatzat jotzea, lanerako eskubidea inongo justifikaziorik gabe mugatzeagatik.

— Hariari segituz, hitzarmen kolektiboek EKren 53.1 artikuluan ezarritako lege-erreserba errespetatu behar dutenez, hitzarmen kolektiboek ezin zuten mugatu EKren 35.1 artikuluan xedatu lanerako eskubidea, eta ezin zuten albo batean utzi EKren 14. artikulua ezarri berdintasun-printzipioa. Arean ere, LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetzean, ez zegoen hori justifikatzeko arrazoirik. Gainera, halako arrazoirik ez zegoenez, urratu egiten zen Europar Batasuneko Kontseiluaren azaroaren 27ko 2000/78 Zuzentaraua, enplegurako, eta behin enplegatuta, tratu-berdintasuna izateko esparru orokorra ezartzen duena<sup>28</sup>.

— AGk ulertu zuen LETBren 10. xedapen gehigarria — eta derrigorreko jubilazioa — arautzeko arrazoiak desagertu egin zirela. Beste horrenbeste gertatzen ei zen hitzarmen kolektiboek derrigorreko jubilazioa ezartzea ahalbidetzen zuten enplegu-politikako arrazoiekin ere.

— AGk ulertu zuen Toledoko Itunaz geroztik (1995), gizarte- eta ekonomia-politika aldatuta zegoela, eta gizarte-egoera berrian derrigorreko jubilazioak ez zuela tokirik. Derrigorreko jubilazioak talka egiten omen zuen Toledoko Itunak ezarritakoarekin. Itun horretan jubilazioa hartzeko adin arruntetik gora lan egitea ahalbidetu behar zela gomendatu zen.

27. Bigarren ondorioa arrazoitzeko, AG Kode Zibilaren xedapen iragankorretatik bigarrenaz baliatu zen: «aurreko legeriaren araubidepean egintza eta kontratuak egin eta baliozkoak badira legeria horren arabera, euren ondore guztiak sortuko dituzte legeria horren arabera...». Gainera, LETBren 10. xedapen gehigarria indargabetu aurretik hitzarmen kolektiboetan jasotako derrigorreko jubilazioaren klausulek garai hartako enplegu-politikaren babesaren zuten.

---

<sup>28</sup> 2000ko otsailaren 12ko EEEO, L 303/16 zk.

28. Ustez, AGk ezarritako doktrinak baretu egin behar zituen LELTBren 10. xedapen gehigarria indargabetu zenean piztutako eztabaida guztiak. Aitzitik, hitzarmen kolektiboek derrigorreko jubilazioaren inguruko klausulak ezartzeari eutsi zioten, AGk adierazitakoari entzungor eginez.

29. Egia esan, AGren 2004ko martxoaren 9ko bi epaietan boto bereziak jaso ziren. Boto berezi horietan hitzarmen kolektiboetan derrigorreko jubilazioaren inguruko klausulak ezartzearen alde egin zen. Horretarako, arrazoi sakonak eman ziren, epaiaren zuzenbideko oinarrietan derrigorreko jubilazioari eustearen aurka ezarri arrazoi guztiei erantzunez.

## **2.- DERRIGORREKO JUBILAZIOAREN EGUNGO ARAUKETA: 14/2005 LEGEA ETA LELTBREN 10. XEDAPEN GEHIGARRI BERRIA**

30. Estatuko ordezkagarritasun handieneko sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek AGren 2004ko martxoaren 9ko bi epaiak jasotako doktrinaren aurka egin zuten. Horien ustez, AGren jurisprudentziak segurtasunik eza eragin zuen negoziazio kolektiboan<sup>29</sup>. Hori zela eta, Gobernuari legea aldatzea eskatu zioten, berriro ere derrigorreko jubilazioa ahalbidetzeko.

31. Gobernuak kontuan hartu zituen ordezkagarritasun handieneko sindikatuen eta enpresaburuen elkarten eskariak, eta horren emaitza da, hain zuzen, 14/2005 Legea<sup>30</sup>, jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeari buruzko hitzarmen kolektiboetako

<sup>29</sup> Harrigarria da segurtasunik ezaz mintzatzea, AGk, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoak ebaztean, 2004ko martxoaren 9an emandako epaietan ezarritakoa kontuan hartuta. Baina harrigarriagoa da 14/2005 Legearen zioen azalpenean ere segurtasunik eza aipatzea.

<sup>30</sup> ÁLVAREZ CORTÉS, J.C. eta PÉREZ YÁNEZ, R. adituek esandakoaren ildotik, Lege hori 2004an Gobernuak eta estatuko ordezkagarritasun handieneko sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek itundutako lehiakortasunari, enplegu egonkorrari eta gizarte-kohesioari buruzko Adierazpenaren ondorioz hasitako gizarte-elkarrizketara biltzen da (ÁLVAREZ CORTÉS, J.C. eta PÉREZ YÁNEZ, R. La Ley 14/2005, de 1 de julio: nuevamente sobre la jubilación forzosa pactada en convenio colectivo. In *RL*, 2005, 17. zk., 53. or.).

klausulak arautzen dituena.

32. Lege horrekin LELTBren 10. xedapen gehigarria berrezarri da, eta, beraz, hitzarmen kolektiboetan derrigorreko jubilazioa ezartzeko aukera<sup>31</sup>.

33. Edozelan ere, LELTBren 10. xedapen berriak berrikuntza gutxi ditu, iraganean oinarritzen delako erabat. Idazkera berria du, baina ez du hausten indargabetzearen aurretik zegoen LELTBren 10. xedapenaren edukiarekin. Eduki hori garatu besterik ez du egin.

Batetik, enplegu-politika gauzatzeko tresna gisa ezarri du derrigorreko jubilazioa, eta, bestetik, langile bati derrigorreko jubilazioa ezartzeko nahitaezkoa da langile horrek Gizarte Segurantzaren sistemak jubilazioa hartzeari dagokionez arautu betekizunak betetzea.

Aurreko arauketa garatzeko asmoarekin, LELTBren 10. xedapen gehigarri berriak ahaleginak egin ditu enplegu-politikaz zer ulertu behar den zehazteko. Horretarako adibideak ematen ditu, «*numerus apertus*» izaerako zerrenda ezarriz. Bada, enplegu-politika esangura malguan ulertu da. Alabaina, zerrenda horretako kontzeptu batzuk zehaztugabeak direnez, legegilearen ahaleginak alferrikakoak izan eta gatazka berriak sor daitezke. Halako kontzeptuak dira, berbarako, «*enplegu-egonkortasuna*» eta «*enpleguari eustea*».

---

<sup>31</sup> Honako hau da LELTBren 10. xedapen berriaren idazkera:  
*«Jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeari buruzko hitzarmen kolektiboetako klausulak.*

Hitzarmen kolektiboetan lan-kontratuaz azkentzea ahalbidetzen duten klausulak jaso daitezke, langileak Gizarte Segurantzako arautegian ezarri jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzearen ondorioz, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badira:

- a) Neurri hori lotu beharko zaie hitzarmen kolektiboan ezarri eta enplegu-politikarekin bat datozen xedeei, hala nola, enplegu-egonkortasuna hobetzeari, aldi baterako kontratuak mugagabeko bihurtzeari, enpleguari eusteari, langile berriak kontratatzeari edo enplegu-kalitatearentzat mesedegarri den beste edozein xederi.
- b) Lan-kontratuaren azkentzeak ukitutako langileak estalita izan beharko du gutxieneko kotizazio-aldia, edo hori baino luzeagoa den aldia, hitzarmen kolektiboan hori itundu bada, eta Gizarte Segurantzako gainerako betekizunak bete beharko ditu, kontribuzio bidezko modalitatean jubilazio-pentsioa jasotzeko eskubidea izan dezan».

Aldi berean, zehaztu egin ditu langileak Gizarte Segurantzari dagokionez bete behar dituen betekizunak, derrigorreko jubilazioa ezar dadin. Betekizun horiek orokorrak dira, hots, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Legearen Testu Bateginaren<sup>32</sup> 124 eta 161. artikuluek ezarritakoak: afiliazioa, alta edo altarekin parekatutako egoera, gutxieneko kotizazio-aldia estalita izatea eta adina. Berrikuntza moduan nabarmendu behar da, aldiz, hitzarmen kolektiboan ezar daitekeen kotizazio-aldi luzeagoa aintzat hartzea derrigorreko jubilazioaren ondoreetarako.

34. Bestalde, 14/2005 Legeak, LETBren 10. xedapen gehigarria berrezartzeaz gain, xedapen iragankor bakarra ezarri du<sup>33</sup>, legea indarrean jarri aurretik zeuden hitzarmen kolektiboetara aplikatu beharreko araubideari begira.

Xedapen iragankor horren asmoa positibotzat jo behar da, batez ere, aurreko xedapen gehigarria indargabetu zenean sortu ziren interpretazio-gatazkak saihestu nahi direlako.

## **F. Javier Arrieta Idiakez**

---

<sup>32</sup> EAO, 1994ko ekainaren 29, 154. zk.

<sup>33</sup> Xedapen iragankor bakarraren idazkera hurrengoa da:  
*«Legea indarrean jarri aurretik zeuden hitzarmen kolektiboetara aplikatu beharreko araubidea.*

Lege hau indarrean jarri aurretik egindako hitzarmen kolektiboak izan eta hitzarmen kolektibo horien klausuletan langileak jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeagatik itundutako lan-kontratuen azkentzeak baliozkoak izango dira, baldin eta bermatzen bada ukitutako langileak gutxieneko kotizazio-aldia estalita izatea eta Gizarte Segurantzako gainerako betekizunak betetzea, kontribuzio bidezko modalitatean jubilazio-pentsioa jasotzeko eskubidea izan dezan».



## **2005. URTEKO ALDAKETAK BIZKAIKO ZERGETAN**

Beste behin ere, 2005. urtean zergen arauketa aldatu egin da Bizkaian. Edozein kasutan, aurten aldaketa horiek ez dira hain esanguratsuak izan, aldaketok zergaz zerga aztertzen baditugu, behinik behin. Zerga bakoitzaren arauketaz landa, zergen arloan eragin zabal eta sakona izango duen Tributuen Foru Arau Orokorra 2005eko uztailaren 1etik aurrera indarrean jarri da. Modu horretara, zergadunen eta Foru Ogasunaren arteko harreman juridikoak zehaztu dira, zerga guztiei begira. Arauketa berria daukagu, beraz, zergen likidazio, bilketa, ikuskapena edo berrikuspena ezartzeko. Aurten indarrean jarri bada ere, ez da kronika txiki honetan jorratuko iazko araua delako, batetik, eta Arau berriak dakartzan aldaketa guztiak sakon aztertu beharko liratekeelako, bestetik, eta hori ezinezkoa da lerro labur hauetan. Hurrengorako utzi behar dugu.

Egia esateko, aldaketa horietako batzuk halabeharrez jaso behar izan ditu Bizkaiko legegileak, araurik edo manurik gabe geratu delako, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergaren kasuan. Beste kasu batzuetan, ordea, kopuruak eguneratu dira, horiek inflaziora egokitzeko. Azkenik, benetako aldaketak geratuko lirateke, esaterako, etxebizitzaren errentamendua bultzatzeko edota itsas garraioko enpresen eraentza berezia Europako Batzordearen gidalerroetara moldatzeko.

## **1.- ALDAKETA NAGUSIAK**

### **1.1. Sozietateen gaineko Zergaren arazoa**

Auzitegi Gorenak, 2004ko abenduaren 9an emandako epaiaren bitartez, Foru Lurraldeetako Sozietateen gaineko Zergaren hainbat artikulua deusezatu direla adierazi du. Deuseztu ere, artikulua horien jatorrizko idazketa deuseztu du. Horiek horrela, epaiak ez ditu ukitu bestelako manuak, hots, manuen jatorrizko idazketa deuseztu arren geroago beste era batera idatzitako manuak. Manu horiek indarrean diraute erabat.

Beste artikulua batzuk, ostera, ez dira aldatu onartu zirenetik eta, ondorioz, deusezatu dira epaiak ondore guztiak sortu dituenetik, hau da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean epaia argitaratu zenetik, 2005eko martxoaren 14tik aurrera. Epaiak sorturiko hutsunea bete behar izan du Bizkaiko legegileak eta, horregatik, 2005erako berriro idatzi eta onetsi dira manu horiek. Dena den, idazketa berri hori behin-behinekoa da, Foru Aldundiek zergaren eraldaketa sakona aurrera eramango baitute datorren urteari begira.

### **1.2. Etxebizitza errentamendua**

Etxebizitza errentamenduen merkatua suspertzeko, neurriak hartu izan dira zenbait zergatan. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Eusko Jaurlaritzako "Etxebizitza Hutsaren Programa" (abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua) sustatu eta babesteko neurriak sartu dira. Etxebizitza errentamenduen kenkariak era aldatu dira, bai errentariarentzat, bai errentatzailearentzat.

Sozietateen gaineko Zergan eraentza berezi berria onartu da etxebizitzak errentatzen dituzten sozietateentzat, Estatuak lehenago egin zuenaren ildotik. Eraentza hori aplikatu ahal izateko, sozietate-xedea etxebizitzak errentan ematea izan behar da. Halakoetan, zergaren kuotaren %90eko hobaria ezarri da, errentamenduen bidez lorturiko etekinei dagokienez.

Amaitzeko, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ere, bi salbuespen gehiago sartu dira, etxebizitza errentamenduaren inguruan.

### **1.3. Itsas garraioko enpresak**

Itsas-garraioko enpresen eraentza berezia ere aldatu da 2005ean. Hobeto esanda, eraentza hori moldatu da Europako Batzordeak eman dituen gidalerro berrietara, arauketa fiskala Estatuko laguntza bihur ez dadin.

## **2.- ARAU ALDATZAILEAK**

Orain arte esan bezala, azken hilabeteetan zehar zergen arauketa aldatu da Bizkaian, arau berri batzuen bidez. Aldaketak onesteko arauok honakoak izan dira, hurrenez hurren:

1- Azaroaren 23ko 206/2004 eta 207/2004 Foru Dekretuak (BAO, 236. zk., 2004ko abenduaren 9koak).

Lehenengo dekretuak arautu ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eguneratze-koefizienteak. Koefiziente horiek erabili behar dira ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko. 2005ean ondasun edo eskubiderik eskualdatuz gero, horien eskuraketa balioa eguneratu behar da koefiziente horiek erabilia, inflazioaren eragina zati batean, bada ere, ezabatzeko. Bigarrenak, ostera, PFEZren laneko etekinen atxikipenak kalkulatzeko, 2005erako atxikipen-taula ezarri du.

2- Abenduaren 13ko 235/2004 Foru Dekretua (BAO, 245. zk., 2004ko abenduaren 22koa).

Dekretu horrek hainbat zergetako araudiak aldatu ditu. Horrela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ondarearen gaineko Zergaren, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiak aldatu dira. Gehienetan, Foru Aldundiak egokitu nahi izan ditu araudietako testuak foru arauetako testuekin.

3- Abenduaren 30eko Bizkaiko Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2004 Foru Araua (BAO, 252. zk., 2004ko abenduaren 31koa).

Lurralde Historikoaren sarrera eta gastuak ezartzeaz batera, zerga batzuetan jaso diren kopuru finkoak egokitu dira, inflazioaren eragina aintzat hartuta. Horrela gertatu da kenkari, tarifa edo zenbateko salbuetsi batzuekin.

4- Ekainaren 23ko Zerga-neurriei buruzko 7/2005 Foru Araua (BAO, 144. zk., 2005eko abuztuaren 1ekoa).

Foru Arau honek aldaketa nagusienak sartu ditu, baina, lehen esan bezala, ez dira hainbesterako izan 2005ean. Hori azaltzeko orduan, agian, kontuan hartu beharko litzateke datorren urterako, 2006rako, bi zerga nagusien eraldaketa handia iragarrita dagoela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena eta Sozietateen gaineko Zergarena, hain zuzen. Horregatik, aurten ez dute aldaketa handirik sartu nahi izan eta, datorren urteari itxaron beharko diogu.

Aldaketa guztien ikuspegi sistematikoa edukitzeko, zergaz zerga begiratuko ditugu 2005erako berrikuntzak Bizkaian.

### **3.- PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA**

#### **3.1. Errenta salbuetsiak**

Estatuak 8/2004 Errege Lege-Dekretuan ezarritakoaren ildotik, salbuetsi dira nazioarteko bake eta segurtasun operazioetan parte hartu dutenek jaso ditzaketen kalte-ordainak, eginkizun horretan izandako zauri edo elbarritasunarengatik. Gauza bera, parte-hartzailearen ondorengoek jasotako kalte-ordainak haren heriotzarengatik.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako "Etxebizitza Hutsaren Programan" errentariak jasotako dirulaguntzak ere salbuetsi dira (316/2002 Dekretua).

Amaitzeko, klase pasiboen ezereztasun edo ezintasun iraunkorreko pentsioen kasuan, salbuespena erabili ahal izateko 3.000 ko muga ezarri da, gainerako langileentzat dagoen bezala. Osterantzean, klase pasiboak egoera okerragoan egongo lirateke salbuespena galduko bailukete zenbateko hori baino handiagoak izango balira euren lan etekinak edo ekonomi jardueren etekinak.

### 3.2. Laneko etekinak

Aseguru kolektiboko kontratutik elbarritasun-prestazioa jasoz gero, eta prestazio osoa ordainketa bakarrean kobratuz gero, arauketa onuragarriena aplikatu ahal izateko enpresak bakoiztu behar izan ditu aseguru kontratuaren primak langilez langile. Betekizun hori ez zaie funtzionarioei aplikatuko, 2005 etik aurrera, Herri Administrazioek ez dituztelako eurek ordaindutako primak bakoiztu behar.

Horrez landa, gauzatan ordaindutako errentei dagokienez, ez da gauzatan ordaindutako errentatzat joko haurtzaindegi zerbitzua hirugarrenekin kontratatzea baldin eta urtean 1.000tik beherako kopurua ordaindu bada, langile bakoitzaren seme-alabarengatik.

Azkenik, atxikipen-taula berria onetsi da:

Urteko etekina		Ondorengo kopurua						
Eurotik	Euroraino	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,01	8.750,00	0	0	0	0	0	0	0
8.750,01	9.300,00	1	0	0	0	0	0	0
9.300,01	9.930,00	2	0	0	0	0	0	0
9.930,01	10.650,00	3	1	0	0	0	0	0
10.650,01	11.390,00	4	2	0	0	0	0	0
11.390,01	11.940,00	5	3	1	0	0	0	0
11.940,01	12.530,00	6	4	2	0	0	0	0
12.530,01	13.190,00	7	5	3	0	0	0	0
13.190,01	13.930,00	8	6	4	1	0	0	0
13.930,01	14.750,00	9	7	5	2	0	0	0
14.750,01	15.670,00	10	8	7	4	0	0	0
15.670,01	17.040,00	11	10	8	5	2	0	0
17.040,01	19.080,00	12	11	9	7	4	0	0
19.080,01	20.940,00	13	12	10	8	5	2	0

Urteko etekina		Ondorengoan kopurua						
Eurotik	Euroraino	0	1	2	3	4	5	Gehiago
20.940,01	23.010,00	14	13	12	10	7	4	0
23.010,01	24.990,00	15	14	13	11	9	5	0
24.990,01	27.670,00	16	15	14	12	10	7	0
27.670,01	31.000,00	17	16	15	14	12	9	1
31.000,01	34.010,00	18	17	16	15	13	11	4
34.010,01	36.280,00	19	18	17	16	15	12	6
36.280,01	38.860,00	20	19	19	17	16	14	8
38.860,01	41.850,00	21	20	20	19	17	15	10
41.850,01	45.320,00	22	21	21	20	19	17	11
45.320,01	48.580,00	23	22	22	21	20	18	13
48.580,01	51.450,00	24	24	23	22	21	19	15
51.450,01	54.670,00	25	25	24	23	22	21	16
54.670,01	58.330,00	26	26	25	24	23	22	18
58.330,01	62.510,00	27	27	26	25	24	23	19
62.510,01	67.170,00	28	28	27	27	26	24	21
67.170,01	70.930,00	29	29	28	28	27	26	22
70.930,01	75.120,00	30	30	29	29	28	27	24
75.120,01	79.850,00	31	31	30	30	29	28	25
79.850,01	85.210,00	32	32	31	31	30	29	26
85.210,01	91.350,00	33	33	32	32	31	30	28
91.350,01	98.430,00	34	34	33	33	32	32	29
98.430,01	106.710,00	35	35	34	34	34	33	30
106.710,01	116.430,00	36	36	36	35	35	34	32
116.430,01	127.520,00	37	37	37	36	36	35	33
127.520,01	140.940,00	38	38	38	37	37	36	35
140.940,01	157.530,00	39	39	39	38	38	37	36
157.530,01	Hortik aurrera	40	40	40	39	39	39	37

### 3.3. Ondasun higiezinaren kapitalaren etekinak

Badakigu ondasun higiezinaren gaineko titulartasunak fikziozko errenta aitortzera behartzen gaituela. Bizkaiak, arlo horretan, bi aldaketa sartu dira aurreko arauketarekin alderatuz gero. Alde batetik, trastelekuen gaineko titulartasunak ez du etekinik sortuko, egun ohiko etxebizitzarekin eta garajeekin gertatzen den bezala.

Bestalde, etekina sortu denean, berau kalkulatzeko modua aldatu da. 2005etik aurrera, etekin garbia ondasun higiezinaren katastro balioaren %1 izango da. Nolanahi den ere, 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera katastro balioa berrikusi edo indarrean jarri bada, etekin garbia katastro balioaren %0,25 da. Hortaz, iazko arauketarekin alderatuta, ez dago gasturik kentzerik, hots, ezin daiteke kendu Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

### 3.4. Ondare irabazi eta galerak

2005ean ondasun eta eskubideak eskualdatuz gero, horrelakoetan izaniko irabaziak eta galerak kalkulatzeko, eguneratze-koefizienteak ezarri dira ondasun edo eskubide eskualdatuaren eskuraketa-balioa eguneratzeko. Honakoak dira koefiziente berriak:

<b>Ekitaldiak</b>	<b>Koefizienteak</b>
1994 eta aurrekoak	1,264
1995	1,343
1996	1,293
1997	1,264
1998	1,236
1999	1,203
2000	1,162
2001	1,119
2002	1,079
2003	1,049
2004	1,020
2005	1,000

### 3.5. Zerga oinarri orokorra

Zerga oinarri orokorraren txikipena eguneratu da, baterako aitortpena aurkezten denerako:

a) Famili unitatea osatzen badute senar-emazteek edo izatezko bikoteek, txikipena 3.672koa da.

b) Famili unitatea bestelakoa bada, hots, guraso batek eta adingabeko seme-alaba guztiek osatzen badute famili unitatea, txikipena 2005ean 3.223koa da.

### 3.6. Zergaren tarifa

Alor honetan, zergaren tarifa eguneratu da. Eguneratzea %2an egin da, hori izan baitzen inflazioaren tasa ofiziala iaz. Horrenbestez, oinarri likidagarri orokorrari ondoko tarifa aplikatuko zaio kuota osoa kalkulatzen:

Oinarri likidagarriaren gutxieneko zenbatekoa	Kuota osoa (Euro)	Oinarri likidagarriaren gaindikina	Karga tasa aplikagarria (%)
3.672,00	0,00	3.060,00	15,00
6.732,00	459,00	7.140,00	23,00
13.872,00	2.101,20	13.668,99	28,00
27.540,00	5.928,24	14.280,00	35,00
41.820,00	10.926,24	19.380,00	42,00
61.200,00	19.065,84	Hortik aurrera	48,00»

### 3.7. Pertsonaren eta familiaren ziozko kenkariak

#### 3.7.1. Ondorengoaren ziozko kenkaria

Zergaren tarifarekin gertatu den bezala, ondoko kenkariak %2an eguneratu dira, inflazioaren eragina ezerezteko. Arazoa betikoa da, alegia, inflazioaren tasa ofiziala ez datorrela bat benetako inflazioarekin eta, ondorioz, aldaketa erdi bidean geratzen dela. Gatozen harira. Zergadunarekin batera bizi den ondorengo bakoitzarengatik hurrengo kenkaria erabil daiteke:

- a) 469 euro urtean lehen ondorengoarengatik.
- b) 576 euro urtean bigarren ondorengoarengatik.
- c) 867 euro urtean hirugarren ondorengoarengatik.



d) 1.122 euro urtean laugarren ondorengoarengatik.

e) 1.530 euro urtean bosgarren ondorengoarengatik eta gainerako ondorengo bakoitzarengatik.

Aurreko kopuruarekin batera, ondorengoa sei urtetik beherakoa bada, urtean 225 euroko beste kenkari bat ere aplikatu daiteke.

Era berean, nazioarteko adopzioan hartutako pertsona bakoitzeko 612 euro gehiago ken daitezke, adopzio urtean bakarrik.

### *3.7.2. Seme-alaben mantenua dela-eta, urteko kopuruaren kenkaria*

Oraingo honetan ere, kenkariaren zenbatekoak eguneratu dira %2an. Horrenbestez, kenkaria da seme-alabei ordaindutako kopuruaren %15, hurrengo mugekin:

a) 134 euro urtean lehen seme-alabarengatik.

b) 166 euro urtean bigarren seme-alabarengatik.

c) 198 euro urtean hirugarren seme-alabarengatik.

d) 256 euro urtean laugarren seme-alabarengatik.

e) 348 euro urtean bosgarren seme-alabarengatik eta gainerako seme-alaba bakoitzarengatik.

### *3.7.3. Aurreko senideen ziozko kenkaria*

Kenkariaren kopurua %2an igo da. Aurreko senidearengatik 206 euro ken daitezke.

### 3.7.4. Ezintasun edo elbarritasunaren ziozko kenkaria

Honako kopuruak kendu ahal izango dira 2005eko aitortpenean:

<b>Minusbaliotasun gradua eta hirugarren pertsona baten laguntzaren beharizana</b>	<b>Kenkaria (Euro)</b>
Minusbaliotasuna %33koa edo hortik gorakoa da eta %65 baino gutxiago	612
Minusbaliotasuna %65ekoa da edo hortik gorakoa	938
Minusbaliotasuna %75ekoa edo hortik gorakoa da, eta hirugarren pertsonaren laguntzaren beharizana 15 eta 39 puntu artekoa	1.122
Minusbaliotasuna %75ekoa edo hortik gorakoa da, eta hirugarren pertsonaren laguntzaren beharizana 40 puntu edo gehiago izatea	1.428

### 3.7.5. Adinagatiko kenkaria

2005ean kenkariaren kopuruak %2an igo dira. Horrela:

- a) Zergaduna 65 urtetik gorakoa bada, 204 euro ken daitezke.
- b) Zergaduna 75 urtetik gorakoa bada, 408 euro ken daitezke.

## 3.8. Ohiko etxebizitzaren ziozko kenkaria

Oraingo honetan, etxebizitza eskuratzeagatiko kenkaria ez da ukitu, harritzekoa badirudi ere. Horren ordez, etxebizitza errentamenduen ziozko kenkariak aldatu dira, bai errentariaren mesedetan denean bai errentatzailearen mesedetan denean.

### 3.8.1. Ohiko etxebizitzaren errentamenduaren ziozko kenkaria (errentariaren mesedetan)

Kasu honetan, aldaketa ez da hainbestekoa izan. Batetik, kenkaria aplikatzeko mugak igo dira, inflazioaren igoera baino

gehiago. Bestetik, ehuneko handiena erabil dezake Eusko Jaurlaritzako “Etxebizitza Hutsaren Programan” etxebizitza errentan hartu duenak. Hortaz, kenkaria honelakoa da 2005ean:

a) Errentamenduarengatik ordaindutako kopuruen %20, kenkaria urtean 1.600 baino gehiago ezin daitekeela izan.

b) Errentamenduarengatik ordaindutako kopuruen %25, kenkaria urtean 2.000 baino gehiago ezin daitekeela izan. Kenkaria horrela izango da zergadunak ondoko baldintzetako bat betetzen badu:

- 35 urtetik beherakoa izatea.
- Familia ugariaren titularra izatea.
- Eusko Jaurlaritzako “Etxebizitza Hutsaren Programan” etxebizitza errentan hartu izana, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren arabera.

### *3.8.2. Etxebizitza errentamenduaren ziozko kenkaria (errentatzailearen mesedetan)*

Aurten kenkari hau ere aldatu da, hiru etxebizitza edo gehiago errentan ematen dituztenek okerrera egin dutela. Egia da kenkariaren ehunekoa handitu dela (orain %20), baina lehenagoko muga etxebizitza bakoitzeko zen eta orain muga bakarra da kenkari osorako, etxebizitza kopurua berdina diola. Kenkaria, beraz, etxebizitza errentamendurekin lorturiko etekin garbiaren %20 izango da. Kenkariaren muga 1.600koa da eta ezin da etxebizitzaz etxebizitzaz kalkulatu: muga kenkari osorako da.

Aurrekoaz gain, kenkaria ez da bakarrik izango errentatzailearentzat. 2005etik aurrera, etxebizitzaren jabeek edo gozamenek ere aplikatu dezakete Eusko Jaurlaritzari etxebizitza utzi diotenean “Etxebizitza Hutsaren Programaren” barruan. Gauza bera gertatuko da, jabeek etxebizitza utzi edo errentan eman diotenean etxebizitzak errentan ematen dituzten sozietateei, azken horiek Sozietateen gaineko Zergaren eraentza bereziaren mendean badaude.

## 4.- ONDAREAREN GAINEN ZERGA

### 4.1. Ondasun salbuetsiak

Dakigunez, gure ondareko ondasun batzuk salbuetsi dira eta horien artean, ohiko etxebizitza dago. Aurten, ohiko etxebizitza salbuetsita izango da 200.000raino. Kasu honetan, aurreko urteetako muga igo da, inflazioak izan duen eragina baino gehiago. Ziur asko, igoera horretan etxebizitzaren prezioaren igoera amaigabeak ere izan du bere zerikusia.

### 4.2. Kopuru salbuetsia

Aurten kopuru salbuetsia eguneratu da. Gainerako zergetan gertatu bezala, hemen ere eguneratzea %2an izan da eta, horrenbestez, ondare garbiaren 191.440 salbuetsi dira.

### 4.3. Tributu-kuota

Zergaren tarifa aldatu dute, inflazioaren ondorioak saihesteko, inflazioaren tasa ofizialaren ondorioak, bederen. Tarifa berria honakoa da:

Oinarri likidagarriaren gutxieneko zenbatekoa	Kuota osoa (Euro)	Oinarriaren gaidikina (Euro)	Karga tasa aplikagarria (%)
0	0	181.290,00	0,20
181.290,00	362,58	181.290,00	0,30
362.580,00	906,45	362.580,00	0,50
725.160,00	2.719,35	725.159,00	0,90
1.450.319,00	9.245,78	1.450.318,00	1,30
2.900.637,00	28.099,92	2.900.635,00	1,70
5.801.272,00	77.410,71	5.801.270,00	2,10
11.602.542,00	199.237,38	Hortik aurrera	2,50

### 4.4. Aitorpena aurkezteko beharra

Subjektu pasiboak aitortu behar du bere ondare garbia 191.440 eurotik gorakoa bada; halere, subjektuaren ondare

garbia 191.440 eurotik beherakoa izanik ere, aitortu behar du bere aktiboa 663.780 eurotik gorakoa bada.

## **5.- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA**

### **5.1. Diruaren balio galtzea zuzentzea**

Sozietateak ondasunik eskualdatuz gero, eskualdaketa horretan izan duen irabazi nahiz galera kalkulatzeko, ondasunaren eskuraketa balioa eguneratu behar du taula baten koefizienteak aplikatuta. Koefizienteak ezarri dira 2005erako:

<b>Ondare osagaia eskuratu zeneko urtea</b>	
<b>Koefizienteak</b>	
1984ko urtarrilaren 1 baino lehen .....	2,087
1984an .....	1,896
1985ean .....	1,749
1986an .....	1,647
1987an .....	1,569
1988an .....	1,499
1989an .....	1,427
1990ean .....	1,371
1991n .....	1,326
1992an .....	1,286
1993an .....	1,275
1994an .....	1,250
1995ean .....	1,193
1996an .....	1,159
1997an .....	1,139
1998an .....	1,121
1999an .....	1,100
2000n .....	1,083
2001ean .....	1,071
2002an .....	1,057
2003an .....	1,034
2004an .....	1,020
2005ean .....	1,000

## **5.2. Beste aldaketa batzuk**

Lehen aipatu dugun bezala, Auzitegi Gorenaren 2004ko abenduaren 9ko epaiak Sozietateen gaineko Zergaren hainbat artikulua deuseztu ditu eta, ondorioz, Bizkaiko legegileak hutsunea bete behar izan du. Modu horretara, Zergaren beste horrenbeste arlo berri arautu izan ditu. Hala ere, aldaketa ez da benetakoa izan artikulua horien idazketa berria zaharraren berdina baita. Arau berriak daude hurrengo arloetan: amortizazioetan, eguneratzeko koefizienteetan, berrinbertsioagatiko salbuespenean, karga tasan, barruko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzeko modukoa ez den kasuetan (33. art.), aktibo berriengatiko kenkarian, ekoizteko inbertsioetarako erreserban, itsas garraioko enpresetan, etxebizitzak errentan ematen dituzten sozietateetan, lanbide heziketako gastuen ziozko kenkarian (44. art.), gastu kendueztuetan...

## **6.- BESTE TRIBUTU BATZUK**

### **6.1. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga**

Aurten bi salbuespen berri gehitu dira salbuespenen zerrenda luzera. Alde batetik, etxebizitzaren eskualdaketa salbueti da baldin eta etxebizitzak errentan ematen dituzten sozietateen mesedetan izan bada eta sozietate eskuratzailer horrek Sozietateen gaineko Zergaren eraentza berezia aplikatu badezake.

Bestetik, etxebizitza errentamenduaren eraketa salbueti da baldin eta etxebizitza Eusko Jaurlaritzako "Etxebizitza Hutsaren Programan" sartu bada edota errentatzailea bada etxebizitzak errentan ematen dituzten sozietateak, Sozietateen gaineko Zergaren eraentza berezian ezarri bezala.

### **6.2. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

Testamentu boterearen menpe dauden jaraunspenen kasuan, aurrerantzean ez zaizkio gozamendunari egotziko

jaraunspena banatu gabe dagoen artean sorturiko ondare irabaziak edo galerak, baldin eta eskualdaketa batetik ez badatoz. 2005etik aurrera, beraz, ondare irabazi edo galera gertatu bada ondasun edo eskubideak jaraunspenera gehitu direlako, esaterako, sari bat irabazteagatik, orduan gozamedunari egotziko zaizkio.

### **6.3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga**

Zerga honi dagokionez, katastro balioak %2an eguneratu dira, aurreko kasuetan aipatu ditugun arrazoiengatik.

Horrez gain, Bizkaian hirilurreko ondasun higiezinaren kasuan, karga tasa %3rainokoa izan daiteke, eta landa lurreko ondasunen kasuan, %1,5erainokoa. Hortaz, orain arteko muga modu nabarmenean igo da.

Amaitzeko, obra berriko ondasun higiezinaren kasuan edo ondasun higiezinak errehabilitatu behar direnean, hiru urtez, %50etik %90erainoko hobaria ezar daiteke, udalak egoki ikusten badu.

### **6.4. Ekonomi Jardueren gaineko Zerga**

Ingurumen-kudeaketarako sistemen ziurtagiria duten zergadunentzat %50erainoko hobaria ezar daiteke, kuotari begira.

### **6.5. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Aurten, zerga honen oinarria kalkulatzeko modua aldatu da. Bizkaian, zerga oinarria hiru baliotik edozein aukera dezake udalak: a) 1989ko balio-indizeen taulako balioa; b) katastro balioaren %40; edo c) Aldundiaren arabera, lurraren gutxienezko balioa (kasu horretan, karga tasa %10 izan daitekeela, gehienez).

## **6.6. Tasa eta prezio publikoak**

Tasa eta prezio publikoen kasuan, karga-tasa finkoa ezarri den kasuetan, horren zenbatekoa eguneratu da %2an, lehenago aipatu arrazoiengatik.

***Alberto Atxabal Rada***



# **TERRORISMO-DELITUAK ETA ESPETXEETAKO ESPARRUAN EGINDAKO AZKENEKO LEGE- ALDAKETAK (1996-2004): EREDU- ZIABOGA ETA NORABIDE- ZUZENKETAK. NORA GOAZ?**

## **SARRERA**

1. Ez da batere erraza 1996tik 2004ra egin diren lege-aldaketen gaineko balorazioari taxuz ekitea zuzenbide penaleko esparrura geure burua murriztuko bagenu ere. Izan ere bai zerbateko-tasunaren ikuspegitik, bai nolakotasunaren ikuspegitik aldaketa asko eta sakon-sakonak gertatu baitira. Gainera lehen hurbilketaren ondorioz egin ohi diren balorazio orotarikoak aski urgariak izan dira orain arte. Hemen eta orain egin nahi duguna, hortaz, zigor zuzenbideko esparruan gertatu diren aldaketa guztien azterketa ez, baizik eta espetxeetako esparruan egin direnena besterik ez da izango. Eta horren barruan –are zehatzago– terrorismo-delituei dagozkienetan jardungo dugu<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Izan diren aldaketen artean, batez ere 7/2003ko Lege Organikoa, zigorren betetze oso-osokoa eta benetakoari buruzkoa (*cumplimiento íntegro y efectivo de las penas*) aztergai nagusia izango da. Jakin badakigu bestelako legeak (hala

2. Lanaren izenburuak berak aditzera ematen duenez, espetxeetako esparruan eredu-aldaketa, erabateko *ziaboga* gertatu da. Indibidualizazio zientifikoaren sistema alboratu egin du legegileak eta hori delitu-mota guztietan eta astuntasun guztietakoetan hala izan bada ere, terrorismo-delituetan are nabarmenagoa dugu. Lehengo ereduaren ordean, labur-labur esanda, askatasuna nola edo hala ekartzen duten erakunde juridikoak jokoan kanpo utzi nahi ditu eredu berriak, behin espetxealdira kondenaturik barneratuak denbora eraentza itxian –eta ez eraentza irekian edo baldintzapeko askatasunean–pasa dezan. Espetxealdia betearazteko tratamenduaren gradurik leunenak (hirugarrena eta laugarrena alegia) indargabetzearekin batera, espetxealdiaren iraupena bera ere nabarmen luzatu da, gaur egun 40 urte arteko espetxealdia, *benetakoa eta oso-osorik* eraentza itxian betearazteko modukoa, posiblea delarik.

Eredu-aldaketa, *ziaboga*, legeetan ez ezik, errealitate juridikoan ere gauzatzen hasia da honez gero, Espetxeetako Erakundearen Zuzendaritza Orokorra (*Dirección General de Instituciones Penitenciarias –DGIP– izenekoak*) emandako hiru Instrukzioek<sup>2</sup> argi asko erakusten duten bezala. Aipatu instrukzioak

---

nola 1/2003 Lege Organikoa; 5/2003 Lege Organikoa; 6/2003 Lege Organikoa eta, zati batean, 15/2003 Lege Organikoa) kontuan ez hartzeak ikuspegia murrizten duela, terrorismo-delituetan eragina ere badutelako. Era berean 20/2003 Lege Organikoa kontuan edukitzekoa izan zitekeen, dagoeneko 2/2005 Lege Organikoaren bitartez indargabeturik izan ez balitz. Lege hauei buruzko azterketa orohartzailea kontsutatu nahi izanez, ikusi LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, “En torno a las últimas reformas penitenciarias. Con especial atención al tratamiento de conductas delictivas de terrorismo”, *Derechos, libertades y razón de Estado (1996-2005)*, Lete, Pamplona-Iruña, 2005 (prentsan).

<sup>2</sup> Instrucción 9/2003 de 25 de julio. Indicaciones para la adecuación del procedimiento de actuación de las Juntas de Tratamiento a las modificaciones normativas introducidas por la Ley Orgánica 7/2003, de 30 de junio, de medidas de reforma para el cumplimiento íntegro y efectivo de las penas. Instrucción 2/2004 de 16 de junio. Modificación sobre la I. 9/2003, para la adecuación del procedimiento de actuación de las Juntas de Tratamiento a las modificaciones normativas introducidas por la LO 7/2003, de 30 de junio, de medidas de reforma para el cumplimiento íntegro y efectivo de las penas. Instrucción 2/2005 de 15 de marzo. Modificación sobre las Indicaciones de la I. 2/2004, para la adecuación del procedimiento de actuación de las Juntas de Tratamiento a las modificaciones normativas introducidas por la Ley Orgánica 7/2003, de 30 de junio, de medidas de reforma para el cumplimiento íntegro y efectivo de las penas.

gainera oso denbora laburrean bata bestearen atzetik onartu dira eta zenbait arazo juridiko eta interpretazio-alderdi garrantzitsuetan iritzi-aldaketa erabatekoak gertatu ere. Izan ere, arrazoi politiko hutsak gorabehera<sup>3</sup>, jurisprudentziak legeak aplikatzeko zuzenketa nabarmenak sartu ditu hasiera batetik eta horrek ere eragin du instrukzio ildo batzuk aldatu beharra.

Lan honetan zehar ikusiko dugun bezala, instrukzioetan gertatutako aldaketak baita epaileek kontuan hartzera behartu duten interpretazio-aldaketak ere garrantzi handikoak izan arren, ez dute espetxeetako eredu-ziaboga auzitan jarri. Lege-aldaketak indarrean sartu direnez geroztik izandako eztabaida juridikoak berme-arazoekin zerikusia du: legeak aplikatzeko orduan zein kasu eraginda gertatu behar ziren, bai denboraren ikuspegitik (legeen atzera eragingarritasuna) bai ikuspegi materialetik (zein zigorrei aplikatu behar zaie segurtasun-epea izenekoa, esaterako), eztabaidagai nagusia izan da eta horren inguruan izandako bilakaera interpretatiboaren berri ematea merezi duela uste dugu. Baina hasieratik ere argi izan dezagun horrek ez duela eredu-ziaboga zuzendu ezta espetxeetako ereduaren gaineko azkeneko oinarriko aldaketa susmopean jarri ere.

3. Lan honen helburua, hortaz, bikoitza da. Batetik, espetxeetako esparruan gertatu diren aldaketa garrantzitsuenen berri eman nahi dugu eta horren ildotik aldaketok betearazteko orduan izan diren arazo interpretatiboak nabarmentzea eta azaltzea ere. Izan ere Espetxeetako Erakundeen Zuzendaritza Orokorrak emandako instrukzioak eta Tratamendu-Batzordeek aurrera eraman duten lana, Espetxeetako Zaintza-epaileek eta Entzutegiek zuzendu dute behin baino gehiagotan eta horrek eragin duen bilakaera interpretatiboa gaur egun zertan dagoen argitu beharra baitago. Baina, bestetik, lan honen beste helburua, terrorismo-delituen gainean eraikitzen ari den

---

<sup>3</sup> Jakina denez, 7/2003 Lege Organikoa, zigorren betearazpen oso-osokoa eta benetakoari buruzkoa, PP alderdi politikoa Espainiako Gobernuan zegoenean onartu zen eta Espetxeetako Erakundeen Zuzendaritza Orokorrak hura interpretatzeko eta betearazteko lehenengo instrukzioa eman zuen. Bigarren eta hirugarren instrukzioak, ordea, PSOE alderdia gobernuan sartu eta gerokoak dira.

betearazteko eredia kritikatzeko eta etorkizuenan nola eraiki beharko zen proposatzea izango da. Orain arte erabili dugun itsasoko irudiari heldurik, norabide aldaketak egon badira ere espetxeetako eredu-ziabogak hortan darrai. Baina *ziabogak* nora eramaten gaituen oraindik ez dago batere argi. Urteetan zehar ez da zalantza teorikorik izan, presoen gaineko tratamendua planteatzerakoan birgizarteratzea edo birtxertatzea helburu nagusia zenik. Galdera, orduan, bada: horrek oraindik ere balio al du hain zuzen ere terrorismo-delituentzat? Gaur egun, lege-aldaketak kontuan harturik, birgizarteratzea al da espetxe barruko tratamendua antolatzeke ardatza eta gakoa?

Galderok funtsezkoegiak dira ehuneko ehun erantzun ahal izateko. Lan honetan zehar galdera nagusiaren inguruan arituko gara kritikak eta iradokizunak egiten. Sortzen ari den espetxeetako eredu-berriak, gainera, lotura zuzenekoa du esparru juridikopenalean gertatzen ari den eredu-aldaketa estrukturalarekin. Ez da gutxi izango, gure aburuz, eztabaida politiko-kriminal nagusiak espetxeetako esparruan duen isla begi-bistakoa egitea. Horrek, zeharkako eran bada ere, terrorismo-delituen gaineko espetxeetako eredia nola ez den izan behar eta nola izan beharko zen argitzen joateko balio beharko luke.

## **1.- LEGE-ALDAKETAK ETA NORABIDE-ZUZENKETAK**

### **1.1. Espetxeetako aldaketak: segurtasun-epea, zigorren betearazte benetakoa, erantzukizun zibila eta elkarlana terrorismo-delituetan**

1. Espetxeetako esparruan izandako lege-aldaketak (7/2003ko LO-Lege Organikoak batez ere) badu helburu argia: askatasunera eramane dezaketen erakunde juridikoak ahalik eta gehien jokoan kanpo uztea. Horretarako bi ildo nagusi edo bi aldaketa-estrategi ezberdin jorratzen dira: lehenengoa, delitu guztietarako –ez soilik terrorismo kasuetan hortaz– ezartzen diren betekizunak are zorrotasun handiagoz eratzea eta, bigarrena, terrorismo-delituetan (baita antolatutako delitugintzaren kasuan ere) betekizun berriak sortzea. Lehenengo strategiaren barruan

hurrengo aldaketak kontuan hartu behar dira: segurtasun-epe berria, bost urte baino gehiagorako espetxealdi-zigorretan ezartzen dena eta hirugarren gradua –edo eraentza irekia– lortzea atzeratzen duena (36.2 artikulua berria, Zigor Kodekoa); zigorrak *benetan* betearazteko eraentza berria (78 artikulua berria, Zigor Kodekoa), zigor batzuk batera pilatzen direnerako bai eraentza irekia, bai askatasun baldintzatua, bai espetxeetako onurak, bai eta baimenak ere, lortzeko epe-neurketa berezia ezartzearen bitartez, aipatu erakundeak martxan jartzea nabarmen –edota betiko– atzeratzen duena; eta, azkenik, erantzukizun zibila ordainduta edukitzeko betekizun berria, eraentza irekia edota baldintzapeko askatasuna lortzeko ezinbestekoa dena (72.5 artikulua berria, Espetxeetako Lege Organiko Orokorrekoa).

Aipatu betekizunak delitu guztietan kontuan hartzekoak dira lege-aldaketaz geroztik baina, orain ikusiko dugun bezala, terrorismo-delituetan berezitasun batzuk topatzen ditugu betekizunon zorrotasuna areagotzen dutenak. Horien alboan espetxeetako lege-aldaketok beste betekizun berezia ekarri dute terrorismo-delituentzat bakarrik eragingarria dena: jarduera deliktiboak bertan behera uztearekin batera autoritateekin elkarlan aktiboan datzana hain zuzen ere.

Estrategia bateko zein besteko aldaketok zehatzago deskribatzea merezi du, horien gainean izan diren eztabaidak baita benetan duten esanahia ere ulertu eta balioztatu ahal izateko.

2. *Segurtasun epe berria (ZK 36.2 art.)*. Xedapen berri honen arabera, bost urte baino gehiagorako espetxealdi zigorrera kondenatua izan denak ez du tratamenduaren hirugarren gradua eskuratzerik izango zigorraren erdia pasatu artean. Arau orokorra orduan hurrengo hauxe bada: delitu astunetan zigorraren erdia eraentza itxian betearaziko da delitua edozelan izanik ere.

Arau orokorraren ondoan salbuespenezko sahiesbide bat ematen du legegileak segurtasun-epea alboratzeko aukera ahalbidetzen duena. Alegia: Zaintza-epaileak, erregimen orokorra ezarri *ahalko* du, zioak emanaz, Ministerio Fiskalari, Espetxeetako

Erakundeei baita gainerako alderdiei ere entzun ondoren. Segurtasun-epaia alde batera uzteko erabakia hartu ahal izateko, ordea, birsartzearen aldeko iragarpen bakoiztua, alde zuzentzeko, egon behar da eta, hala denean, erruztatuaren inguruabar pertsonalak ere baloratu beharko dira.

Nabarmentzekoa da, beste behin ere, segurtasun-epaia lege-aginduz automatikoki ezartzekoa dela (arau orokorra) eta bakar-bakarrik, salbuespenez, zaintza-epaileak erabakiari atzerabuelta eman liezaiokeela, horretarako Espetxeetako Tratamendubatzerdeak eman behar duen birsartzeko iragarpena ezinbesteko betekizun nagusia dugula.

Segurtasun-epaia berriaren betekizunak delitu guztietan ikaragarritzeko eragina izango du, baina terrorismo-delituetan –baita antolatutako delitugintzaren kasuetan ere– areago, legez kasutan 36.2 artikulua berak epea bertan behera uzterik ez dagoela aldarrikatzen duelako. Terrorismo-delituetan segurtasun-epaia automatikoki ezarriko da, besteetan bezala, baina ez Zaintza-epaileak, ez inork, ezin dute eraentza orokorra inolaz ere ezarri, legearen borondatea kasu hauetan inongo salbuespenik ez egitea delako. Segurtasun-epaia, hortaz, ezarri eta bete egingo da *ex legem* eta, demagun, birsartzearen aldeko iragarpen bakoiztua balego ere.

3. Segurtasun-epaia kasuaren antzera, legegileak delitu guztietarako betekizun arruntan nabardura berezi bat gaineratu du *delitu astun xamarrek pilatzen diren erregimen juridikoan*. Kasu honetan ez dira eragiten bost urte baino gehiagorako espetxealdizigorra duten delitu astunak, baizik eta delitu batzuen kondenak batera gertatzean muga objektibo jakin batzuk gainditzen dituzten delitu-pilaketak. ZK (Zigor Kodea) 78 artikulua izan bazen, 1995eko Zigor Kodea onartu zenez geroztik: berrikuntza, hortaz, xedapen hura askoz gehiago gogortzean datza.

Abiapuntu berbera da lehen eta orain: 78 artikulua bakarrik jar daiteke martxan baldin eta benetan ezarri beharko diren espetxealdiaren urte-kopurua eta epaia ezarri zena nabarmen ezberdinak badira: alegia, bete behar dena –epaia

ezarri zen kondena nominalarekin alderaturik- erdia baino gutxiago denean. Esandakoa ulertzeko gogoratu beharra dago, delitu-pilaketa errealean zigorrren metaketa aritmetiko hutsak ez, baizik eta metaketa juridikoak agintzen duela: alegia, zigor batzuk ezarriz gero (esaterako 20, 10 eta 5 urteko espetxealdiak) ez da besterik gabe gehitzen (35), azkeneko zigorra kalkulatzeko. Muga objektibo eta gaindiezin batzuk kontuan eduki behar dira: hala nola, 20 urte baino gehiago (edo, salbuespenez, 25, 30 edo 40) ez dela beteko edota zigorrik astunenaren hiru halakoa baino gehiago ez dela betearaziko. Epaian zigorrak, guztiak, ezartzen dira, baina gero aipatu metaketa juridikoaren mugak martxan jar daitezke eta benetako kondena murriztu. 78 artikulua abiapuntua epaian ezarritako espetxe-urte kopuru nominalaren eta metaketa juridikoaren ondorioz ateratzen denaren arteko alde nabarmenean dago.

Aipatu abiapuntua gertatuz gero, alegia azkenik ezarritako kondena epaietan ezarritakoaren erdia baino gutxiago balitz, 78 artikulua xedapena hurrengoan datza: bai hirugarren gradua, bai askatasun baldintzatua, bai irteteko baimenak, bai eta espetxeetako onurak ere, emateko orduan, neurketa-erreferentzia ez dela izango, betearazi behar diren urte-kopuruarena, epaietan ezarri zirenean baizik. Beraz epaietan ezarritako urte-kopuru nominala oso altua izanez gero, 78 artikulua ondorioz aipatu erakunde juridikoak praktikan behin betiko blokeaturik gertatuko lirarteke, barneratuak askatasun-erregimenik edo irteteko baimenik espetxealdi osoan zehar lortzerik izango ez duelako.

Abiapuntu berbera bada ere, aldaketak nabarmenak dira terrorismo-delituei (eta antolatutako delitugintzari) dagokienez<sup>4</sup> eta

---

<sup>4</sup> Terrorismo-delituei 78 artikuluko bi erregimen ezberdin aplikatu ahal zaizkie: bata, bi terrorismo-delitu edo gehiago egin direnean eta horietako batek, behintzat, 20 urte baino gehiagoko espetxealdi-zigorra aurrakusten baldin badu. Izan ere, kasu horretan delitu-pilaketa egiteko muga objektiboa 40 urtekoa izango da-eta eta horren ondorioz ex legem aplikatu baharko da zigorrak betearazteko sistema berezia. Bestea, ordea, martxan jarriko zen ZK 76 artikuluko muga objektibo salbuespenezkoak (76 a, b, c, edota d) ezartzerik ez dagoenean. Guk aurrerantzean lehenengo kasuari aipamena egingo diogu.

horiek areago gogortzen dute berez salbuespenezkoa den sistema hau. Lehenik eta behin, *benetako betearazpen sistema berezia* legez automatikoki martxan jartzen da (arau orokorra), epaile edo auzitegien erabakimenetik at alegia.

Bigarrenik, erregimen bereziak *ex legem* ezarrita, ez du ia atzera-bueltarik: beste delituen kasuetan zaintza-epaileak 78 artikulua sistemaren zorroztza alboratzeko erabakia har dezakeen arren –salbuespenez bada ere–, terrorismo kasuetan ez da salbuespena egiteko ia modurik. Eta “ia” diogu, zeren eta hirugarren graduaren kasuan edota askatasun baldintzatuaren kasuan betearazpen sistema zorroztza alboratzekoa izan baititeke kondena agortzeko bostena edo zortzirena falta denean. Teoriaz beraz 32 edo 35 urte bete ondoren (40 urtekoa orain da-eta, betetzeko kopuru gorena), zaintza-epaileak kontsidera lezake ea hirugarren gradua edo askatasun baldintzatu salbuespenez ematekoak diren, horretarako gizartean birsartzearen aldeko iragarpen bakoiztua egon beharko delarik.

Zailtasunik gabe uler litekeenez, sistema berezia alboratzeko aukera sinbolikoa eta lortezina besterik ez da.

Hirugarrenik, neurketa-sistema zorroztzagoaren ondorioak orain askoz zabalagoak dira terrorismo zein bestelako delituentzat, izan ere ZK 78 artikulua zaharrak askatasun baldintzatu eta espetxeetako onurak eragiten bazituen ere, orain, horietaz gain, hirugarren gradua eta irteteko baimenak ere indargabeturik gerta daitezke-eta. 78 artikulua, hortaz, tratamendua betetzeko askatasun-erregimenak ixtearekin batera, komunikazio arruntetarako batzuk –irteteko baimenak– ezinezko bihurtzen ditu.

Bost urte baino luzeagoak diren terrorismo-delituen kasuetan segurtasun-epe automatikoa eta bihurtzina zegoen bezala (ZK 36.2 art.), ZK 78 artikulua are astunagoak diren delitu-pilaketetan oraindik are zorroztzagoa den beste segurtasun-epe antzerakoa ezarri du, erdia ez baizik eta ia espetxealdi osoa eraentza itxian betetzera eramango duena.



4. Orain arte aipatu bi aldaketak delitu astun edo oso-astunetara murrizten ziren. Espetxeetako Lege Organiko Orokorreko 72.5 artikulua aurrikusten duenak, ordea, delitu guzti-guztietara zabaltzen du bere eragina. Gainera ez du terrorismo-delituen kasuetan *ad hoc* lege-arauketarik sortzen. Hirugarren gradua –eta baldintzapeko askatasuna– lortzeko betekizun berria eta *unibertsala* (delitu guztietarakoa) dugu baina baita ere terrorismo-delituen kasuetan eskatzekoa.

Betekizun berriak *erantzukizun zibila ordainduta egon behar* duela eskatzen du, tratamenduaren gradu-sailkapenean aurrera egin nahi izanez gero, izan ere ez baita, bestela, gizartean birsartzearen aldeko iragarpen bakoiztua emango.

Betekizuna ildo politiko-kriminal berri baten ondorioa da: alegia, biktima eta biktimaren beharrezana kontuan hartzean datzanarena. Eta hori, gehiago zehaztu barik, ez dago txarto: kontrakoa baizik, doktrina zientifikoak berak nabarmendu duen bezala. Gure kasuan onartzekoa ez eta bai kritikatzekoa dena, da, ordea, ildo politiko-kriminal horri eman zaion lege-arauketa zehatzak ahultasun tekniko ugari dituela. Gero itzuliko gara betekizun honen interpretazio arazotara.

5. Orain arte aipatu betekizun berriak edo lege-aldaketak terrorismo-delituetan bere eragina zabaltzen bazuten ere, delitu guztietara ere aplikatzekoak ziren, gehienetan ordea zorrotasun txikiagoz. Baina bada oraindik aipatu gabe utzi dugun azkeneko aldaketa terrorismo-delituei –baita antolatutako delitugintzari ere– besterik ez zaiena ezarriko: *autoritateekin elkarlan aktibo* egin beharrean datzana hain zuzen ere (*Espetxeetako Lege Organiko Orokorreko 72.6 art.*)<sup>5</sup>. Betekizun hau, hortaz, esparru deliktibo hauentzako lege-arauketa guztiz *ad hoc* dugu, baina, horren barruan terrorismo-delitu guztiak –alegia astuntasuna edozelangoa izanik ere– eraginda gertatzen dira.

---

<sup>5</sup> Baldintzapeko askatasunari buruzko arauketan, Zigor Kodeko 90 artikuluan hain zuzen, errepikatzen dena.

Betekizun berezi honek, lehenik eta behin, delitugileei helburu eta bide terrorista bertan behera uzteko eskatzen die hirugarren gradua edota baldintzapeko askatasuna lortu nahi izanez gero. Baina, bigarrenik, horrezaz gain, agintariekin elkarlanean modu aktiboan jarduteko ere galdatzen du legeak. Alegia: agintariekin elkarlanean modu aktiboan aritu behar da, talde terroristaren beste delituak sahiesteko; edo bere delituaren ondoreak arintzeko; edo beste terrorismo-delituen erantzule identifikatu, harrapatu edo prozesatzeko, edo frogak eskuratzeko; edo taldeen jarduera edo jarraipena sahiesteko.

Ikusten den bezala, autoritateekin egin beharreko elkarlana modu zehatzegian deskribatzen da, hainbat eta hainbat irizpide pilatzearen bitartez, logika juridiko –eta ez juridiko– ezberdinetako edukietan oinarriturik: hala nola, bide terroristak eta helburuak nahastuz edo jarduera deliktiboa bertan behera uztea eta taldekidearen salaketa maila berberean jarriz.

Baina orain artekoa gutxi balitz, Espetxeetako Lege Organiko Orokorreko 72.6 artikulua xedatutakoa frogatzeko bide berezia ere proposatzen du: hau da, nola eta noiz joko da betetatzat elkarlaneko betekizuna? Legearen arabera, egiaztatze moduak hauek izan daitezke: jarduera deliktiboei uko egiten zaiela eta indarkeria bertan behera uzten dela beren beregi aldarrikatzea; biktimei barkamena beren beregi eskatzea; eta –txosten teknikoek– esatea, erakunde terroristarekin eta “inguruko” (“entorno”) beste elkarte eta talde ez-legezkoen jardurekin lotura hautsi dela.

Elkarlaneko betekizuna deskribatu dugun bezalako edukiz betetzeak gizartean birsartzeko printzipioa bera kolokan jartzen du. Baina betekizuna baieztatze legeak ematen duen bideen atzean *diagnostiko ideologikoaren* itzala nagusitzen da, elkarlanaz haratago terroristek erakusten omen duten –arriskugarritasun ideologiko– benetako helburu bihurtzen delarik.

6. Aurkeztutako lege-aldaketek espetxealdia betearazteko eredia eta oinarrian eduki beharko lituzkeen konstituzio-printzipioak auzitan jartzen ditu. Legea ezartzerako orduan, ordea,

bestelakoak izan dira foroan egondako eztabaidagaiak. Eta horiek dira, hurrengo atalean, aurkeztu nahi ditugunak, bukaeran printzipio eta ereduaren gai nagusira berriro ere itzultzekoak izango bagara ere.

## **1.2. Lege-aldaketak ezartzea: “norabide-zuzenketak”**

1. Espetxeetako Erakundeen Zuzendaritza Orokorrek izan duen lege-aldaketen interpretazio-bilakaerak, batetik, eta, bestetik, Jurisprudentziak (Zaintza-epaileen erabakiak kontrolatzeko Probintzia Auzitegienak alegia), berme-arazo batzuk izan dituzte legeon ezarpenaren eztabaida juridikoaren erdi-erdigunean. Legeak aplikatu nahi ziren moduek askatasunen edozein Estaturen printzipio nagusiak urratzen zituztenez gero, Epaileek zuzenketak sartu eta behartu dituzte eta gainera arrakastaz Espetxeetako Administrazio berak honez gero aipatu norabide berriak onartu dituen neurrian. Ikus ditzagun, hiru puntu nagusi, besterik ez.

2. Agian hasiera batetik eztabaida gehien sortu zuen puntuetako bat xedapen batzuen atzera eragingarritasunari dagokiona dugu. Izan ere 7/2003ko LOaren aldi baterako xedapen bakarrak zera ezartzen baitzuen: hirugarren gradu eta baldintzapeko lege-aldaketa berriek (erantzukizun zibileko eta elkarlaneko betekizunak: Espetxeetako Lege Organika Orokorreko 72.5 eta 6 artikulua alegia) atzera eragina izango zutela. Beraz xedapen batzuen atzera eragina aldarrikatzen zen baina ez, ordea, egin ziren aldaketa guztiena eta hori bi zentzutan: batean, segurtasun-epa (ZK 36.2 art.) eta zigor-pilaketak betearazteko erregimen berezia (ZK 78 art.) atzera eragingarritasunetik kanpo gertatzen zirelako; eta bestean, atzera eragina aitortzen zen kasuetan ez zelako erabatekoa. 7/2003ko LOa indarrean sartu eta hurrengo egunetik aurrerako sailkapenei besterik ez zitzaizkien hirugarren eta laugarren graduetako betekizun berriak ezarriko, une horretara arte egindako sailkapenak berrikusi barik alegia.

Zatikako atzera eragingarritasun honen aitortpenak badu bere oinarria Konstituzio Auzitegiaren doktrinan, hain zuzen Espainiako

Konstituzioaren (EK) 9.3 artikulua gainekoan<sup>6</sup>. Aipatu artikulua, besteen artean, xedapen zehatzaile eta eskubide-murriztaileen atzera eragina debekatzen du. Konstituzio Auzitegiaren esanetan atzera eragiteko debekua erabatekoa da *-benetako atzera eragitea-* dagoeneko gertatu diren egoerataraz xedapen zehatzaileak aplikatu nahi direnean. Egoera juridikoa, gure kasuan esaterako hirugarren gradua aplikatu izana, gertatu denean, xedapen zehatzaile berriak ezingo luke atzera eraginik izan. Gure kasuan, hortaz, sailkapena gertatu bada ezin da berrikusi xedapen murriztaile berriaren argitan. Baina honen alloan Konstituzio Auzitegiak 9.3 artikuluko atzera eragiteari buruzko beste interpretazio malguago bat aldarrikatzen du, xedapenak bere eragina oraindik gertatu *-burutu-* ez diren egoerataraz ezarri behar direnean. *Gradu ertaineko* atzera eragite hark ez omen luke joko Konstituzioaren 9.3 artikulua aurka. Gure kasuan, esandakoaren ondorioz, egiteke zeuden *-eta dauden-* sailkapenetara betekizun murriztaile berriak aplika litezke, nahiz eta espetxealdia ezarri ziren egitateak *-edota horien kondena-* legea indarrean sartu aurretikoak izan.

Honetaraino 7/2003ko LOak esaten zuena baina, horren gainera, Espetxeetako Erakunde Zuzendaritza Orokorrek bere lehenengo *Indikazioetan* (9/2003ko Instrukzioan) agindu zuen bezala, xedapen berrien atzera eragina ez zen murriztu behar erantzunkizun zibila ordaindu edota autoritateekin elkarlanean aritu behar izatera. Segurtasun-epeak ere atzera eragina eduki behar zuen eta hala aplikatzen hasi zen.

Legearen gainera interpretazio honi laster egin zion aurre jurisprudentziak<sup>7</sup> baina hortan interesgarrien eta pozgarrien suertatu zena erabilitako argudiobidea izan zen. Izan ere, segurtasun-epea aldi baterako xedapenak ez aipatzea gorabehera, epaile eta auzitegiek xedapen honen izaera substantiboa azpimarratu baitute. Segurtasun-

---

<sup>6</sup> Ikusi, besteen artean, Konstituzio Auzitegiaren hurrengo epaiak: 126/1987, 197/1992, 173/1996, 182/1997 eta 273/2000.

<sup>7</sup> Ikusi, guztien gainera, Madrilgo Probintzia Auzitegiaren Autoa, 2004ko maiatzaren 6koa, 3. Oinarri Juridiko eta hurrengoak (Ar. 665/2004).

epearen gaineko lege-arauketak ez du izaera prozesala eta ez dagokio ñabardurarik gabe betearazteko eraentza juridikoari. Bere izaera juridikoa substantiboa dugu eta, horren ondorioz, zuzenbide penal substantiboaren berme-erregimena dagokio, Konstituzioaren ikuspegitik 25 artikuluko legezketasun printzipioaren doktrina sendo eta zorrotzarekin lotu behar dena.

9.3 artikuluko atzera eragiteko debeku *ahulagoa*, ikusten ari garen erakunde juridikoekiko arrotza izan behar da, askatasuna murrizten den zigorretan bestelako bermeen interpretazio salbuespenik gabekoa nagusitu beharko zelarik. Aipatu ildo jurisprudentzialak argudiobide material honi heltzen diola ematen du eta horregatik ez du onartu segurtasun-epearen kasuan inongo atzera eragina zilegia denik. Zuzenketa honi esker, eta ziurrenik Gobernu-aldaketak lagundurik, Espetxeetako Erakundeen Zuzendaritza Orokorrek bere interpretazioa aldatu zuen eta gaur egun indarrean dagoen azkeneko 2/2005 Instrukzioan atzera eraginaren aldeko aipamen oro desagertu dira.

Bermeen aldeko azkeneko zuzenketa hau txalotzekoa da, zalantzarik gabe, baita Espetxeetako Administrazioak hori argi eta garbi onartu izana ere. Baina hori guztia segurtasun-epera murrizten da eta, orain arte behintzat, ez da eztabaidatu zein puntutaraino atzera eragina ere ez den onartzekoa, legeak baimentzen dituen gainerako betekizunetan (erantzukizun zibil eta elkarlanekoetan alegia). Gure ustez segurtasun-epearen kasuan dauden argudio materialak bestelakoetara ere eramatekoak direnez, konstituzio-aurkakotasun arazaoa aurkeztea onena izango litzateke, 7/2003ko aldi baterako xedapen bakarra lege-antolamendutik behin betiko botatzeko.

3. Aipatu zuzenketaz gaiz, bada bestelako zuzenketa oraingo honetan lege-ezarpenaren denbora-arloari, ez baizik eta ezarpenaren arlo materialari heltzen diona. Berrito ere funtsezko berme juridikoak nola ulertu behar direnekin zerikusia duen zuzenketa dugu.

Segurtasun-epaia, arestian genioen bezala, bost urte baino gehiagorako zigorra ezarri den kasuetan soilik aplikatu liteke.

Interpretazioaren arazo-iturri bost urte horien neurketa bihurtu zen. Bost urteak zigor bakar batenak izan behar al dira derrigorrez edota balioko luke, segurtasun-epea martxan jartzeari dagokionez, zigor ez hain astunak gehitzearen bitartez (hala nola, bi zigor, 4 eta bi urteko espetxealdiena) bost urte baino gehiago aterako balitz?

Arazoak begi-bistako garrantzi praktikoa zuen. Espetxeetako Erakunde Zuzendaritza Orokorrak bere lehenengo *Indikazioetan* (9/2003 Instrukzioan) erruztatuaren aurkako interpretazioa berea egin zuen, segurtasun-epea bai zigorren gehiketa aritmetikoaren ondorioz (ZK 76 art.) bai *birbatzearen* ondorioz (*refundición* izenekoa, Espetxeetako Araudiaren 193.2 art.).

Interpretazio honen zuzenketa, beste behin batean, jurisprudentziak ekarri du<sup>8</sup> bi argudiotan oinarria harturik: erruztatuaren aurkako interpretazio zabala onartzerik ez dagoen argudioan batetik eta argudio sistematikoetan bestetik. Alegia: legeak baimentzen ez duen kasuetara segurtasun-epea analogiaz eramaterik ez dago, legezkotasun-printzipioarekin loturik doan berme ukaezina delako. Eta, gainera, epaileek nabarmentzen dute, Zigor Kodeak beste erakunde juridikotan ezberdindu ohi duela “ezarritako zigor” eta “ezarritako zigorren gehiketa”ren artean (hala nola, zigor askatasun-gabetzailearen betearazpena etetea). Hortaz, segurtasun-epearen kasuan aipatu ezberdinketa egin ezean, ulertu beharra dago legegileak ez duela arauketa berria zigorren gehiketara eraman nahi izan. Azkenik, kondenak birbatzeari dagokionez, hemen kondenak –ez zigorrak– dira gehitzen direnak, baldintzapeko askatasunaren epe-neurketa egiteko Espetxeetako Araudiaren 193.2 artikuluari jarraiki. Xedapen honen *arima* ez dago, analogiaz, baldintzapeko askatasuna ez den segurtasun-epearen kasura eramaterik, berriro ere debekatutako analogia *in malam partem* izango zelako.

Jurisprudentziaren jarrera eta argudiobide sendo eta argiei ezin eutsiz Espetxeetako Erakunde Zuzendaritza Orokorrak bere

---

<sup>8</sup> Ikusi, batez ere, Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren Autoa, 2004ko ekainaren 30ekoa, 2. Oinarri Juridikoa (Ar. 219866/2004).

interpretazioa aldatu egin du indarrean dagoen azkeneko 2/2005 *Instrukzioan*.

4. Bermeen errespetuaren inguruko azkeneko zuzenketa bat aipatu nahi dugu. Erantzukizun zibila ordainduta egon behar den betekizun berriak okerreko tankera aurkeztu du hasiera batetik. Izan ere, hitzez hitz, diru-erantzukizunak ordainduta egon beharra, *objektiboki*, galdatzen baitu lege-testuak. Espetxeetako LO Orokorren 72.5 artikulua luzeak, ordea, interpretazio objektibo hutsa egiteko lehenengo oinarria eman ondoren, bestelako irizpideak aipatzen ditu hura neurtzeko, barneratuaren ordaintzeko borondate eta jarrera *subjektiboa* modu argian kontuan hartzen dituztenak.

Espetxeetako Erakunde Zuzendaritza Orokorra ez zion oro har interpretazio objektiboari heldu, ekonomiarekin zerikusi zuzenekoa duten delituetan izan ezik<sup>9</sup>. Eta azken hau berriro ere ez dago onartzerik, erruduntasun printzipioaren eta berdintasun printzipioaren aurkakoa izan daitekeelako. Interpretazio objektibo hutsa dirudunen aldeko eta txiroen aurkako lege-arauketa bilakatu ahal da eta, horregatik, jurisprudentziak bultzaturik<sup>10</sup>, Espetxeetako Administrazioak (2/2005 *Instrukzioan*) interpretazio objektibo-subjektiboa delitu guzti-guztietara eraman izana pozgarria da.

---

<sup>9</sup> Gogoratu beharra dago, 72.5 artikuluan bi eraientza juridiko ezberdin ezartzen direla: bata, orokorra, delitu guztietarakoa; eta bestea, berezia, gizarte-ekonomiazko ordenaren aurkako delitu eta antzekoentzarakoa. Bigarren delitumultzotan, legegilearen benetako *leit motiv* izandakoetan alegia (gogora dezagun *Roldan* kasua), interpretazio zorrotzera bultzatu zen.

<sup>10</sup> Ikusi, guztien artean, soil-soilik, hurrengo Autoak: Bartzelonako Probintzia Auzitegiarena, 2004ko ekainaren 30ekoa, 1. Oinarri Juridikoa (Ar. 219867/2004); 2005eko otsailaren 4koa, 1. Oinarri Juridikoa (Ar. 83457/2005); 2005eko otsailaren 25ekoa, 1. Oinarri Juridikoa (Ar. 272/2005).

## 2.- ESPETXEALDIA BETEARAZTEKO EREDUA ETA TERRORISMO-DELITUAK: AZKENEKO HAUS-NARKETA

1. Lege-aldaketen edukia alde batera utzirik, xedapen eta betekizun berriak ezartzeko orduan oinarrizko bermeen gaintik pasatzeko asmoa begi bistakoa zen eta, horregatik, ezin zen jurisprudentziaren aldetik gehiegikeria zabarrenak zuzentzeari ekitea besterik espero. Arestian jarritako adibideak zuzenketa horietako batzuk, ziurrenik esanguratsuenak eta eztabaidatuenak, dira, printzipio nagusien urraketak indargabetu eta askatasunen Estatu baten egoera normalera itzultzeko bidea ematen dutenak. Izan diren zuzenketak ongi etorriak izan daitezzen baina ez dira izan, behar ziren guztiak, ezta izan behar ziren neurritz edota zabaltasunez.

Dena dela norabide-zuzenketek ez gaitzabela nahastu: lege-aldaketek dakarten ereduak, terrorismo-delituetan espetxealdia betearaztekoak alegia, bere hortan darrai eta aipatu berme-eztabaidek ez dute ereduia ezta urrundik ere auzitan jarri. Horregatik lan honen izenburuan norabide-zuzenketei buruz hitz egiten genuen eredu-*ziabogaren* ondoan, lehenengoek azkenekoa funtsean aldatu ez dute-eta. Beste era batera esanda: berme-eztabaiden adarrek ezin dute izkutatu eredu berria ezarri duen zuhaitza eta adar ustel batzuk moztu badira ere, zuhaitz berria –eredu berria– hor dugu, iraganean jaun eta jabe zen gizartean birsartzeko printzipioa behin betiko alboratzen duena.

2. Terrorismo-delituetan espetxealdia betearazteko eredu berria ez da *zerutik* erortzen, zigor zuzenbidearen eta, areago, gizarte kontrolaren kultur-sistema formal zein ez-formal osoaren funtsezko *iraultza* baten barruan kokatu behar da-eta. Eta *iraultzaz* ari gara, izan ere azkeneko bi mendeetan izan diren zuzenbide penaleko printzipio nagusi asko lehenengo aldiz *zeharo* eta oso azkar aldatzen –eta alboratzen– ari baitira. Oraindik esatekoa balioztatu gabe, hona hemen *GARLAND* soziologoaren azterketa deskribatzaileari helduta<sup>11</sup>, aldaketa-gako batzuk,

---

<sup>11</sup> GARLAND, David, *La cultura del control* (Máximo Sozzo Itzultzailea), Gedisa,artzelona, 2005.



kontrolaren pentsamolde goitik beherako bilakaera estrukturalaren berri eman diezaguketenak.

GARLANDen esanetan, aldaketa ikustekoa da lehenik eta behin birgisarteratzeko paradigma baztertu delako, tratamenduaren ideologiaren ordez –edota horren gainetik– helburu ordaintzaileak, inokuizazioa eta arriskuaren kudeaketa hutsa nagusitu direlarik. Jendeak orain eskatzen duena babesa da, delitugilea gizartean birsartzeko ahaleginari uko egin behar bazaio ere. Horren argitan ulertzekoa da justiziaren alderdi sinboliko eta komunikatiboa inoiz baino gehiago present egotea, delituak jendearengan pizten duen haserrea beren beregi eta konplexurik gabe adierazten delarik. Herriaren justizi egarria bideratzeko tresna nagusietako bat politika kriminala dugu, dagoeneko adituak eta teknikoak politika hura egiteko orduan kanporatuak izan direlarik. Zuzenbide penal berria *herriak* berak biktimaren izenean egiten du, biktimaren interesa eta herri-interesa nahasturik, haserre-sentimenduak eta mendekugriñak bultzaturik. Delitugilearen nagusitasunaren ordez, biktimak du orain lehentasuna, –*gehiketa zero*– ematen duen joko baten arauen arabera: alegia, biktimaren alde egiten dena, delitugilearen aurkakotzat jotzen da eta alderantziz.

Delitua eta delitugilea ikusteko modu berriak baditu, nola ez, bere ondorioak espetxealdia betearazteko fasean ere. Lehenik eta behin aldaketa antropologikoa gauzatu da, delitugilea birgaitzeko aukeratan gehiago fio ez delako. Delitugilea ez da familia-, gizarte-arazo edota arazo patologikoen ondorioz delitua egiten duen pertsona, baizik eta guztion kaltetan jarduera deliktiboa aukeratu duen gizabanako arrunta, berekoia, onura jakin bat atera nahian. Delitugileak gu guztioi aldea modu ez zilegian atera nahi digu. Delitugile arrisku-iturri bilakatzen da, gu mehatzatzen gaituena, eta ñabardurarik gabe (*zero tolerantzia*) kontrolpean jarri beharra dago: kosta ala kosta.

Aldi berean berme-kultura modernoaren oinarrian zegoen Estatuarekiko –*Leviathan*– mesfidantza desagertu egiten da eta ez da lehenik eta behin irudikatzen herri-botereen gehiegikerien arriskua. Aitzitik, Estatuari galdatzen zaio gure beldurrak uxatu eta

segurtasuna bermatu behar dituela, lehengo bermeen eta mugen gaintetik pasatu behar bada ere. Lehengo bermeak, orain astun eta malgutasunik gabekotzat jota, dagoeneko ez dira ulertzen. Estatuta ez da mugatu beharrekoa, botere gero eta handiago behar duen erakundea baizik, izugarri bilakatu zaizkigun beldur berriei aurre egin ahal izateko. Delitugile izugarrien irudiak (*delitugile basati, bihotz gabekoa, piztia...*) gure gizartearen imaginarioan nonnahi ditugu, baita adingabeen delituetan ere (*gazte oldarkorrak...*); beraz ez gaitezen harritu, hori guztia erabili bada, modu *naturalean*, irtenbide errepresiboak indartzeko. Hemendik ulertzen da, beldur berri eta handiagoen aurrean, espetxea gogortu, luzatu eta zabaldu behar omen dela. Espetxearen mundu iluna, orain arte guztion begietatik izkutatua, *ultima ratio* izatetik *prima ratio* izatera pasatu da, gizartearen lasaitasuna eta arriskuen kudeaketa zurratzen bermatzeko. Gartzelaren helburu nagusia ez da delitugilea gizartearentzat berreskuratzea, baizik eta hura zigortzea, kontrolatzea, disziplinatzea eta, hala denean, hura inokuizatzea.

3. Lan honetan zehar aztergai izan diren lege-aldaketen edukia aipatu testuinguru orokorrean inongo arazorik gabe txertatzen dira. Lege-aldaketa berriek ez dute, edukiz, delitugile berriro ere sartzeko helburu. Bestelako logika zigortzailearen esanetara daude. Eta hori hobeto ikustarazteko azpimarra ditzagun lege-aldaketen bi ezaugarri nagusi: bata, espetxealdia betetzeko modua –graduetan aurrera egitea, sailkapena...– denbora pasatzearen menpe argi eta garbi egotea; eta bestea, *arriskutsutasun ideologiko* berri baten protagonismoa.

Teoriaz Espetxeetako LO Orokorren eredu individualizazio zientifikoaren sistema dugu, preso bakoitzaren azterketa egin ondoren (gizartean birsartzeko) tratamendurik egokiena sustatzen duena. Denborak ez luke zertan halabeharrez eragin beharrik tratamenduaren gradu batean edo bestean sailkatzea, kondenatuaren inguruko diagnostiko eta iragarpena baizik. Aztertu ditugun aldaketek, ordea, badute helburu argia: gradu onuragarrien atea ixtea. Hori inon baino argiago islatu da terrorismo-delituetan. Gogora dezagun, esaterako, segurtasun-epea, terrorismo-delituetan,

atzera bueltarik ez duela; edo baldintzapeko askatasuna modu ez ohikoan aurreratzeko aukerak terrorismo-delituetan *ex legem* erabiltzerik ez dagoela; edo delitu-pilaketen kasurik gogorrenetan 40 urte benetan –eraentza itxian– betetzeko erregimen berezia ezarri dela. Kasu hauetan, guztietan, denborak –ez presoaren gaineko azterketa bakoiztua ezta horren iragarpen kriminalak– ezartzen du espetxealdia betetzeko modua.

Baina horren ondoan, eta funtzio osagarria betez, bestelako betekizunak era berean terrorismo-delitugilea espetxe barruan edukitzera bideratzen dira, beste behin batean birgizarteratze logika eta ereduaren aurka joz. Adibiderik argiena, presoari jarduera deliktiboa bertan behera uzteko eta autoritateekin elkarlan aktiboan jarduteko eskatzen duen betekizun berria dugu. Taldekidea salatu beharrak eta talde terroristaren *inguruan* dauden talde orotatik desbinkulatu beharrak ez du zerikusirik presoaren gainean egin behar den gizartean birsartzeko iragarpenarekin. Betekizunaren oinarria ez da delitugileak egin dituen delituen gaineko jarrera, baizik eta jarrera ideologiko hutsa eta etorkizunean eraman nahi duen bizimodua, inguru sozial jakin batzuekiko jarrera eta iritzia zuzenean kriminalizatuz, hori guztia egitea balitz bezala. Betekizun berri honen atzeko abiapuntua ideologia jakin baten arriskutsutasun aurreiritzia da, neurri handi batean Alderdien Legean (6/2002 LOan) zegoen *diagnostikoa* esparru honetara ekarriz. Badirudi talde terroristaren muina eta horren inguruan dagoen azpiegitura kriminala, inguruan dagoen ideologia, talde politiko eta gizarte esparru osoekin –zentzu zabalean– identifikatzen dela. Logika horri helduta, presoak horrekin guztiarekin lokarria apurtu behar du, beren beregi gainera, horri loturik egotea *per se* krimengilea bailitzan.

Baina ideologiak, aspalditik dakigu, besterik gabe ez du delitu egiten. Ideologia-*iragazki* bat ezarri nahi izan da, hortaz, gure aburuz, hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna legez baztertuta ez dauden kasuetan ere *de facto* indargabetzeko. Izan ere elkarlaneko betekizuna delitu guztietan –eta ez soilik astunenetan– ezarri behar denez, horrek bermatzen baitu terrorismo kasu guztietan askatasuneko erregimenak indargabeturik gertatuko direla.

Arestian aipatzen genituen ildo politiko kriminal berrietatik abiatu-rik, ideologia jakin bateko presoak espetxe barruan eraentza itxian egotea bilatzen da, ideologia horri –ez soilik jarduera deliktiboak egiteari– uko egiten ez zaion bitartean, egindako delituarengatik ordain dezaten *merezi* duten bezala eta berriro ere kalterik egiteko aukera *inoiz* eduki ez dezaten.

4. Eredu aldaketa (birgizarteratzetik inokuizazioarentzako *ziaboga*) gauzatu dela argi dago eta delitu guztietan ez ezik, terrorismo-delituetan ere modu nabarmenagoan *ad hoc* lege-araketa zorrazago bati esker. Aipatu *ziaboga* gauzatzeko ildo nagusiak (denbora pasatzearen irizpidearen nagusitasuna eta arriskutsutasun ideologiko berria) ere agerian gertatu dira. Baina oraindik falta da azkeneko ñabardura, eredu berriaren benetako irudia antzemateko eta etorkizuna iragartzeko are zailtasun gehiago ekarriko dizkiguna. Alegia, eredu-*ziaboga* egitez gauzatu arren, ikuspegi formal, terminologiko eta sistematikotik hori aitortu gabe egin da. Legegileak aztertutako aldaketak egin ditu baina ez du espetxeetako antolamenduaren beste artikulutan aldaketarik sartu ezta eredu-aldaketa egiten ari zela inoiz adierazi ere. Horren azalpena hurrengoia izan liteke: gertatzen ari den aldaketa estrukturala kontrolaren kultur osoan ez da kontziente izaten ari. Ez da oraindik eredu jakin bat, iparra markatzen duena, baizik eta mugimendu oso bat, indartsua, baina oraindik ere egituratu gabekoa. Etorkizunak esango du zein tankera, behin betikoa, hartzen duen eredu berriak. Bitartean, Espainiako legegileak aldaketa nabarmenak bultzatu ditu, baina ez du eredu-aldaketaren kontzientziarik.

Areago, aldaketok birgizarteratzearen ideologiarekin bat egitera behartu nahi ditu, aldaketa gehienek giltzarria *gizartean birsatzearen aldeko iragarpen bakoiztua* izateak argi asko erakusten duen moduan. Izan ere, erantzukizun zibilaren inguruko betekizun berria edota elkarlan aktiboaren ingurukoa formalki aipatu birsartzeko iragarpenaren osagai berriak baitira, horiek egon ezean birsartzeko iragarpen positiboa izango ez delarik. Beraz betekizunak formalki eta terminologikoki presoaren birgizarteratzeko baldintzak dira, horien benetako edukia bestelako logika prebentibo eta ordaintzaileari egokitzeak baldin badira

ere. Eduki berriak eduki zaharren moldetan sartu nahiak interpretazio arazo gehiago eragingo ditu ezbairik gabe, gauza guztiek bezala erakunde juridikoek ere zentzua galtzen dutelako esana eta izana bat ez datozenean.

Baina aipatutakoak bete dezakeen estalki ideologikoaren funtzioa gorabehera, horrez gain nahasketa honek gizartearen eta esparru juridikoaren arteko aldea areagotu besterik ez du egingo, legearen ezarpena, jendeak dagoeneko onartzen ez duen birgizarteratzearen izenean aurrera eramango delako, birgizarteratzearen deskredito handiagoa ekarriko duena.

5. Lan honetan zehar esandakoari ezkorregia eriztuko dio norbaitek. Areago: norbaitek pentsa lezake ez dagoela itxaropenik. Aldi gogorretan bizi gara berme-kultur juridikoaren ikuspegitik. Badirudi historian zehar hainbat aldiz saiatu den politika kriminal gogor eta errukirik gabekoa beste behin batean itzultzen ari dela eta aztertutako espetxeetako lege-aldaketak horren adibide garbiak besterik ez dira. Baina gogoratu beharra dago historiaren *bukaera* ez dela behin betiko heltzen –ez bederen gaur arte– eta mugimendu historikoak aldi baterakoak izaten direla. Eta horren kontzientzia hartzea ez da garrantzirik gabeko zerbait. Gauden egoera historikoaz jabetzea eta horrek zein ezaugarri nagusi aurkezten dituen antzematen hastea, molde juridikoen aldaketak –eta horien *iraultza*– sustatzeko lehenengo urratsak izan ohi dira. Horregatik lan honetan zehar Euskal Herriaren zati batean eragina izaten duen espetxeetako politika aztergaia izan dugu. Eta diagnostiko baten bila, aldaketok Euskal Herriko espetxeetan ez ezik, mendebaldeko zigor kultur osoaren mugimendu estrukturaletan ere gertatzen ari direla baieztatu ahal izan dugu. Lan honek, gure herriaren egoera, hortaz, nazioarteko mugimendu politiko kriminal nagusien testuinguran txertatzeko balio izan badu, hori ez zen ekarpen makala izango eta berez etorkizun hobe baten itxaropena pizteko lehenengo zimentarria. Hala izan bedi!

***Jon-Mirena Landa Gorostiza***



# **BIZKAIKO ERAKUNDE JURIDIKO JATORRAK: BIDIGAZAK ETA ABEURREAK**

## **1.- SARRERA**

Hainbat erakunde juridiko jator ditugu Bizkaiko Foru Zuzenbidean; horietarik askok ez dute aztarnarik laga, gizaldien porasuz galdu baitira; beste batzuek, ostera, aurrera egin dute, bai literatura juridikoan, bai altxor orokorrean; edu horretakoa da 'bidigaza' edo 'bidegaza' izenekin ezagututakoa; hori ez ezik, badugu 'abaurrea', 'abeurrea' edo 'abehurrea' izenekin ezaguna dena ere; areago, erakunde horien antzinako lekukotasunak Bizkaiko Foru Zaharrea bezala Bizkaiko Foru Berria ageri dira, bai eta Espainiako Hizkuntz Akademiaren 1791ko hiztegia ere. Dena den, erakunde horiek egoera jakin baten edukoak dira, eta ez dute gure urteak arte iraun. Dena den, Bizkaiko Foru Zaharren testigantza eta Bizkaiko Foru Berriaren lekukotasuna haien baino lehenagokoak dira, eta horrek aditzera ematen ditu kontu bi: alde batetik, Bizkaian bazela ohiturarik jabetasuna eskuratzeko erakunde hauen bidez; eta, bestetik, xvii. gizaldian bizirik zeudela erakunde biak.

Bizkaiko eta, horrenbestez, Euskal Herriko erakunde juridikoei ekarpena egin nahian, saiakeratxo honetan, erakunde juridiko horien nondik norakoak azalduko ditut, hala Zuzenbidearen ikuspegitik, nola hizkuntzaren ikuspegitik.

## 2.- HIZKUNTZ AZTERKETA

### 2.1. 'Bidigaza' erakunde juridiko honen hizkuntz izentazioak

Sarreran esan legez, aldaera nagusi bi ageri dira, hizkuntzaren eretzean, erakunde juridiko hau izendatzeko; horretara, bada, 'bidegaza' aldaerarekin batera, 'bidigaza' ere bai aurki dezakegu.

'*Bidegaza*'.—Aldagai hau Resurrección María de Azkuek ematen digu bere hiztegi hirueledunean. Lekeitioko euskaltzainburuak egin ohi zuen moduan, berak egokietsi forma eman zigun, nahiz eta berak aukeratu forma bat etorri ez jatorriko testuetan ageri zenarekin. Aitamen bera dakar Lino Akesolok *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* hiztegian, 'bidigaza' aldaerarekin batera. Aldaera bera dakar Luis Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiak*, eta harekin batera, ondorik azalduko dugun 'bidigaza' ere bai.

Manuel Agud eta Antonio Tovarrek ere euren *Diccionario Etimológico Vascon* 'bidegaza' sarrera dakarte, baina aipamenaren barruan 'bidigaza' aldaeraren testigantza ematen dute.

'*Bidigaza*'.—Forma hau besteren aldaera legez ematen dute orain arte aitatutako guztiek, baina Lino Akesolok bere hiztegian, biak sarrera berezi gisa hartzen ditu, ziur aski, interpretazio juridikorik egin barik, 'bidegaza'ren sarreraren aitamenara dakarrelako Bizkaiko Foruaren aitamen hutsa, eta 'bidigaza'ren sarreraren barruan, ostera, Espainiako Akademiaren 1791. urteko testuaren hitzez hitzeko aitamena egiten duelako. Luis Mitxelenak aldaera biak batera ematen ditu, eta 'bidigaza' da 'bidegaza'ren sinonimoa. Gauza bera suertatzen da Agud eta Tovarren hiztegi etimologikoarekin ere.

Betiere, Bizkaiko Foru Zaharrak, 1452koak, 'bidigaza' aldaera dakar, eta Bizkaiko Foru Berriak, 1526koak, berriz, 'bidigaza'. Hau da, 'v' eta 'b' letren arteko alternantzia kenduta,



jatorrizko forma, hala xv. gizaldiko testuan, nola xvi.ekoan, 'i'dun aldaera dugu. Ezagun da Azkueren gogoia, hizkuntza 'behar zen moduan' egin eta eratzeko, eta uste bazuen berak aurkituko aldagaia 'txarto' eratuta zegoela, orduan bere aburuz behar zuena sendetsiko zuen. Agerian gelditzen da, berriz ere, Lekeitioko euskaltzainburuaren euskara 'orbangabea', bai eta berak harrezkeroko euskal hiztegi-gile guztiengan izan duen erabateko eragina. Dena dela, 'bidigaza' aldaera agerrarazten du Justo Garatek saiakera bitan; alde batetik *Euskal Erria* aldizkariaren 1881. urteko lehenengo alean, eta ondorik "Segunda contribución al diccionario vasco"n artikuluan, hau da, *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian 1933. urtean argitara emandakoa.

Nire ustez, Resurrección María de Azkueren eta Luis Mitxelena-ren aukera gorabehera, Agud eta Tovarrek bezala Lino Akesolok aukeratu sailkapen-irizpidea hala izanagatik, eta kontuan hartuta Bizkaiko Foruaren aldagai bietan 'i'dun forma ageri dela, 'bidigaza' hobetsiko nuke euskara baturako, batez ere, gogoan izan behar dugulako oso gizaldi goiztiarretan ageri dela forma hori, alegia, ez dela urte eta gizaldien puruz endekaturiko forma, ezperen orduko sasoirako ihartuta zegoena.

Beste alde batetik, benetako testuetan aurkitu lekukotasun bakarrak Bizkaiko Foruaren aldaerak baino ez dira, eta testigantza horiek 'bidigaza' renak dira, ez 'bidegaza' renak; Agud eta Tovarrek dioten legez, berba hori ez da jatorri ziurrekoa. Are gehiago, eurek dakarten aitamen etimologikoa zalantzaz beterik dago, ezik eurek diote, berba horren lehenengo osagaia 'bide' dela, 'bidezko' aren esanguran, eta horren adibide legez 'bidegabe' jartzen dute. Hori ez ezik, badiote bigarren osagaiak zalantzazkoa ematen duela, eta egia da, erabat zalantzakoa da; modu horretara, ziurtasuna kentzen diote Jose Manterolak *Euskal Errian* egindako baieztapenari. Egin-eginean ere, idazle gipuzkoarrak bazioen bigarren osagaiaren esanahia 'gauza' rena zela.

Arrazoia dute, nire aburuz, Agud eta Tovarrek, bigarren osagaiaren kontuari dagokionez. Betiere, ni ez nator eurekin bat, lehenengo osagaiaren eretzean; izan ere, zaila da berba-eraketa hori

gertatzea, 'e'tik 'i'ra aldatuta, hitzaren eraketari begiratu gero. Areago, testu pragmatikoek dakarten aldaera 'i'duna baino ez da.

Hori guztia dela eta, 'bidigaza' aldaera sakatu beharko genuke, jatorri ezezaguneko ariketak egiteke.

## **2.2. 'Abeurre' erakunde juridiko honen hizkuntz izentazioak**

Erakunde juridiko honek agertoki bi ditu, Bizkaiko Foru Zaharrear bezala Foru Berrian, bai eta *Diccionario de Voces españolas geográficas*en ere, 1800. urte inguruan argitaratu baitzen. Ordutik hona, hainbat hiztegitan jaso da.

Aurrenekoz, Bizkaiko Foru Zaharrak aitatzten ditu aldaera biak, horretara, bada, CLV. kapituluan 'abaurreas' bi bider ageri da, baina CLIX. kapituluan, 'abeurreas' bost bider aurki dezakegu. Bizkaiko Foru Berriak, berriz, 'abehurreas' aldagaia hiru bider dakar XXIV. tituluko IV. legean; 'abehurreas' eta 'abehurrea' ageri dira titulu bereko V. legean, eta 'abeurrea' eta 'abehurrea' titulu bereko IX. legean.

Bizkaiko Foru Zahararren eta Berriaren artean alde bi daude. Alde batetik, 'h'a' dugu Foru Berrian kasu guztietan, batean izan ezik, eta Foru Zaharrear ez dago 'h'dun' formarik. Gogoan hartzen badugu, testigantzarik zaharra 'h'rik gabeko aldagaia dela eta gure hiztegitik eta iruzkintzailerik gehienek 'h'rik gabeko forma hobesten dutela, nik ere uste dut horixe dela sustatu beharreko aldaera. Horrezaz gain, badugu beste irizpide bat, Euskaltzaindiak emana: euskalki bateko hitza ekartzen bada euskara batura, jatorrizko euskalkian 'h'a' erabiltzen da bada, orduan 'h'z' idatziko da batuan, oster, ez. Eta hau kasu nabarmena da. Izan ere, bai berba hau, bai 'bidigaza' bizkaierari bakarrik dagozkiola ematen du, haien lekukotasun idatzi bakarrak, behintzat, Bizkaiko Foruari dagozkio, hala Zaharriari, nola Berriari.

Beste alde batetik, 'aba-' ala 'abe-' aldaeren inguruan, Bizkaiko Foru Zaharrak biok darabiltzan artean, Bizkaiko Foru

Berriak 'abehurre' eta 'abeurre' darabiltza; harrezkeroko testigantzek 'abe-' aldaera hobesten dute; beraz, '-e-'dun aldagaia aukeratu beharko litzateke.

Azkenik, beste ohar bat egin nahiko nuke -a itsatsiaren inguruan; egin-eginean ere, bai Foru Zaharrak, bai Foru Berriak, bai haien ondoko hiztegitik eta iruzkintzaile guztiek '-a'dun forma hobesten dute. Itauna hauxe da: -a hori benetan da itsatsia ala gaztelaniaz idatzi eta plurala egiteko modua da? Testuak irakurri eta gero, pleonasmoa dagoela ematen du 'las abaurreas' irakurtzen dugunean, alegia, pluralgilea gaztelaniaz eta euskaraz ipintzen dela, eta hori sarritan ikusiko jazoera dugu hizkuntzaren eretzean. Horretara, euskarazko 'abaurre'ak izango lirateke, alegia, -a hori mugatzailea izango litzateke, ez, oster, itsatsia. Arazo honetaz denaz bezainbatean, 'abeurrea' hitzaren esangura aztertu beharko dugu, jakin ahal dezagun mugatzailea ala itsatsia den. Horrela, Agud eta Tovarrek Corominasen iritzia dakarte hizpidera, eta badiote, etimologiazale kataluniarraren ustez, beharbada, hitzaren erabidea hauetako bat izan daitekeela: 'abe-aurre' edo 'abe-ur(r)e', hau da, zuhaitzaren aurrean edo zuhaitzetik hur, betiere etxola haren aurrean edo haren hurrean zegoenari ezarriaz. Hori ez eze, Corominasen iritzian, '-aurre' hartzen da izen abstraktuen atzizki gisa, eta gipuzkerako adibide hau ematen du: 'aldeuarre', hau da, 'alde zurretik, eta harekin batera 'alde' ematen du, 'diferentzia, abantaila, aldaketa'ren esanguran. Betiere, horrelako berba baten testigantzarik ez dugu gipuzkeraz idatziriko testuetan aurkitzen. Edozein kasutan ere, berba ez litzateke 'abeurrea' izango, 'abeurre' baizen.

### **3.- AZTERKETA JURIDIKOA**

#### **3.1. Zer ziren bidigazak eta abeurreak**

Bidigazak ezaugarriak ziren, norbanako batzuek botatzen zituztenak erreka eta errekaetoetan, horietan ola, bolu edota erroetan anteparak jartzeko. Betiere, erreka edo errekaeto horiek landa publikoetan edo inorenetan zehar joan behar izaten zuten, eta bidigaza horiek botatzen zituztenek eskubidea eskuratu nahi

zuten haien bitartez, halako anteparak edo uharkak jaso ahal izateko.

Abeurreak, berriz, etxe-ezaugarriak ziren, eta horiek jartzen zituen norbanako batek, olak, boluak eta errotak jaso ahal izateko inoren lurretan edo lur publikoetan. Euren izaerak biak lotzen zituen, eta Foru Zaharrak bezala Foru Berriak batera arautu zituzten.

### **3.2. Izaera juridikoa eta subjektuak**

Objektu biek ordezkutzen zituzten eskubide errealak, beraiek jartzen zituen norbanakoarentzat, eta eskubide errealok norberaren partzuergoaren lurren gainekoak izaten ziren, Foru Zaharrak zioen bezala. Foru Berriak, ostera, bereizi egiten ditu norberaren partzuergoko lurak lur publikoetatik.

Horretara, bada, Foru Zaharraren CLV. kapituluak dioen legez, "... lurra partzuer batzuen izanda, berean eurentarik batek edo batzuek eraikinen bat egin nahi izanez gero... edo... antepararen bat jarri nahi izanez gero...", orduan argi dago norbanako batek eskubide bat eskuratu nahi duela bere partzuergoaren lurra, eraikin bat edo beste eraikitze eskubidea. Foru Zaharrak dioen legez, arazoak gertatzen ziren. Izan ere, Bizkaiko Foruak arautu nahi izan zuen eta konpondu, lehendik gizartean suertatzen zen errealitate arazotsua.

Subjektuak, lehen esan dugun ariora, bi alderdi dira: alde batetik, zama jaso behar duen ondasunaren titularra, eta, bestetik, harekin batera partzuergoan zuen ondasunean zerbait eraikitze eskubidea eskuratu nahi zuena. Hori hala jazo zen Foru Zaharrak indarrean iraun zuen artean. Foru Berriaren arabera, berriz, ondasunaren gaineko eskubidea eskuratu nahi zuen pertsonaren egoera edo bikoa izan zitekeen, hau da, edo ondasunarekin zerikusirik ez zuen, lurra publikoa batzen, edo beste batzuekin batera bazuen ondasun horren titulartasun partekatua.

Kontu honek, Forua irakurtzetik ateratzen denez, arazoak sorrarazten zituen, bera indarrean jarri aurretik, eta horrexegatik

jardun zuen Foruak, egoera hari irteera formala emateko. Foru Zaharrak egiten du lehenengo ahalegina, eta Berriak araubide osoagoa eman, bai eskubidearen titulartasunaren gainean, bai eskubide horren egikaritzaren lehentasunaren gainean.

Egin-eginean ere, gorabeherak gertatzen ziren bidigazabotatzailea edo abeurre-jartzailea partzuerra bazen anteparan, baina ez lurlean, orduan Foru Zaharrak lehendiko gatazka konpondu nahi du CLVI. kapituluan. Bertan ezarri zenez, eraikin horren etxea daukan lurraren partzuerrek premiatu nahi badituzte antepararen lurlean partea dutenak, orduan premiatu ahal izango dituzte horiek eraikinaren zati hori egin dezaten, baina antepararen lurraren ugazabek ezin dituzte premiatu etxearen lurraren jabeak; hori ez eze, lurraren edo antepararen partzuerrek, premiatuta izangatik, ez badute halakorik egin nahi, orduan ola, bolu edo errotaren etxeko orubearen jabeak egin ahal izango du lan hori, nahiz eta uharkaren ugazabek egin nahi izan ez, edo horretarako baimenik eman ez arren (CLVI. kapitulua). Foru Berriak eusten dio Foru Zaharraren araubideari, beste idazkera bat ematen badio ere (XXIV. tituluko VI. legea).

### **3.3. Bidigaza eta abeurreen betekizun formalak eta denbora-betekizunak**

Esan dugun legez, bidigazak eta abeurreak ezaugarriak ziren, eta adierazgarri horiek betekizun batzuk bete behar zituzten. Horretara, Foru Zaharrak ez du aitatzten beren beregi bidigazak botatzea edo abeurreak jartzea ageriko moduan egin behar zenik. Ostera, Foru Berriak berariaz azaltzen du agerikotasuna, baina modu ezberdinetan, lurra publikoa edo partzuerrena den.

Foru Berriaren arabera, agerikotasuna erabatekoa da, baldin eta bidigaza edo abeurrea jasotzen duen lurra publikoa bada: "... lurrari dagokion elizan horren berri emanaz, eskribauaren aurrean, domekaz, meza denboran... hiru kolpe emanaz kanpaia nagusiari, eta azalduaz bidigazak bata dituela, edo abeurreak jarrita dauzkala, eta lekua bera izendatuz..." (XXIV. tituluko IV. legea); eta agerikotasuna ugazabei dagokie, baldin eta ola, bolu edo errota

edo antepara partzuegoan badu beste batzuekin batera partzuer horrek, baina, kasu honetan, ez du hortik landa besterik egin behar: "... halakoa jarri zuenak eskribauaren bitartez eman ziezaiela horren berri beste partzuerrei..." (XXIV. tituluko V. legea).

Denbora kontuez direnez bezainbatean, Foru Zaharraren eredura, jakinarazpena egin eta gero, urte bat eta egun bateko epean jarkitzen ez bazitzaion horretarako eskubidea zutenetarik inor abeurrea jarri edo bidigaza bota nahi zuenari, orduan eskubidea eskuratzen zuen halako ezaugarria ipini zuenak antepara egiteko, edo errota, bolua edo ola eraikitzeke (CLV. kapitulua).

Foru Berriaren arabera, bidigaza botatzen bazen ubide publiko baten, edo abeurrea jartzen bazen lur publiko baten, orduan epea urte bat eta egun batekoa zen, eta halakoa ipini zuenari edo bota zuenari elizateko edonor jarki zekiokkeen, eta berak eskuratu eskubidea, bai haren lekuan, bai harekin batera, kasuan-kasuan (XXIV. tituluko IV. legea). Betiere, baldin eta ubidea edo lurra partzuer batzuen bazen, orduan jakinarazpena egiten zenetik hogeita hamar eguneko epea zuten beste partzuerrek besteari jarkitzeko; bidigaza-botatzaileari edo abeurre-jartzaileari inor jarkitzen bazitzaion, orduan euren artean adosten ez bazuten denbora-tarte bat ezaugarriak jartzeko, epaileak lau hileko epea ematen zien ezaugarria bota edo eraiki ahal izateko (titulu bereko V. legea).

### **3.4. Egiteko eskubide eta gainerako eginbeharrak**

Eskubide guztiek badakarte eurei dagokien eginbeharra. Hala ere, kontu hau ez da ageri Foru Zaharrean, bai, oster, Berrian. Horretara, bada, bidigaza-botatzaileak eta abeurre-jartzaileak egikaritu behar zuten eurek eskuratu eskubidea denbora-tarte jakin baten, bestela, eskubide hori galtzen zuten: "... urte bat eta egun bat igarota, eginkizuna betetzen ez bazuen botatzaileak edo jartzaileak, orduan elizate horretako beste edozein bizkaitarrek bota zezakeen bidigaza, edo jarri abeurrea, aurrekoak betetako baldintzak burutu eta gero." Eta bigarren

honek irabazitako eskubideak bazekarren norbanako guztientzat betebeharra, hala aurrekoaren eretzean, nola beste guztientzat, lurra publikoa zen ginoan. Hau da, erasalea jasale bihurtzen da, eta gainerakoek badiraute lehengo moduan eskubidedun berriaren eretzean. Dena den, bidigaza-botatzaileak edo abeurre-jartzaileak urte bat eman behar zuen beste ezer egiteke lur publikoan, bai, ostera, bere jabetzapeko lurrean (XXIV. tituluko IV. legea).

Foru Berriak beste araubide bat ezartzen du, baldin eta ibaibidea edo lurra partzuer batzuen bada, herriarena izan beharrean. Horrela, bada, epaileak lau hileko epea emango du, eta eskubidea lortuta duenak ez badu botatzen bidigaza edo jartzen abeurrea, orduan beste partzuerrek euren buruentzat egin ahal izango dute hori, besteari zegokion kopuruaren bikoitza emanaz (XXIV. tituluko V. legea).

### **3.5. Fede txarraren araubidea**

Erakunde juridiko guztiekin gertatu antzo, bidigaza eta abeurreekin ere arautu egin zen zer gertatuko zen pertsona batzuek halako ezaugarriak jarri nahi bazituzten inoren kaltetan, eta, horretara, bada, Foru Zaharrak hiru kapitulu erabili zituen ondoko kasuok arautzeko: olak, errotak eta boluak eraikitzea goikoan kaltetan; antepara jaistea ur gutxi dabilenean; eta abeurreak eta bidigazak ezkutuan jartzea. Foru Berriak ere lau lege darabiltza, ondoko gertakariei konponbide juridiko bana emateko: ola edo errota berriak egiten dituztenek zelan utzi behar duten ubidea lehendik ubidearen goiko aldean olak, boluak edo errotak dituztenek kalterik jasan ez dezaten; zein baldintzatan euts diezaioketen ur-emariari goiko errota, bolu eta oletako ugazabek; galarazi egiten da bidigaza edo abeurrea kentzea epailearen manamendu barik, eta debekatu egiten da olak, boluak edo errotak bertan behera utzi dituztenek inori galaraztea hauek halako eraikinak egitea.

Lehenengo eta bat, esan behar da, ez zela debekatzen ola, errota edo bolu berririk eraikitzea, baldin eta eraikitze horrek ez bazuen kalterik ekartzen lehendik zeudenentzat. Beraz, berria egin nahi zuenak halakoa eraiki zezakeen, baldin eta ubidea gelditzen

ez bazen, edo goiko ola, bolu edo errota kaltetun suertatzen ez bazen. Eta inork, horretara jokatzeko bazuen, kalte-ordaina eman behar izaten zion goiko ola, bolu edo errotaren jabeari, harik eta honek berreskuratu arte lehen zeukan egoera. (Foru Zaharraren CLVII. legea.)

Lehorteetan ur-emia txikia izanik, ola, bolu edo errotaren ugazabak ura bildu behar zuen bere jardueran aritu ahal izateko; beraz, anteparak ipintzen zituzten urari eusteko, baina bazuten horretarako baldintza bat bete beharra, eta horretarako leku bat utzi behar zuten beheko aldetik, beheko eraikinaren ugazabak kalterik jasan ez zezan. Gainera, hori zelan egin behar zen zehatz-mehatz arautzen zen. (Foru Zaharraren CLVIII. legea.)

Agerian gelditzen denez, gizarte-onura da gailentzen den abiaburua, bidigazten kontuan bezala abeurreenetan, balio bera babestu egiten da; esan dezakegu, XV. gizaldian arautuagatik lehendik erabiltzen zen erakunde horiek gizartearen onura eratzkitzen diotela jabetasunari, beraren ezaugarrien artean. Hau da, aurrendaria dugu Europako legegintzan. Egin-eginean ere, abeurre eta bidigazak babesteko modua kalte-egileari zigorrak ezartzea zen, esan nahi baita, ez zen abiaburu edo printzipioen adierazpen hutsa, eragin eta ondorio juridiko zorrotzak zituzten erakunde juridikoak baizen.

Begoñako Errepublikan, 2005eko irailaren 19an.

**Gotzon Lobera**



# **KOOPERATIBEN EUROPAR LEGEDIA ALDATZEKO OINARRIAK**

## **0.- SARRERA**

Europar Batasuneko Kide diren Estatuetakoko erakunde publikoek bakoitzaren Kooperatiben Legedia berritzatzeko orduan kontutan hartzeko diren Oinarriari buruzko erreferentzia bat ematea da azterketa honen helburua.

Kooperatiben Legediaren modernizazioa funtsezko faktorea da Lankidetzaren garapen eta lehiakortasunerako, eta zeharbidez, Europar Batasuneko biztanlearen behar ekonomiko eta sozialen kudeaketaren eraginkortasunerako ere.

Ez da ahaztu behar ere, behin Kooperatiba Elkarte Europarraren Estatutua indarrean sartuta, Kide diren Estatuak legediak begiztatzearen beharra, alde batetik Estatu bakoitzaren berezitasun edota berezko praktika egokiei erantzuten dien alderdi propioak indartzeko, eta, bestetik, ezberdintzerik behar ez duten alderdiak Europa mailan harmonizatzen saiatzeko.

Ikuspegi honekin, dokumentu hau baliatuz, Europako erakunde kooperatiboei, ideia multzo bat eman nahi diegu Europako erakunde kooperatiboei, etengabe berrikusi eta eguneratuak izan beharko direnak.

## **1.- KOOPERATIBEN LEGEDIAREN BEHARRA**

Adituek behin baino gehiagotan azaldu dutenez, teknika juridiko zorrotzaren ikuspegitik, posible da Kooperatiba Elkarteetan berezko lege araupenik derrigorrezkoa ez izatea.

Egiz, Kooperatibek merkatuan Kapital Sozietateen bitartez jardutea bideragarria da.

Horretarako, alde batetik, akziodunek boto emateko duten eskubidea birbanatzeko teknikak erabili ohi dira.

Beste batzutan, erabakitzeko boterearen “kooperatibizazioa” bitarteko egitura baten bitartez lortzen da (ez da zergatik izan behar egitura kooperatibo bat). Bitarteko egitura horretan, irizpide “kooperatiboetan” oinarritzen da erabakitzeko ahalmena (batez ere, “kide bakoitzak-botu bana” irizpidean).

Herrialde batzutan, (Frantzia, Italia) kooperatibak, berezko lege araupena izanik, beste era batetako sozietate mota bat dira (Kapital Sozietateak gehienetan), hauen araupena modu osagarrian egozten delarik.

Nabaria da beste motako erakundeen sozietate araupenaren hainbat alderdi erabilgarriak direla ere, neurri handi batean, Kooperatiba Elkarteetan. Adibidez, erroldatzea, elkarte organoen araupena, kontularitza eta ikuskaritza, sozietate eragiketak, etab.

Hala ere, kooperatibek berezko legedi kooperatibo berezia izatearen garrantzia eta interesa egiaztatzen duten pisuzko arrazoiak egon badaude.

a) Alde batetik, Kooperatiben berezkoak diren tresna batzuek beraien legezko araupena behar dute (Kooperatiben Taldeak, lan bazkideen lan araupena, Sekzioak, etab.).

b) Nahiz eta posible izan kooperatibizazioa estatutuen bidez lortzea, konplexuak eta ziurtasun gabeak diren lege-teknikak erabili behar dira horretarako.

c) Estatutu tresnen bidez lortutako kooperatibizazioak ez da batere egonkorra eta jardueraren deskooperatibizaziorako inertziatzko joera bat sortzen du.

d) Europar Batasuneko kooperatiben mugimenduak, nahiz eta gero eta handiagoa, gutxiengo izaera du. Beraz, lege eta ekonomi eragileen aurrean garrantzi handikoa da Kooperatiben berezko Legedia izatea, entitate hauen gizarte arloko eta erakundearen arloko onarpen eta ezagutzaren erreferentzia zuzena izan daitekelako.

Kooperatibentzako sozietate araupen berezi bat izatea garrantzitsua da beraz, baina ez dugu ahaztu behar –lehen esan dugunez– egon badaudela Kooperatibak eta Kapital Sozietateen artean komunak diren sozietate araupenaren hainbat alderdi.

Zentzu honetan, komenigarria da beharrezkoak ez diren bikoizketak alboratzea. Batez ere, Kooperatiben Legedientzako Kapital Sozietateen legediak, sozietate kodeek, etab. izan dezaketen osagarritasuna onartuz.

Gehienetan, ondoko bi tresnok dira garrantzitsuak osagarritasun honi etekin handiagoa ateratzeko:

a) Legedi kooperatiboan arauturik ez dauden alderdientzako beste mota batetako arauen (kapital sozietateak, sozietate kodeak ....) osagarritasun orokorra ezartzea.

b) Kooperatiben Legedian, arau igorpen zehatzak azaltzea beste mota bateko legediei. Horrela, zenbait lege tresnak beharrezkoa izan gabe bi aldiz arautzea alboratuko genuke.

Mota hauetako tresnak dira Kooperatiba Elkartearen legediaren berezko ezagutzari uko egin gabe legedien osagarritasunen erabilpen zuzena ahalbideratu dezaketenak.

## **2.- KOOPERATIBEN LEGEDIAREN MUGAK**

Kooperatiba Elkartea eta Kapital Sozietateen artean, esan dugunez, nolabaiteko osagarritasuna egon daiteke. Hala ere, askoz nabariagoa da osagarritasun hori Kapital Sozietateak ez diren beste motako erakundekin.

Gutziz argia da hori erakunde mota zehatz batzuekin. Bereziki, Kooperatiben antza, beraien organo egitura “bazkide bakoitzak boto bana” irizpidean oinarritzen dutenak.

Adibidez, oso ezaguna da mutualitateen kasua, Kide diren zenbait Estatutan, mutualitate gisa zein aseguru kooperatiba gisa eratzten direnak.

Antzeko zerbait gertatzen da zerbitzuak hornitzeko jardueretan, jarduera hauek elkarte gisa zein kooperatiba gisa bideratzen direlarik.

Legediaren ekonomiaren arabera jarrera irekia izan beharko luke Kooperatiben Legediak –hainbat herritan gertatzen den moduan– jarduera esparru hauen aurrean. Horrela, Kooperatiben Legediaren barruan geratuko lirateke jarduera mota guzti hauek, bai eta ere horren hurbil ez dauden beste motako lege egitura batzuk, zenbaitetan “kuasi-kooperatibak” izendatu direnak.

Jakina da, mutualitate eta antzeko beste motako lege-erakunderen tradizio luzea. Tradizio hori onartu eta errespetatu behar da.

Onarpen eta errespetu hori, jakina, bateragarria izan behar da aipatu dugun legediaren ekonomiarekin.

Horretarako, funtsezkoak dira osagarritasun edo araubidalketaren tresnak.

Horrela, Kooperatiben Legediak elkarte mota batzuren osagarria izango litzateke. Adibidez: mutualitateak, enpresa helburuak dituzten Elkartek, kooperatibizatutako Kapital Sozietateak, etab.

### **3.- EUROPA MAILAKO ARMONIZAZIO PROZESU BATERAKO OINARRI IRIZPIDEAK**

Kide diren Estatuoen Kooperatibeen Legediak zeharo ezberdinak dira. Eta ezberdintasun horiek, bai sakonekoak bai eta itxurazkoak ere badira.

Hori dela eta, kontu handiz hasi beharko litzateke Europa mailako edozein harmonizazio prozesu.

Askoz argiago da hori Kooperatibeen Legedia egonkortu eta sendotu gabe dagoela kontutan hartzen badugu Kide diren Estatuotan, bai doktrinaren aldetik, bai eta auzitegien aldetik ere. Eta hori lege egitura hauen oinarrizko ezaugarriekin ere gertatzen da.

Egia da ere, bestaldetik, Kooperatibeen Legedien hobekuntzarako garrantzi handikoa dela legedi ezberdinak eratzeko erraztasuna. Eta oso zaila da hori momentu honetan, legediak zeharo ezberdinak direlako bai terminologiaren aldetik, bai eta ere arlo formaletan edo legearen egituran dauden oinarrizko ezberdintasunen aldetik, etab.

Kooperatiba Elkarte Europarraren Estatutua, beraz, paregabeko aukera bat izan daiteke, zentzu honetan, bateango erreferentzia marko bat ematen digulako geroko lege aurrerapen berriei begira.

Oso bide zaila izanik, edozein motako harmonizazio prozesu zuhurtasun handiz eraman beharko litzateke aurrera. Hala ere, interes handikoa izango litzateke Kide diren Estatuoen arteko Kooperatibeen Legedia pixkanaka pixkanaka hurbiltzen joatea terminologian, alderdi formaletan eta legearen egituran, erreferentzia moduan Kooperatiba Elkarte Europarraren Estatutua hartuta.

#### **4.- KOOPERATIBA MOTEN EDO BAZKIDE MOTEN EGITURATZE HOBEAGO BATERANTZ**

Kide diren hainbat Estatutan, oso irudi nahasi eta kasuista du Kooperatiben Legediak. Behin baino gehiagotan, irudi arazo horrengatik urruntzen dira Lankidetzatik enpresa ekimen berriak.

Kooperatiben Legediaren zein alderdi era errazagoan edo egituratuagoan arautu behar lirateken zehaztea ez da batere erraza. Kooperatiben Lege bakoitza aztertu beharko litzateke horretarako, azterketa zehatz baten bidez.

Hala ere, egon badaude hobekuntzarako aukera argi batzuk:

a) Kooperatiben Legedia lege testu gehiegitako sakabaketa gainditu.

b) Kooperatiba mota ezberdinak arautzeko orduan, beharrezkoak ez diren banaturiko lege araupenak alboratu. Kontutan hartu behar da mota guzti hauen egiturazko osagaiak berdinak direla beti.

c) Kooperatiben bazkide motak modu egituratuagoan arautu. Zenbait herritan oso era nahasian arautzen dira eta.

Arlo guzti hauetan, interesgarria izango litzateke, hobekuntzak martxan jartzeko orduan, Kide diren Estatuek Kooperatiba Elkarte Europarraren Estatutua hartzea erreferentzia gisa, bai egiturazko hobekuntza sistematikoetan bai legedia erraztekoetan.

#### **5.- KOOPERATIBEN BEREZKO MUGAPEN EKONOMIKOEN ERAGINA**

Dakigunez, Europako herri askotan, hainbat mugapen ekonomiko eta operatiboen menpe daude Kooperatibak, Kapital Sozietateenak baino askoz handiagoak.

Mugapen hauek bereziki deigarriak dira etekinen banaketan eta kapitalaren ordainsarian.

Egia esan, ez dago beti guztiz argi mugapen hauek Kooperatiba Elkarteen berezko beharretara zein punturaino egokitzen diren.

Dirudienez, behin baino gehiagotan, mugapen horiek gehiegizkoak dira eta, Kooperatibak eratzeko orduan, bai eta etekinak sortzeko orduan ere, beharrezkoa ez den oztopo nabaria dira.

Irizpide orokor gisa, hauxe hartuko beharko litzateke: Kooperatiba Elkarteek jasaten dituzten mugapen ekonomikoak ez dira handiagoak izan behar Kapital Sozietateek jasaten dutenak baino. Hori bai, jakina, antzeko egoerak arautzeko orduan.

Arlo honetan ere, interes handikoa izan daiteke Kooperatiben Legedientzat Kooperatiba Elkarre Europarraren Estatutuan jasotzen den araupena erreferentzia gisa hartzea.

Oinarrizko irizpide honekin, Kooperatiba Elkarteek jasaten duten edozein motako mugapen ekonomiko gehigarria, zehatz mehatz egindako azterketa baten ondorioa izan beharko litzateke.

Alde horretatik, egon badaude irizpide orokor horren aurrean salbuespen gisa har daitezkeen mugapen batzuk. Etekinak banatzeko orduan, onargarria izango litzateke:

a) Gizarte, heziketa, sustapen, etab. erako funtsetara bideratutako derrigorrezko hornikuntzak ezartzea. Beti ere, Kide den Estatu bakoitzaren berezko tradizio kooperatiboan oinarritzen bada. Edonola ere, derrigorrezko hornikuntza hori, inoiz ez litzateke etekin garbien %10ekoa baino handiagoa izan beharko, edo urteko balio erantsiaren %1ekoa.

Herri askotan, interes handikoa da lege tresna hau. Batez ere, Kooperatiben benetako kokapen egoki eta eragile bat ziurtatzeko, gizarte eraldaketa, erantzukizun eta konpromisoaren aldetik, bai eta inguruaren kooperatibizazioaren aldetik.

b) osagarriak diren beste motako derrigorrezko hornikuntzak (erreserba funtsetara), Kooperatibaren Kapitala galdagarria izatearekin loturik.

Herri askotan, ohikoa da Kooperatiben Legediek Kapital Sozietateei eskatzen ez zaizkien erreserba funtsetarako derrigorrezko hornikuntzak eskatzea.

Derrigorrezko hornikuntza horien arrazoa Kooperatiben Kapitalak gehienetan duen izaera aldakorra nolabait konpentsatzea da.

Garrantzitsua da, zentzu honetan, derrigorrezko hornikuntza horien helburua argi eta garbi mugatua geratzea. Bestaldetik, arrazoi berdinegatik, Berezko Baliabideak indartzeko tresna alternatiboen erabilpena erraztea komeni da ere.

Horrela, derrigorrezko hornikuntza osagarri horiek arautzeko orduan, aukera eman behar zaie Kooperatibei, nahi dutenean, erreserba funtsetara gabe, galdagarria ez den kapital funtsetara bideratzeko hornikuntza horiek.

## **6.- LAN BAZKIDEEN LAN ARAUPENA.**

Kooperatiben lan bazkideen lan araupena ondoko ondoko bi sistema hauen arabera egituratu ohi da:

a) Kide diren zenbait Estatutan, Sozietateen Zuzenbidean oinarritzen da lan bazkideen lan araupena. Zehazki, Kooperatiben Zuzenbidean. Horretarako, Zuzenbide arlo honen arau zehatz batzuk ezartzen dira, Kooperatiba bakoitzaren barne arauari esparru zabal bat uzten dizkienak.

b) Kide diren beste Estatu batzutan, soldatapeko langileei dagokien Lan Zuzenbide orokorraren menpe daude lan bazkideak.

Argi dago Lan Zuzenbidearen helburua soldatapeko langilea babestea dela, enpresaren titularra den enpresariaren balizko gehiegikerien aurrean.



Argi dago langileak aldi berean enpresaren jabeak izan ezkerro, helburu horrek zentzu handirik ez duela. Eta hori da, hain zuzen, Lan Kooperatibetan gertatzen dena. Arrazoizkoa ematen du, beraz, kasu honetan, lan bazkideen lan araupena Kapital Sozietateetan ohikoak ez diren irizpideen arabera arautzea.

Bestaldetik, Kide diren Estaturen esperientziak hauxe erakusten digu: langileen inplikazioaren aldetik eta enpresa eraginkortasunaren aldetik ere, interes handikotzat jotzen dute Kooperatibek lan bazkideen lan araupenaren kudeaketa autonomo hori.

Hori denagatik, Kooperatiben lan bazkideen lan araupena Kooperatiben Legedian, beharrezkoa den neurrian, azaldu behar da. Hori bai, langile hauek jabetzan duten partaidetza botu eskubidearen ehuneko adierazgarri batera heltzen den neurrian.

Kooperatiba hauetan, langile hauen lan araupenak sozietate izaera izan beharko luke –Kooperatiben Legedian ezarririk–. Gainera, Kooperatiba beraren barne arauak indar osagarria izan beharko lukete (eta ez Lan Zuzenbide orokorrak, borondatez ez bada horrela erabakitzen).

## **7.- SEKZIOAK (ATALAK)**

Dakigunez, “bazkide bakoitzak boto bana” irizpidearen arabera eratzen da agintea Kooperatibetan. Horren ondorioz, berezko zailtasunak azaltzen dira Lankidetzan Kooperatiben arteko koordinaketa edo integrazioa –edo, hobeto agian, enpresa jardueren antolaketa banatua– bideratzeko orduan.

Erronka honi Kooperatiben Legediaren ikuspegitik aurre egiteak, ondoko tresna hauen erabilpena onartu eta erraztea eskatzen du:

- a) Kooperatiben Taldeak

b) Menpeko Kooperatibak

c) Sekzioak

Kooperatiben Sekzioak dira, ziurrasko, kooperatiben egiturak eta “holding” edo partaidetzako egituren (Kapital Sozietateen berezkoak diren akzioen bidezko partaidetzak) helburuak hurbiltzeko tresnarik onena dira.

Sekzioen bidez, nahiz eta lege nortasun bakarra gorde, bere jarduerak ezberdindu ahal ditu Kooperatibak, bere barne egituran. Horretarako, bakoitzari dagokion antolaketa eta ekonomia mailako autonomia ematen zaio, Kapital Sozietateen menpeko sozietateek dutenaren antzekoa, beharrezkoa denean.

Oso modu ezberdinean arautzen dira Sekzioak Kide diren Estatu ezberdinen legedietan.

Irizpide orokor gisa, eta aipatutako arrazoiengatik, interesgarriztat jo behar da Kooperatiben Legediek lege-tresna hau arautzea.

Hala ere, zenbait legeditan oso modu orokorrean arautzen dira Sekzioak. Kasuotan, interes estetiko baino ez dute tresnok. Izen berezi bat ematen diote, beharrezkoa izan gabe, eta lege araupen zehatzik gabe ere, berdin berdin “saila” edo “negozio unitate” gisa eratu ahal diren egiturei.

Sekzioen lege araupenaren benetako interesa benetan bereziak diren arauak ezartzean datza. Hau da, antolaketa edo ekonomiaren aldetik benetan bereziak diren eraketak ahalbideratzen dituenean, bestela ez litzatekelako posible izango edo, gitxienez, lege bideragarritasuna zalantzetan egongo zelako.

Zentzu honetan, Sekzioen euskal araupenak oso erreferentzia interesgarria da, Kooperatiben berezko enpresa arazoei erantzuna emateko asmoz eginda.

Irizpide orokor gisa, Sekzioen araupen hau jardueren gehienezko ezberdinketa ahalbideratu behar du, bai antolaketa arloan, bai eta ekonomi arloan ere. Eta, zehazki:

a) Etekinak modu ezberdinean –sekzioka- banatzeko aukera.

b) Kapital sari ezberdinak –sekzioka- ezartzeko aukera.

c) Kooperatiba eta bazkideen arteko eragiketen sariak ere sekzioka ezberdintzeko aukera.

-Bazkideen Batzarrak eta administrazio organo ezberdinak –sekzioka– eratzeko aukera. Hori bai, jakina, Kooperatibaren organoek dituzten erantzukizun orokorrak ahaztu gabe.

## **8.- MENPEKO KOOPERATIBAK**

Kooperatiben Agintea “bazkide bakoitzak boto bana” oinarri irizpidearen arabera banatzen denez, ezinezkoak dira, gehienetan, “kontrolerako” partaidetzak.

Oro har, beharrezkoa da irizpide hau erakundearen izaera kooperatiboa ziurtatzeko.

Hala eta guztiz, Kooperatiben Taldeen barruko –edo koordinaketa sendoa behar duten kooperatiben arteko– integrazio organikoa ere oztopatzen du irizpide honek.

Hori dela eta, Europar Batasuneko zenbait Estatuk edo eskualdek, “bazkide bakoitzak boto bana” oinarri irizpidea ez gordetzeko aukera ezarri dute zenbait kasutan. Batez ere, Estatutuek onartu ezker, Kooperatiba Elkarteak diren bazkideen kasuan. Honela, Kooperatiba bateko boto eskubidean beste kooperatiba batek gehiengoko partaidetzak ere eskuratzeko aukera baimentzen da.

Lege tresna hauen bidez, aberastasun handiagoa lortzen ari da Kooperatiben arteko harremanetan. Bai eta ere, orain arte

Kapital Sozietateen eskuetan utzitako esparruetara Kooperatiben elkarte harremanak hedatzea.

## **9. KOOPERATIBEN TALDE BERDINTZAILE EDO HORIZONTALAK**

Europako Kooperatiben zenbait legedik Kooperatiben Taldeak modu berezian arautzea beharrezkotzat jo dute.

Zehazki, izaera berdintzailea duten Kooperatiben Taldeak (Talde Horizontalak) arautzea da helburua.

Taldeak osatzen dituzten Kooperatiba Elkartek, bateango egitura baten eskuetan uzten dute –kontratu baten bidez-zuzendaritza eskumenak.

Araupen honen helburuak anitzak izan dira. Batzutan irudizkoak, beste batzutan zerga alorrekoak, etab.

Nolanahi ere, Estatu horien doktrinak eta errealitateak hauxe erakusten dute: Komenigarria dela Kooperatiben Taldearen kontzeptua arautzea. Batez ere, bateango erakundeen eskuetan uzten diren aginpide horiek behar duten lege ziurtasuna eskuratu ahal izateko.

Kooperatiben Talde Horizontalak “sareak” direlako egiturak dira, eta kooperatiba txiki eta ertainen arazo askori aurre egiteko orduan eraginkortasun handikoak direla egiaztatu da. Batez ere, kooperatiba hauen neurri txikiaren ondorioz berezko zailtasunak dituztelako neurri bateko proiektuei ekiteko orduan, arlo estrategikoetan kosteak murrizteko orduan, etab.

Taldeok oso adibide ona dira enpresa txiki eta handien abantailak bateratzeko orduan. Talde hauen bidez, posible da, aldi berean:

-Neurria handitzearen ondorioz interesgarriak diren sinergiak eskuratzeko asmoz, enpresa jardueraren zenbait arlo batera jartzea.

-Malgutasuna eta inplikazioaren aldetik enpresa txikiek dituzten abantailak gordetzea.

Aginpideen esku uzte horiek arautzeko beharra, batez ere, Kooperatiben Taldeentzat interes handikoak diren arlo zehatz batzuei dagokie. Batez ere, barne arauak, korporazio agintea, etekinen banaketa, kapitala eta lanaren araupena, etab.

## **10.- KOOPERATIBEN KAPITALAREN ARAZOA**

Kooperatiben Kapitalak eta Kapital Sozietateenak oinarrizko ezberdintasunak dituzte. Oro har, ezberdintasun hauen jatorria Kooperatiben izaera mutualistan eta izaera horren derrigorrezko baldintza honetan datza: Kooperatiben Kapitalak ez du antolaketa eskubiderik.

Kooperatibak eta Kooperatiben Taldeen Kapitalaren araupenak eraldaketa eraginkor eta ausarta behar du, helburuok lortzeko asmoz:

a) Kooperatibak eta Kooperatiben Taldeek garapenerako duten gaitasuna handitzeko. Horretarako, garapen hori ez da oinarritu behar bazkideen finantza baliabideak derrigorrez eskuratzeko gaitasunean bakarrik. Beharrezkoak dira ere bazkide eta hirugarrenen borondatezko ekarpenak, bai eta kapital-merkatura heltzeko gaitasuna ere.

b) Jarduera ezberdinen artean baliabideak banatzeko sistema zabalago bat lortzeko. Horrela, jarduera eraginkorrenek kapitala handitzeko aukera gehiago izango lukete.

c) Kooperatibek eta Kooperatiben Taldeek Kapitalaren erabilpen intentsiboa behar duten jardueretan aritzeko aukera izateko.

d) Familien aurrezkia eskuratzeko aukera gehiago izateko.

e) Oro har, Kooperatibak eta Kooperatiben Taldeak hobeto kapitalizatzen.

Arlo honetan, derrigorrezkoa da lege-araupenen egokitzapena, Kooperatiben eraketa beraren garapena bideratu ahal izateko.

Horrela, betiko Kapitala Kapital mota berri bat bihurtu behar da. Kapital berri honek baliogarria izan behar du, bai betiko derrigorrezko ekarpenak eta berriro inbertitzen diren etekinak bideratzeko, bai eta bazkideen zein hirugarrenen borondatezko ekarpenak eskuratzeko ere.

Kooperatibak eta Kooperatiben Taldeen Kapitalaren Eraentzaren aldaketa, ondoko baldintzotan oinarritu behar da:

a) Hartu beharreko neurrien ondorioz, Kapitala ez da antolaketarako tresna bat bihurtu behar. Horrela, Kooperatiba Elkarteen berezko eraentzaren oinarrizko osagaiak errespetatuko dira.

b) Oinarrizko helburua hauxe izan behar da: Kooperatibaren kapitalizazio egonkor eta intzentibatua lortzeko tresna egoki bat edukitzea.

Hau lortzeko, bai bazkideen ekarpenak, bai eta hirugarrenenak ere pizteko edo intzentibatzeke egokia den tresna bat behar da. Hau da: merkatuaren irizpideen arabera eraturako tresna bat, bazkideen zein hirugarrenen “borondatezko” ekarpenen bidez. Honen ondorioz, botorik gabeko kapitalak eskualdagarria izan behar du bazkide eta hirugarrenen artean, kontrako hitzarmenik ez dagoen bitartean.

Gehienetan, Kapital tresna berri horiek apurka apurka hasi dira erabiltzen modu “lotsatian” nolabait. Betiko tresnekin batera, osagarriak eta aukerakoak diren tresnen bidez. Zalantzetan jar daiteke estrategia honen egokitasuna. Horrela, arazo praktikoa handiak sortu dira Kooperatibetan, Kapital baliabide hauek eskuratzeko operazioak martxan jarri dituztenean.

Ondo da, beraz, betiko tresnekin batera Kooperatibek erabil ditzaketan tresna osagarriak zehaztea. Baina, hortik aparte,

serioski aztertu beharko litzateke ere Kapital osoa berrantolatzeko aukera. Horretarako, Klausula berri batzuk ezarri beharko lirateke betiko kapital ekarpenetan. Klausula hauen bitartez betiko Kapitala pizgarria izango litzateken Kapital Funts bat bihurtuko litzateke, merkatuan onartua eta bazkideen zein hirugarrenen borondatezko ekarpenak eskuratzeko baliogarria.

Hori bideratzeko, adibidez, ondoko klausulok izango lirateke beharrezkoak:

a) Bazkideei zein hirugarrenei Kapitala eskualdatzeko baimen orokorra.

Hori bai, Kooperatiba bakoitzak gorde behar du eskualdaketak mugatzeko klausulak ezartzeko aukera.

b) Kapital ekarpenak, bazkideen antolaketa eskubideak eta Kooperatiba uzteko eskubidea ez lotzea.

c) Kapitalaren ordainsariaren araupeak onargarria izan behar du finantza merkatuan, bai eta Kooperatibak eta Kooperatiben Taldeen kosteak ondo kudeatzeko baliogarria.

## **11.- ETEKINEN ZEHAZPENA**

Europar Batasuneko kide diren zenbait Estatutan, zeharo ezberdinak dira urteko etekinak zehazteko orduan Kooperatiben Legediak ezartzen dituen irizpideak:

a) Oro har, erabiltzen diren irizpideak bateragarriak dira –ekonomi ikuspegi batetik– Kapital Sozietateen ohikoekin. Horrela:

– gastutzat jotzen da jardueran parte hartzeagatik bazkideek jasotzen duten edozein sari

– alderantziz, etekin banaketatzat jotzen da Berezko Baliabideen edozein sari.

b) Zenbait herri –Espainian eta Portugalen-, alderantziz, Lege eta sozietate-irizpideetan oinarritzen dira, ekonomi arlokoetan baino. Horrela, Berezko Baliabideen saria gastutzat jotzen da, eta, alderantziz, etekin banaketatzat jotzen dira itzulkinak (urteko Ohiko Batzar Nagusiak diskrezionalki onartu ohi duen bazkideekiko eragiketen sariaren zatia).

c) azkenik, kide diren beste Estatu batzuk (Frantzia) hauxe jotzen dute etekintzat: bai Berezko Baliabideen sariak, bai eta Batzar Nagusiak borondatez onartzen duen bazkideekiko eragiketen sariaren zati hori ere.

Garrantzi handikoa da IAS/IFRSak indarrean sartzearen ondoriozko bateratze prozesuarekin hau dena ez datorrela bat kontutan hartzea. Kide diren Estaturen artean etekinak zehazteko irizpideak ezberdinegiak dira.

Urgentzi handikoa da, beraz, behar den moduan aurreratzea eta jarraitu beharreko irizpideak argitzeko asmoz Kooperatibagintza lehen bait lehen definitzen hastea.

Arrazoi operatiboengatik, lojikutzat jo behar da itzulkinak beste motako enpresen etekinarekin parekatzea. Nolanahi ere, itzulkinok ere, Ohiko Batzar Nagusiaren erabakien ondorioz, ekitaldiaren amaieran banatzen diren baliabideak dira.

Beraz, hauxe proposatu behar da: Frantzian (eta Espainian kontularitza arloan) erabiltzen den bitariko eredu hori onartzea, Kooperatiba Elkarteen etekinen zehazpena Europan “harmonizatze” (bateratzeko) orduan.

## **12.-ERROLDATZEA**

Europar Batasuneko zenbait Estatutan, modu berezi eta zehatzean arautzen da Kooperatiben erroldatzea.

Pisu handiko arrazoi historikoak daude bereizketa horretarako. Batez ere, erroldatze jarduera honek behar duen



espezializazioa, Kooperatiben lege- eta sozietate- arloko berezko ezaugarriak ulertu eta kontutan hartzeko orduan.

Hala ere, berezitasun hau ez da oso modu egokian kudeatu zenbait herritan. Kooperatibak erroldatzeko jarduera hori isolatu egin da nolabait. Eta hauxe ez da bateragarria Kooperatibek behar duten lege-ziurtasunarekin, ez eta eskuragarri dagoen kooperatibei buruzko informazioaren gardentasuna eta publizitatearekin ere.

Labur esanda, Kooperatiba Elkarteen erroldatze kudeaketa egokiak hauxe behar du:

a) Erroldatzearen kudeaketa autonomia, berezko erroldabulego baten bidez zein Merkatal, Sozietate edo Erakundeen Erroldaren Sail berezi baten bidez.

b) Berezko Errolda bulego batean erroldatuz gero:

- Bulego horrek autonomia izan behar du Erakunde Publikoen aurrean. Bulego horrek eta Kapital Sozietateen Erroldak duten autonomia mailak antzekoak izan beharko lirateke.

- Bulego horren kudeaketak beste motako enpresen Erroldarekin egon behar du behar den moduan koordinatua. Horrela, Kooperatiben eta Kapital Sozietateen erroldatzeen gardentasun eta publizitate mailak antzekoak izango lirateke.

### **13.- BAZKIDEEN GITXIENEO KOPURUA**

Kide diren Estatuaren Kooperatiben Legediek oso araupen ezberdinak dituzte Kooperatiba bat eratu edo irauteko behar den gitxieneko bazkide kopuruaren inguruan.

Historikoki, Kide diren zenbait Estatutan kooperatiba bat eratu edo irauteko behar den gitxieneko bazkide kopurua Kapital Sozietateetan eskatzen dena baino handiagoa izan ohi da.

Hala ere, azken hamarkadon Estatuotako esperientziak haxe erakusten digu: Bazkideen gitxieneko kopurua garrantzi handikoa da Kooperatiba berriak eratzeko orduan, zerbitzuen esparruan batez ere.

Errealitate hau ikusita, kontutan hartu behar da kontzeptuen aldetik ez dela derrigorrezkoa Kooperatibek kide kopuru handi bat izatea. Beraz, egokitzat jo behar da honen inguruan dauden lege oztopoak ahal den neurrian murriztea.

Irizpide hauen arabera, arrazoizkoa da Kooperatiba bat eratu edo irauteko gitxieneko kide kopurua 2koa izatea (edo, gehienez jota, 3koa), sektore batzuetako berezko araupenetatik at.

## **14.- ORGANOEN ERAKETA**

Sozietatearen organoen oinarrizko eraketa oso antzekoa da Kide diren Estatu guztietan.

Oro har, indarrean dauden organoen eraketak herri bakoitzean Kapital-Sozietateek dituztenen antzeko araupen formaletan oinarritzen dira (bazkideen batzarra/administrazio organoak).

Gehiengoak, ordezkapenak, eskuordetzeak, etab. arautzeko teknikek ere, beste motako Sozietateentzat landutako ereduak jarraitzen dituzte.

Egoera honen ondorioz, erraza da –eta, ziurrasko, beste arlotan baino egokiagoa– Kide diren Estaturen legedien arteko hurbilketa.

Egon badaude –jakina– herrien arteko ezberdintasun nabariak administrazio organoa eratzeko orduan, eredu “bateratu” ala “bikoiztuaren” arabera.

Hala ere, ezberdintasun hauek ez dira herri bakoitzean Kooperatiben arauen berezko beharren interpretazio ezberdinen

ondorioa. Alderantziz, Kapital Sozietateak arautzeko orduan herri bakoitzean jarraitu den aukerarekin daude lotuta batez ere.

Oinarrizko aukerok aurrikusita daude dagoeneko Kooperatiba Europar Elkartearen Estatutuan. Bertan daude ezarrita ere EBko Estatu guztiek egindako oinarrizko ekarpenak, Estatutu hori lantzeko behar izan ziren urteen zehar.

Estatutu hori azterketa prozesu luze eta jarraitu batean egindako ereduak dugu. Beraz, egokitzat jo behar da Kide diren Estatuen Kooperatiben organoen eraketaren legediek Kooperatiba Elkarte Europarra erreferentzia edo eredu gisa hartzea.

## **15.- BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

Ohikoa da Kide diren Estatuen Kooperatiben Legedietan bazkideen eskubide eta betebeharren zerrenda bat azaltzea, Estatutuen bidez luza daitekena.

Ohiko tresna da hauxe izaera pertsonalista duten erakundeetan. Bertan, enpresaren jardueran parte hartzea da, hain zuzen, bazkideak enpresaren titularrak bihurtzen dituenak.

Sozietate mota hauen berezko ezaugarria, jakina, ondarezko izaera ez duten eskubide eta betebeharretan datza: zerbitzuen ekarpenarekin lotuta daudenak (lan, horniketa edo kontsumo ekarpenak), bai eta ekarpen horren oinarrizko araupena ere.

Eskubide eta betebehar hauen Estatutuen bidezko araupenaren aurrean, gomendagarria da Legearen bidezko araupena. Egonkortasun, argitasun eta lege ziurtasun ingurune bat eskaintzen du Legeak, Kooperatibentzat interes handikoa dena.

Hau dena, jakina, Legeak gutxieneko eskubide eta betebehar moduan ezartzen dituenetik aparte, Estatutuek horiek osatzeko duten aukera ahaztu gabe.

## **16.- SOZIETATE-ERAGIKETAK**

Sozietate eragiketak (bategite, banatze, eraldatze, etab.), oso modu ezberdinean arautzen dira Kide diren Estatuetan.

Irizpide orokor gisa, Kapital Sozietateek baimenduta duten antzeko sozietate eragiketak Kooperatiba Elkarateek egitea debekatzen duten –edo nabarmen oztopatzen duten– arauak alboratu beharko liriateke.

Jarduerak integratu edo banatzeko sozietate prozesuak, berez konplexuagoak dira Kooperatibetan. Beraz, ez dira zergatik bereziki mugatuak diren arauen azpian jarri behar.

Oro har, sozietate eragiketa hauek arautzen dituzten arauak antzekoak izan daitezke Kooperatibak eta Kapital Sozietateetan. Hala ere, egon badira arau zehatz batzuk irizpide bereziak behar dituztenak Kooperatiba Elkarateen kasuan. Adibidez, boto eskubideak eta kapital ekarpenak modu ezberdinean arautzeko beharra, edo eragiketa hauetan Gizarte Ekintzetarako Funtsak edo Funts Banaezinek duten araupena, etab.

## **17.- ETEKIN BANAKETARIK GABEKO KOOPERATIBAK**

Kide diren zenbait Estaturen (Frantzia, Italia, Espainia) esperientziek argi eta garbi erakutsi dute etekinen banaketarik gabeko kooperatibek izan ahal duten garrantzia Kooperatibagintza gizarte eta giza zerbitzuetan, kulturaren, etab. ean ezarri eta hedatzeko asmoz.

Izen ezberdinak erabili dira (kooperatiba sozialak, irabazi asmorik gabeko kooperatibak, herri onureko kooperatibak, interes sozialeko kooperatibak, etab.) baina mota guzti hauetan datza ondoko ezaugarriok bateratzeko asmoa:

a) Elkarateek dituzten etekinak ez banatzearen ezaugarria. Zenbait arlotan, derrigorrezkoa da ezaugarri hau subentzio publiko batzuk, kontratu publiko edo berezko zerga eraentza eskuratzeko.

b) Kooperatibek duten berezko seriotasuna, enpresa moduan antolatzeko orduan (Elkarteekin erkatu ezker).

Interes handikoa da tresna hau Lankidetzaren lan esparrua hedatzeko. Hori dela eta, Kooperatiben Legedi guztiek aurrakusi beharko lukete etekinen banaketarik gabeko kooperatiba mota hau.

Modu osagarrian, garrantzi handikoa da Estatu bakoitzean indarrean dagoen legediaren egokitasuna kooperatibok arautzeko orduan. Batez ere, antzeko baldintzetan beraien lehiakide diren etekinen banaketarik gabeko beste motako entitateen (elkartek, fundazioak) antzeko abantailak dituztela ziurtatu behar da. Bai zerga araupenaren arloan, bai laguntza publikoak eskuratzeko orduan, etab.

## **18.- JARDUERA ESPARRUA**

Tamalez, ohikoa da mota guztietako lege eta arautegiek beste motako sozietateei jartzen ez dizkien oztopoak Kooperatiba elkartei jartzea. Zehazki, zenbait enpresa jarduera bideratzeko orduan.

Gehienetan, ez dira nahita egindako alboraketak, baizik eta nahi gabe ahaztutako kontuak. Batez ere, enpresa jarduerak bideratzeko orduan Kapital Sozietateak ez diren beste motako lege motak egon badaudela kontutan ez hartzeagatik.

Garrantzi handikoa da, beraz, Kooperatibagintzaren garapenerako, kide diren estatuen jarrera: argi eta garbi onartzea kooperatibak gai izan behar direla edozein motako enpresa jarduera bideratzeko.

Legearen babes honek ez ditu kooperatibak babestuko geroko beste lege berriek ezarritako mugapenen aurka, baina bai, gutxienez, araudi maila hutseko balizko mugapen berrien aurrean.

**MCC**  
**Idazkaritza Nagusia**  
**Zorione Arregi Elkorobarrutia**  
**Adrian Zelaia Ulibarri**



# **EUSKARAREN JURILINGUISTIKA: ALOR BERRIA OTE?**

## **1.- SARRERA: LINGUISTIKA JURIDIKOTIK JURI- LINGUISTIKARA**

Tituluak bestera eramaten badu ere, barnean dauka horrek esangurarik nabariena, alegia, gure gizartean sarri-sarri azalarazten diren kontu batzuen ikerketa sistematikoarena.

Hainbatez, euskararen inguruan maiz entzuten dira jarraikoak: elebitasun ofiziala, itzulpengintza, terminologia juridiko eta administratiboa... Beharbada, inguruko hizkuntza normalizatuetan baino ugariagoak dira gure artean horiek. Izan ere, euskara moduko hizkuntza batean, erro-errotik dago baldintzatuta hamaikatxo prozesuren bilakaera. Agerikoa da horien artean sartzen direla, bete-betean, euskararen ofizialtasunak sortzen dituenak hizkuntzaren alorrean.

Hizkuntza-ofizialtasunaren eraginez, zuzenbidea eta linguistika elkar gurutzatu eta josi egiten dira, eremu bakarrekoak baino, eremu bikoak diren arloetatik hainbatetan. Egia esan, bi-bitako bidea egin dute bi diziplina horiek azken urteetan, bitzuotan baita begien bistakoa gizartean ari diren errealitate batzuk euren barruan hartzeko asmoa.

Juristak, batez ere herri elebidunetan, kezkatu datoz, hizkuntzen artekoak zuzenbidearen mailan sortzen dituen gai korapilatsu eta konpongaitzez. Orainsu arte herrien arteko zuzenbidearen aztergai zirenak egun estatu barruko autu-mautuak ere badira, testuen interpretazio juridikoak, esanahiak eta ondorioak zehaztu nahian.

Linguistek, aldiz, gertuago dute osterantzeko galdera, linguistika klasikotik harago eramaten dituen eta hizkuntzalaritzaren barrutira, besteak beste, diziplinen artekotasuna erakarri duena, dela soziolinguistikan, dela bestelako jakintzetan.

Zer non egoki zertzeko, ukazina da linguistika, gero eta gehiago, lagungarri duela zuzenbideak, bion arteko uztardura ere bazterrezina dela lurralde anitzetan.

Uztardura hori, zernahi gisaz, modu eta molde askotan plazaratu da. Ezaguna da, hortaz, eremu frantsesean erabili den *Linguistique juridique* esapidea edo ingelesez iragarri den *Language of the Law*. Horien barnean ere, azpiarlo anitz sortu dira, batik bat, Estatu Batuetan, bertan garatu baita azken urteetan harako diziplina bereizi eta beregaina, *Forensic Linguistics* izendaziopean, hizkuntza, antolakuntza juridikoa eta auzitegien hizkuntza-jarduna nondik norakoak ikertzeko. Bide beretik etorri dira hizkera juridikoa errazteko ahaleginak, *Plain English* bultzadaren eraginez.

Halakoek, betiere, bibliografia ugaria sortu dute, eta, egun, inoiz ez bezalaxe, adituak badu eskuen artean funts bibliografiko ganorazkoa, linguistika eta zuzenbidea lotzen dituzten esparru horien luze-zabala egoki aztertzeko.

Kontua, alabaina, bestetik dator, hau da, lehen esandako bi diziplinen artekotasuna nondik bidera eta gauza daitekeen horretatik. Hogeigarren mendeak ekarri digu zuzeneko lekukotza, hizkuntzalaritza klasikoan mugak hautsi eta diziplina berrien sorrerarena nolakoa izan den jakiteko. Egun ere, puri-purian dago, gorago aipatu den legez, soziolinguistikaren alorra, hizkuntzak



gizartean duen kokatzea eta lekutzea ikuspegi eta ikusmolde askotatik arakatzen duena.

Moldeak molde, jurilinguistikak ere gero eta ozenago aldarrikatzen du bere premia, gero eta bistarago baita juristen eta hizkuntzalarien arteko elkarlana, hala hizkuntza normalizatueta, nola eremu urrikoetan, hain zuzen ere, jokoan dagoenean hizkuntza baten gaitze- eta doitze-prozesua. Hartara, hizkuntza hori normalizatzeko bidean dagoenean, gizartean izan ohi dituen eremu urriak gaintu nahi dituzten, edota erabilera normalizatu batean zuzenbidearen eginkizunak bete behar dituzten, ofizialtasun-esparru berriak ekarriko du ordu arte izendatu gabe zuten antolakuntza edo ordenamendu juridikoaren eramaile izatea. Horretarako, buruen-buruen ere, hizkuntza horrek bere ondarean dituen baliabide linguistikoak erabili beharko ditu. Aurrekoen osagarri, berak berez edota hizkuntza-plangintzaren bidez sortzen dituenak ere. Bide bertsukoa, beraz, aspaldikoen zein oraingokoen ezinbestekotasuna, hizkuntza horren corpus juridiko egoki baten osatzea.

Ohar bekio, bestalde, horren esanahiari eremu urriko hizkuntzetan. Halakoetan, (euskaraz, kasurako) jurilinguistika baten formulazioak nahitaz jakin behar du zer dagoen jokoan eta nondik bideratu eginahalak. Hori da, izan ere, lerro hauen helburua, alegia, euskararen jurilinguistika baten formulazioa egiteko oinarriak ezarri, euskararen ofizialtasunarentzat onuragarri eta erabilgarri izan daitekeena. Esan gabe doa horretan euskal juristak edo adituak (itzultzaile, terminologo, teknikari...) izan dezakeen jakin-mina, horra bideratzen baitira, egunero-egunero, lagun askoren nekeak eta lanbideak.

## **2.- ELEAK ETA SISTEMA JURIDIKOAK: EGITURAK ETA GURUZBIDEAK**

Edozein modutan ere, badira, juristen eta hizkuntzalarien arteko tirabirak eta liskarrak juristak, oro har, hizkuntzalarien esku-sartzearen aldekoak ez baitira izan, eta, hizkuntzalariak, oraintsu arte, zuzenbidearen inguruko hizkuntza-kezka larregirik erakutsi ez dutelako.

Batera zein bestera, egun badira egiteko eta eginkizun berriak, bi esparruetako adituen ekarriak premiazkoak dituztenak. Apartera joan gabe, terminologia-bilduma, lexikografia-lanak, hiztegi, testu eta agiritegien berriztatzeak, legeen eta bestelako testu juridikoen koerredakzioa, edo, argi dago, legearen beraren interpretazioa egiteko tresna eragingarriak sortzea.

Aurrekoa agerikoa bada ere, are nabariagoa da horren eragina, egitura hori elebitasunaren testuinguruan gertatzen bada. Zer esanik ez, elebitasun horri eransten bazaio bijuridismoa, alegia, estatu edo lurralde batean bi sistema juridiko batera indarrean egotea. Horra, bestalde, ardatz nagusi batzuk erabili beharra. Lehen-lehena, hizkuntza eta kulturarena; bigarrena, sistema juridikoarena.

Molde beretik ere, tipologia ezartzeko baliabideak: elebakartasun ofiziala eta sistema juridiko bakarra, esaterako, Frantzian; elebitasun ofiziala eta bi sistema juridiko, adibidez, Canadian (ingelesa eta frantsesa, hizkuntzak; *Common Law* eta *Droit Civil*, sistema juridikoak); elebitasun edo eleaniztasun ofiziala eta sistema juridiko desberdinak, kasurako, Indian. Hizkuntzen eta sistema juridikoen elkar gurutzatze horren ondorioz, jurilinguistikaren lana gero eta korapilatsuagoa gerta daiteke, sistema juridiko bakoitza zein hizkuntzatan adierazi behar den zehazteko, edo historian zehar hizkuntza batez adierazi den sistema juridikoa beste hizkuntza batez gizarteratzeko, holanola, Canadian sortu den *Common Law en français*, betidanik ingelesez adierazi den sistema juridikoaren kategoriak eta kontzeptuak frantsesez bideratzeko.

Ikuspegi horrek berez du hurbilketa berria testu juridikoaren aurrean, testu juridiko hori ez baita, orain arte bezalaxe, zerbait estatiko eta egonkorra, erabat dinamikoa baino. Testu juridiko horren azterketan (elebakar zein elebidunean), batera datoz, testu horren letra eta edukia, hizkuntza eta zuzenbidea barru-barrutik loturik baitaude, beste inon baino gehiago, testugintza horretan, esanahi zein esamoldearen bidez. Elebakartasunean ez eze, elebitasunean ere, aurrekoa guztiz argia,

horren ezaugarriak bereizgarrienak baitira, jurilinguistikarentzat behinik behin, kultura juridikoen arteko zubigintza, eta ziurtasun juridikoaren eta testuen arteko baliokidetzaren artez moldatzea.

Testuan zehar hala gertatzen bada, zer esan hitzen eta terminoen artekotasunaz? Sarri-sarri agertzen da oztopo hori, sistema juridiko edo hizkuntza baten baliokidea ez baitago beste sistema edo hizkuntzaren baitan. Hartara, jurilinguistikak bide berria proposatzen du, terminologiarena aintzat hartu eta metodologia horren bitartez zuzenbidea lantzen duena, sistema eta hizkuntza batetik bestera joan ahal izateko.

Esanak esan, arraz garatua da egun jurilinguistikaren metodologia eta praktika, eta zalantzarik gabekoak dira arlo berri honek eskaintzen dituen baliabideak, juristarentzat zein bestelako eragileentzat (itzultzailea, terminologoa, teknikaria...).

Horren helburuak, edonola ere, zabal barreiatu dira gizartean, eta, egun, jurilinguistikaren emaitza agerikoak dira, esaterako, testu juridikoetan, horien idazketa, zuzenketa, itzultze-lana eta gainerakoen bideak ondu, zorroztu eta hobetu direla. Aldi berean ere, adituen arteko harremanak sendotu dira, erkide diren puntuetatik hainbaten gaineko gorabeherak eztabaidatzeko eta argitzeko. Hitz batez esateko, jurilinguistika praktikan eta jardunean aurrera doan neurrian, teorian ere, arestian aipatu bezalaxe, azterketa corpus ganorazko baten ehotze- eta bilbatze-lanean dabil aspalditik.

Esanaken erakusle, igarri-igarrian, terminologia, lexikologia eta lexikografia elebakar eta elebidunak dira. Batetik, nazioarteko erakundeak (Nazio Batuak edo Europar Batasuna), eta, bestetik, estatu elebidun ofizialak, bi-biok eragile nagusi izan dira halakoetan, arlorik beharrenak hortxe izan baitituzte horiek, testu ofizialak hizkuntza desberdinetan prestatu behar izan dituztenetan.

Unibertsitateak eta eite bereko zentroak ere antzeko bidetik joan dira, eta jurilinguistikaren barruan sakondu, diziplina berri

horren adituak ugaldtu nahian. Sona handiko zentroak ere badira tartean, batik bat Canadian (esaterako, *Centre de traduction et terminologie juridiques*, Moncton Unibertsitatean).

Labur-zurrean esateko, ikusmolde berria, zuzenbidea, hizkuntzalaritza eta kultura juridikoa aintzat hartu eta irtenbide zehatzagoak proposatzen dituen, hizkuntzen eta sistema juridikoen arteko komunikazioa erraztu nahian. Horrek ekarriko du, XXI. mendearen hasieran, kontzeptualizazio berria, euskaraz ere baliagarri dena, euskararen ofizialtasuna garatzeko abagune eta tenorean.

### **3.- EUSKARAREN JURILINGUISTIKA: USTEZKO HAMARTEGIA**

Zein da, beraz, jurilinguistika izen berri horren pean egon daitekeen errealitatea, euskararen kasuan? Galdera halakoxea bada, erantzun-susmoa ere berehala dator.

Izatez, euskararen esparruan ezagunak dira egungo ofizialtasun mugatua zein historian zeharreko eskasiak. Are ezagunagoa, egunotan euskarak aurrera daraman zeregina, barne osaeran zein kanpoko erabileran erremu urriko hizkuntza izatetik hizkuntza normalizatu batera igarotzeko.

Ez da, halafede, egiteko erraza, dena delako hori. Ofizialtasunak, zernahi gisaz, baditu bere eskakizunak, eta horien artean daude, zabal eta zinez, administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanak bideratzeko hizkuntza izatea. Bestela esanda, gizarte-harremanak arautzen dituen zuzenbidearen esatari eta eramaile izatea. *Ius semper loquitur* esan ohi da, betidanik zuzenbidearen munduan hitzak duen saihetsezina azpimarratu nahian. Ez bide da halakoa aldatu, ezpada gehitu eta zabaldu, hitzaren euskarri berriak —informatikoak barne— erruz eta erraz sartu baitira zuzenbidearen esparruan. Eta hori hala bada, horren ondorengoa ere, aparte ez, bide beretik datorkiokeelako hori euskarari. Horrenbestez, ukaezina da euskarazko hitzak izan behar duela antolakuntza juridikoaren adierazle.

Baldintzak, haatik, ez nolanhikoak, euskararen kasuan. Esanak diren bi horiek (halakoetan historia urria eta lurraldez mugatutako ofizialtasuna) zokondoratu gabe, joan dadin oraingoko begirada bestera, hots, euskarak mundu juridikoan izan dezakeen sarrerara.

Lehendabiziko begirada azkarrean edonork ohar dezake euskararen jurilinguistikak eginkizun dituen gaien katalogoa. Berehala ikusiko du, bestalde, katalogo horretan gauza asko egiteko daudela, eta egileak ere, zenbait arlotan, falta direla. Diagnostikoak aspalditik egin dira, eta horretan luzatzea ez du merezi.

Bai, ordea, katalogo horren premiaz jardutea, nazioarteko ikuspegia oinarri hartuta. Hortaz, hona hemen ustezko hamarrekoa, orain arte idatzitakoa laburbildu nahi duena,

1) Euskararen jurilinguistikak kontuan hartu behar du euskarak gizartearen duen erabilera ofizialaren maila, erabilera hori hedatzeko eta zabaltzeko. Hain justu ere, esparru ofiziala erabat lagungarri gerta daiteke, gizarte-erabilera sendo batekin, euskararen berreskuratze-ahaleginetan.

2) Euskararen jurilinguistikak kontuan hartu behar du euskararen ofizialtasun mugatua, lurraldez zein estatusaz, antolamentu juridiko osoaren sustraiak ez baititu bere baitan (hainbat alor juridikoren gaineko eskumena, esaterako).

3) Euskararen jurilinguistikak kontuan hartu behar du euskarak historian zehar izan duen erabilera juridiko urria. Horren eraginez, euskarazko testu juridiko eta administratiboak aurkitu, ikertu eta egungo adituen eskura jarri behar ditu euskararen jurilinguistikak, iraganeko eskarmentua oraingo ekimenaren zimentaria izan dadin.

4) Euskararen jurilinguistikak kontuan hartu behar du, kultura juridikoen ikuspegitik, Euskal Herriko lurraldeetan bizirik dauden foru-sistema zibil, fiskal eta administratiboak (Nafarroan

zein Euskal Autonomia Erkidegoan), eta autonomia-zuzenbide berriak. Bijuridismoaren eskema bete-betean ez badago ere, badira zantzu batzuk, euskararen kasua horretara eramaten dutenak. Agerikoagoa da hori foru-sistemetatik geratzen diren hondarretan, bestelakoan baino. Zernahi gisaz, bi kultura juridiko ere badira, euskararen hitz eta esamolde frankotan islatzen direnak.

5) Euskararen jurilinguistikak bere baitara bildu behar ditu aspalditik euskaraz diren hitz juridiko apurrak (lurraldez lurralde eta euskalkiz euskalki), eta horiek, ahal duen neurrian, erabili, berrezarpen lexikal eta semantikoa ere gauzatuz, betiere sistematikotasun eta koherentzia juridikoa hautsi gabe. Azken bi horiek, juridikotasunari dagokiona alboratzeke, geroago aipatuko dira, hizkuntzaren kalitatean eustazpiak baitira zuzenbidearen kasuan.

6) Euskararen jurilinguistikak hur-hurretik jarraitu behar ditu, ahalik eta modurik beteenean, euskararen normalizatze-bidean, euskara batuaren arauak eta gomendioak, euskararen osaeran *hizkera erkidea-hizkera berezituak* bikotea eratzean desbideraketak gerta ez daitezten eremu juridikoan.

7) Euskararen jurilinguistikak jakin behar du bere corpusa atontzen, gogoeta eta asmo teorikoek argitu ditzaten eginbehar praktikoak. Teoria horren formulazioan, gertu-gertutik izan behar du euskararen hizkuntzalaritzan etengabe ontzen ari diren ikerketak, terminologia eta hiztegi-gintza ere bazterretan utzi gabe.

8) Euskararen jurilinguistikak bere barrura bildu behar ditu izuera desberdineko erakunde eta elkarteak (unibertsitateak, IVAP, UZEI, EIZIE, Legebiltzarreko zein Batzar Nagusietako itzultzaileak, Iparraldekoak), beraien artean komunikazio-loturak sortuz. Berebat, irakaskuntza-sisteman bere presentzia bermatu behar du, batez ere jatorri desberdineko adituen (jurista, itzultzaile, teknikari, hizkuntzalari...) formazio-prozesuan.

9) Euskararen jurilinguistikak betebehar praktikoak ditu, besteak beste, terminologia eta, diskurtso juridikoaren azterketa

eta pragmatika, euskara juridikoak hasiera-hasieratik izan dezan, ezaugarri nagusi gisa, kalitatea eta egokiera, inguruabar komunikatiboetan ondo sustraituta.

10) Hitz batez esateko, erro-erroan dauden errealitateak aintzat hartu eta benazko elebitasun juridiko batean asmoa jarri, horixe baita, azkenean, helburu eta xede nagusia. Elebitasun horren esatari, euskara bera eta horren aldaera, euskara juridikoaren teknolekto edo hizkera berezitua, erregistro desberdinetan gorpuztua (idatzizkoa zein ahozkoa; legegintza, administrazio, auzitegietako eta doktrinaren hizkera motak ere barne).

Agian, euskararen jurilinguistikaren egitekorik agerikoena izan daiteke, ororen gainetik, bere premiaz jabetzea, bere nortasunaren jakitun izatea, euskara juridikoa eratzen ari den honetan.

Urte laburrak ditu, oraingoz, euskararen teknolekto juridikoak. Itzulpena ere bidelagun nagusia izan du orain arte. Bada garaia, halako autonomia modukoa, halako beregaintasuna eskura dezan. Jurilinguistika hitza da horretarako gakoa, diziplinen artekoa bertakotu eta abian jarri duena. Horren metodologia eta aurkikuntzak zalantzorik gabe, euskararentzat ere onuragarri eta erabilgarri dira, euskarak esparru ofizialean aurrera egin behar badu behintzat.

#### **4.- BIBLIOGRAFIA**

Hurrengo zerrenda ez da, inondik ere, oro hartzailea, erakuslea baino. Artikuluaz denaz bezainbatean, helmuga jakinekoa da, irakurle ohartuaren helmenean jarri nahi duelako oinarrizko funts bibliografikoa. Berorren bitartez, azken bolada honetan gailendu diren titulu batzuk azaltzen dira, betiere egilearen iritzia galbahe nagusia dela. Nolanahi ere, ugari eta zabalak dira gaiaren inguruko argitalpenak, eta horrelakoak, maiz-sarri, aipatuak dira titulu hauen orrialdeetan. Horietara joan daiteke irakurle jakinguratsua, jakin-mina asetzeko asmoarekin badabil.

ASKOREN ARTEAN (2001): *Eleaniztasuna eta teknika legegilea / Plurilingüismo y técnica legislativa*. Eusko Legebiltzarra / Euskal Gaiien Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Gasteiz.

BARAMBONES ZUBIRIA, J. eta GONZÁLEZ ATXA, O. (1994): *Euskarazko zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik*. SENEZ 15. EIZIE, Zarautz. 123. orrialdetik 160.erakoak.

CORTÉS RODRIGUEZ, L. eta CAMACHO ADARVE, M.<sup>a</sup> MATILDE (2003): *¿Qué es el análisis del discurso?* Octaedro-EUB, Bartzelona.

CIRCUIT (2000): *La langue de thémis*. Orden des traducteurs et interprètes agréés du Québec, 68. zk. Montreal.

GALANES SANTOS, I. (2000): *Unha achega á avaliación das variedades especializadas das linguas minorizadas. A calidades do galego xurídico*. LINGUA E DEREITO 1. Servicio de Publicacións da Universidade de Vigo, Vigo. 17. orrialdetik 50.erakoak.

GARCÍA MARCOS, F.J. (2005): *La divinidad políglota*. Octaedro, Bartzelona.

GÉMAR, J.-C. (1995): *Traduire ou l'art d'interpréter. Fonctions, statut et esthétique de la traduction. Tome 1: Principes*. Presses de l'Université du Québec, Quebec.

GÉMAR, J.-C. (1995): *Traduire ou l'art d'interpréter. Langue, droit et société: éléments de jurilinguistique. Tome 2: Application*. Presses de l'Université du Québec, Quebec.

GÉMAR, J.-C. (1997): "Traduire le langage du droit en contexte bilingue et bijuridique. Le Canada: un cas d'espèce". In *La lingua del diritto. Difficoltà traduttive. Applicazioni didattiche*. CISU, Erroma. 73. orrialdetik 87.erakoak.

GÉMAR, J.-C. (2003): "Langage du droit, dictionnaire bilingue et jurilinguistique. Le cas du *Dictionnaire de droit privé. Private law dictionary* du Québec: traduire ou exprimer le droit?". In *Les écarts culturels dans les dictionnaires bilingues*. Honoré Champion, Paris. 173. orrialdetik 189.erakoak.

GÉMAR, J.-C. (zuz.) (1982): *Langage du droit et traduction. Essais de jurilinguistique*. Collection langues de spécialité. Linguatex, Quebec.

GÉMAR, J.-C., KASIRER, N. (zuz.) (2005): *Jurilinguistique/ Jurislinguistics*. Bruylant-Les éditions thémis, Bruselas-Montreal.



GENERALITAT DE CATALUNYA. DEPARTAMENT DE CULTURA (1999): *Criteris de traducció de textos normatius del castellà al català*. Criteris Lingüístics 4, Bartzelona.

HAEE-IVAP (1989): *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*. Oñati.

HÉROGUEL, A. (2000): *Problèmes de traductions dans les droits civils français et néerlandais*. Collection Logiques Juridiques. L'Harmattan, Paris.

JAYME, E. (arg.) (2000): *Langue et droit*. XV Congrès international de droit comparé. Bruylant, Bruxelles.

LAMBERTERIE, I. eta BREILLAT, D. (zuz.) (1997): *Le français langue du droit*. 36. liburukia. Presses universitaires de France, Paris.

LOBERA, A. eta URRUTIA, A. (zuz.) / (1997): *Euskara, zuzenbidearen hizkera*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia.

MACQUEEN, H. L., VAQUER, A. eta ESPIAU ESPIAU, S. (arg.) (2003): *Regional private laws and codification in Europe*. Cambridge University Press, Cambridge.

MAYER, F. (arg.) (2001): *Language for special purposes: Perspectives for the new millennium. Vol 1: Linguistics and cognitive aspects, knowledge representation and computational linguistics, terminology, lexicography and didactics*. Gunter Narr Verlag Tübingen, Tübingen.

MAYER, F. (arg.) (2001): *Language for special purposes: Perspectives for the new millennium. Vol 2: LSP in academic discourse and in the fields of law, business and medicine*. Gunter Narr Verlag Tübingen, Tübingen.

MAYORAL ASENSIO, R. (2004): "Lenguajes de especialidad y traducción especializada. La traducción jurídica". In *Manual de documentación y terminología para la traducción especializada* (GONZALO GARCÍA, C. eta GARCÍA YEBRA, V.). Arco Libros, Madril. 49. orrialdetik 71.erakoak.

META (1979): *La traduction juridique (numéro espécial)*. Journal des traducteurs, Montreal.

MORRIS, M (arg.) (1995): *Translation and the law*. American translators association. Scholarly monograph series. Volume VIII. John Benjamins Publishing Company, Amsterdam.

PADILLA GÁLVEZ eta GAFFAL, M. (koord.) (2003): *Lengua de especialidad: economía europea y derecho europeo*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, Cuenca.

PAYRATÓ, LL. (1998): *De profesión, lingüista*. Ariel Practicum, Bartzelona

SACCO R. eta CASTELLANI, L. (zuz.) (1999): *Les multiples langues du droit européen uniforme*. L'Harmattan Italia, Isaidat, Torino.

SACCO R. (zuz.) (2002): *L'interprétation des textes juridiques rédigés dans plus d'une langue*. L'Harmattan Italia, Isaidat, Torino.

SARCEVIC, S. (1997): *New Approach to Legal Translation*. Kluwer Law International, Haga.

SENEZ (1997). 19. zenbakia. EIZIE, Zarautz.

UNIVERSITÉ DE MONCTON (ÉCOLE DE DROIT) (1995): *Français juridique et science du droit*. Bruylant, Bruxelles.

UNIVERSITE DE PERPIGNAN. FACULTE DE DROIT (2000): *Droit et langues étrangers: concepts, problèmes d'application, perspectives*. Collection Études. Presses Universitaires de Perpignan.

URRUTIA BADIOLA, A. (1998): *Euskarazko hizkera juridikoaren ezbaian*. BERBA 27. UZEI, Donostia.

URRUTIA BADIOLA, A. (1998): *Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora*. EUSKERA 43 (separata). Euskaltzaindia, Bilbo.

VILLASANTE, L. (1988): *Euskararen auziaz*. Eleizalde Bilduma 9. Lizarra. 197. orrialdetik 208.erakoak.

**Andres Urrutia**

# ALARGUNAREN OINORDETZA- ESKUBIDEAK, KODE ZIBILA ALDARAZI DUEN 15/2005 LEGEAREN ARABERA

## 1.- SARRERA

Uztailaren 8ko 15/2005 Legeak (Estatuko Aldizkari Ofizialaren 163. zenbakia, uztailaren 9koa) Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldarazi ditu, banantze eta dibortzioaren arloan. Legearen beraren izenak adierazten duen bezala, ez da zehatz-mehatz oinordetzaren arloko legea, baizik eta familia-zuzenbidearen eremukoa. Arian ere, zioen azalpenak argiro-argiro azaltzen du zein den eraldaketaren helburua: *banantzea eta dibortzioa bi aukera moduan eskaintzen dira; alderdiek bi horiek erabil ditzakete, euren arteko elkarbizitzaren gorabeherak konpontzeko. Horrela, ezkontideek ezkontzaren barruan duten askatasun-printzipioa indartu nahi da, bi-bion borondate iraunkorrak eragin behar duelako, hala denean, elkarbizitzak aurrera egin eta indarrean jarraitzea*<sup>1</sup>. Zioen azalpenak aipatu ere ez du egiten, haatik, legeak oinordetzaren arloan aldaketa dakarrenik.

---

<sup>1</sup> Itzulpena autorearena da. Berori oso-osorik irakurtzeko, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren web-orrira jo dezake irakurleak ([www.iev.deusto.es](http://www.iev.deusto.es)).

Hala eta guztiz ere, legearen bigarren artikulua alargunaren eskubideei buruzko arauketa aldarazi du Kode Zibilean. Aldarazpen horren eraginez, idazkera berria dute, bateko, 834, 835, 837.2 eta 840. artikuluek (alargunaren seniparteari buruzkoak), eta, besteko, 945. artikulua (alargunak abintestato oinordetzan dituen eskubideei buruzkoa). Hori dela eta, 15/2005 Legea oinordetza-zuzenbidearen esparruan sartzen da, zati batez bada bederen.

Artikulu honen bidez, oinordetza-zuzenbide horretan izandako aldaketa nabarmendu eta beraren inguruko hausnarketa laburra egin nahi da.

## **2.- ALARGUNAREN OINORDETZA-ESKUBIDEAK KODE ZIBILEAN, UZTAILAREN 8KO 15/2005 LEGEA INDARREAN JARRI BAINO LEHEN**

### **2.1. Alargunaren senipartea**

Kode Zibilaren 807.3 artikuluari helduta, alarguna seniparteduna da, kodeak berak *ezarritako forma eta neurrian*<sup>2</sup>. Alargunaren senipartea ez ditu beste senipartea (ondorengoena, edo, hala denean, aurrekoena) baztertzen, eta, beraz, beste horiekin batera ager daiteke. Seniparte gisa, alargunak jarauntsiko kuota baten gaineko gozamina jasotzen du; kuota horren zenbatekoa aldatu egiten da, alargunarekin batera zein senipartedun agertzen den kontuan hartuta. Dena den, gozamen horren ordainketa egitean, gozamenak transformazioak izan ditzake, hau da, beraren konmutazioa gerta daiteke, bai jaraunselek hala eskatuta, bai alargunak berak hala eskatuta.

#### *2.1.1. Senipartedun izateko baldintzak*

Zentzuzkoa denez, ezkontidea alargun bihur dadin, eta, ondorenez, seniparte-eskubidea izan dezan, nahitaezkoa da

---

<sup>2</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 424. or.

ezkontide izatea<sup>3</sup> eta ezkontza hori indarrean egotea kausatzailea hiltzeko unean. Horregatik, argi dago dibortziatuak ez duela seniparte-eskubiderik bere ezkontide ohiaren oinordetzan, ordurako ezkontza deseginda baitago. Orobat esan behar da ezkontza rato eta burutugabeari buruz, epaia oinordetza ireki baino lehenagokoa denean, bai eta ezkontza deusezari buruz ere, baldin eta oinordetza irekitzen bada deuseztasuna adierazi duen epaia eman eta gero.

Baina zer gertatzen da banandutako ezkontidearekin, banantzeak ezkontza desegiten ez duenez gero? Horren ingurukoak dira 834 eta 835. artikulua. Artikulu horien testua, uztailako eraldaketa gertatu baino lehen, jarraikoa zen:

*834. artikulua*

*Ezkontideak ez badaude banandurik euretako bat hiltzean edo banandurik badaude hildakoaren erruz, eta alarguna seme-alaba edo ondorengoekin batera pilatzen bada jarauntsian, alargun horrek gozamen-eskubidea izango du hobekuntzarako destinaturiko herenaren gain.*

*835. artikulua*

*Ezkontideak demanda bidez banandurik daudenean, banantze-auziaren emaitzari itxaron beharko zaio.*

*Ezkontide bananduen artean barkatzea edo berradiskidetzea gertatuz gero, alargunak bere eskubideei eutsiko die<sup>4</sup>.*

Kontuan hartu behar da uztailaren 7ko 30/1981 Legeak ezkontzaren arauketa aldarazi zuela Kode Zibilean, eta deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-auzietan bete beharreko

---

<sup>3</sup> Horren inguruan, gogoan izan behar da uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan (Estatuko Aldizkari Ofizialaren 157. zenbakia, uztailaren 2koa). Lege horrek 2. lerrokada gehitu dio Kode Zibilaren 44. artikuluari; lerrokada horren idazkera honako hau da: *ezkontzak betekizun eta ondore berberak izango ditu, bi ezkongaiak sexu berdinekoak izan zein desberdinekoak izan* (itzulpena autorearena da). Zernahi gisaz, aditu batzuek zalantzan jarri dute lege hori Konstituzioarekin bat etortzea.

<sup>4</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 435. or.

prozedura zehaztu zuela (Estatuko Aldizkari Ofizialaren 172. zenbakia, uztailaren 20koa). Eraldaketaren ondorioz, “erruduntasun/errugabezia” kontzeptuen ordez, banantzeko eta dibortziazeko arrazoiak barneratu ziren, egitezko banantzea eta epaiketa bidezkoa bereizita. Eraldaketaren ostean, beraz, ez zen erabiltzen ezkontide errudunaren ideia; horren ordez onartu zen ezkontidea banantzeko lege-arrazoian egotea. Alabaina, 1981eko uztailaren 7ko eraldaketa horrek ahaztu egin zuen (nahita edo nahi gabe) 834 eta 835. artikulua aldatzea, eta, ondorenez, artikulua ez zuten bereganatu banantzeari buruzko espiritu berria. Artikuluek eutsi egin zioten 1958ko apirilaren 24ko Legeak emandako idazkerari (Estatuko Aldizkari Ofizialaren 99. zenbakia, apirilaren 25koa).

Horrek eragin zuen, eragin ere, bi artikuluen horien hitzez-hitzeko aplikazioa ezinezkoa izatea. Ezintasun hori gainditzeko, doktrinan bi joera agertu ziren: batzuek proposatu zuten, “erru”aren ideien ordez, “banantzeko lege-arrazoian egotea” jartzea; beste batzuek 945. artikulua analogiaz aplikatzea sustatu zuten. Izan ere, 1981eko eraldaketak bai aldatu zuen abintestato oinordetzari buruzko 945. artikulua, eta, horren ondorioz, artikulua horrek jaso zituen banantzeari buruzko ideia berriak.

Bestalde, 835. artikuluari helduta, epaiketa bidezko banantzea bidean bazegoen ezkontideetatik bat hiltzean, epaiketa horren emaitzari itxaron behar zitzaion, alargunari senipartea zegokion ala ez jakiteko. Horrela, prozedurarekin aurrera egin behar zen, epaileak, bidezkoa izanez gero, banantzea adieraz zezan, kausatzailearen heriotzak banantze hori dagoeneko inposatuta zeukanean.

Bide beretik, barkatzeak edo berradiskidetzeak ezerezean uzten zuen aurretiazko banantzea eta, beraz, alargunak ez zuen bere senipartea galtzen, barkatze edo berradiskidetze hori agerrarazteko modua edozein izanik ere. Alargunak egitezko inguruabar hori frogatu behar zuen, seniparteari eutsi nahi izanez gero.

### 2.1.2. Zenbatekoa da alargunaren senipartea?

Lehen esan bezala, alargunaren senipartea ez ditu beste senipartea baztertzen. Alabaina, alargunaren gozamenak kargatzen duen kuota desberdina da, beste senipartedunak nortzuk diren kontuan hartuta. Hurrean ere, alarguna seniparteduna bada ondorengoekin batera, orduan alargunak gozamen-eskubidea du hobekuntzako herenaren gain (834. art.). Seniparteduna bada aurrekoekin batera, beraren gozamen-eskubideak jarauntsiaren erdia kargatzen du (837. art.aren lehenengo lerroa). Eta ez badago beste senipartedunik, jarauntsiaren bi herenak kargaturik geratzen dira alargunaren gozamen-eskubidearekin (838. art.).

Zentzuzkoa denez, seme-alaba edo ondorengoei buruz hitz egiten denean, hildakoaren seme-alaba edo ondorengoak aipatu nahi dira. Bi ezkontideenak izan daitezke, edo, bestela, hildakoarenak bakarrik. Azken horiei buruz, Kode Zibilaren 837. artikuluko bigarren lerroak erregela berezia ezarri zuen:

#### *837. artikulua*

*[...]*

*Gozamenak hedadura bera izango du (hau da, jarauntsiaren erdia kargatuko du), alargunarekin batera pilatzen diren nahitaezko jaraunleak, hildakoaren eta alargunaren arteko ezkontza bitartean ernalduak izan arren, hildakoaren seme-alabak bakarrik direnean. Kasu horretan, gozamen-kuota hobekuntzako herenaren gain izango da, eta gairik ez du bereziki askeko herena kargatuko du<sup>5</sup>.*

Lege-testuak, beraz, bereizketa (edo bereizkeria ote?) egiten zuen hildakoaren ondorengoen artean. Bi ezkontideen seme-alabak izanez gero, alargunaren gozamenak herena kargatzen zuen; eta, hildakoarenak bakarrik izanez gero, jarauntsiaren erdia kargatzen zuen. Konstituzioaren 14. artikulua ez du bereizkeriarik onartzen inguruabar pertsonalen arabera, eta,

---

<sup>5</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 435 eta 436. orr.

seme-alabatasuna halakotzat hartu behar denez gero, xedapen hori konstituzio-aurkakotzat jo zitekeen.

### *2.1.3. Alargunaren senipartea konmutatzea*

Esan bezala, alargunari senipartedun gisa gozamen-eskubidea dagokio jarauntsiko kuota baten gainean. Orokorrean seniparte hori ordaintzen da, jarauntsia banatzeko unean gozamenarekin kargatuta geratuko diren ondasunak identifikatuz. Edonola ere, ordainketa egiteko modu hori ez da legeak ezartzen duen modu bakarra. Alargunaren gozamena beste ordainbide batzuekin konmuta daiteke, gozamena jasan behar dutenek, alegia, jaraunselek hala eskatuta (839. art.), edo, kasu berezi batean, alargunak berak hala eskatuta. Nabari denez, konmutazioaren bitartez saihestu nahi da jabetza osoa bereiztea.

Alargunak eskatutako konmutazioa KZren 840. artikuluan dago araututa. Artikulu horren testua hauxe zen, 15/2005 Legeak eraldatu baino lehen:

#### *840. artikulua*

*837. artikulua*ren bigarren lerrokadak arauturiko kasua gertatzen denean, alargunak eska dezake seme-alabek jaso beharreko zatia kargatzen duen gozamena berari ordaintzea, diruzko kapitala ala jarauntsiko erloa esleituz; seme-alaboi dagokie aukeratzea<sup>6</sup>.

Hor irakur daitekeen bezala, KZren 840. artikulua konmutazioa eskatzeko ahalmena ematen zion alargunari, 837. art.ko bigarren lerrokadaren kasuan, hau da, alargun horrekin batera jarauntsian pilatzen ziren jaraunselek ondokoak besterik ez zirenean: kausatzailearen eta alargunaren arteko ezkontza bitartean ernalduak izan eta kausatzaile horren seme-alaba bakarrik zirenak. Kasu horretan, alargunak seme-alaboi eska ziezaiekeen gozamena berari ordain ziezaioten, diruzko kapitala

---

<sup>6</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 436 eta 437. orr.



edo jarauntsiko ondasunen multzo bat emanez; seme-alabei zegokien kapitalaren eta ondasun multzoaren artean aukeratzea, behin alargunak konmutazio-erabakia hartu eta gero.

Artikulu horren helburua zen, jabetza osoa ez bereiztea baino gehiago, alargunak harreman iraunkorrik ez izatea bere ezkontideak ezkontzatik kanpo baina ezkontza bitartean ernaldutako seme-alabekin. Izan ere, artikuluak proposatzen zituen ordainbide biek horixe ahalbidetzen zuten, alargunaren eta seme-alaba horien arteko komunikazioa ona izango ez zelakoan.

## **2.2. Alargunaren eskubideak- abintestato oinordetzan**

### *945. artikulua*

*Aurretiko artikuluan aipaturiko deia ez da gertatuko, ezkontidea banandurik badago epai irmoaren bitartez, edo egitez banandurik badago bi ezkontideek sinesgarriri agerrarazi duten adostasunaren ondorioz<sup>7</sup>.*

Aurretiko artikulua (KZren 944. art.ak, alegia) honakoa dio: *«aurreko eta ondorengorik izan ezean, eta albokoan aurretik, alarguna da hildakoaren ondasun guztien jaraunsl<sup>8</sup>»*. Arau hori 1981eko maiatzaren 13ko Legeak sartu zuen. Ordu arte, alargunaren tokia abintestato oinordetzan ez zen hirugarrena, baizik eta laugarrena, ondorengo, aurreko eta alboko zehatz batzuen atzetik<sup>9</sup>, 1958ko apirilaren 24ko Legeak 952. artikuluari emandako idazkera aintzat hartuta.

Edonola ere, alargunari ez zitzaion jarauntsirako deirik egiten, banandurik bazegoen epai irmoaren ondorioz, edo egitez, bi ezkontideek sinesgarriri agerrarazitako adostasunaren ondorioz. Artikulu hori ere aldatu egin zen 1981eko maiatzaren 13ko Legearen ondorioz, eta, horregatik, banantzeari buruzko

---

<sup>7</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 464. or.

<sup>8</sup> In *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 464. or.

<sup>9</sup> Alboko horiek ziren, hain zuzen ere, kausatzailearen neba-arrebak eta horien seme-alabak (hots, kausatzailean ilobak), lotura bikoitzekoak nahiz lotura bakarrekoak.

ideia berriak barneratu zituen. Legezko banantzeari zegokionez, nahitaezkoa zen epai irmoa izatea; edozelan ere, ezkontideen artean berradiskidetzea izanez gero, epai horren ondoreak ezerezean geratzen ziren. Eta egitezko banantzeari zegokionez, banantze hori hitzarmen bidezkoa, hau da, adostasunezkoa izan behar zen, eta, gainera, adostasun hori sinesgarriro agerrarazi behar zen. Autore batzuek eskakizun hori agirizko frogarekin identifikatu zuten, eta, are gehiago, eskritura publikoan jasotzearekin. Beste batzuen aburuz, ordea, agirizko froga ez zen beharrezkoa, beste bide batetik egiazta baziteken ezkontideek banantzearen inguruan egindako hitzarmena.

Abintestato oinordetzarekin bukatzeko, gogoan izan behar da alargunak gozamen-eskubidea duela, berarekin batera ondorengoak edo aurrekoak abintestato jaraunse direnean. Gozamen horri senipartearen atalean esandakoa aplikatu behar zaio.

### **2.3. Labur-bilduta**

Uztailaren 8ko 15/2005 Legeak eraldaketa egin baino lehen, begi-bistakoa zen Kode Zibilararen 834. artikulua eta legetestu bereko 945. artikulua arteko koordinazio eza. Lehenengoa idatzita zegoen 1958ko apirilaren 24ko Legearen arabera, eta, bigarrena, 1981eko uztailaren 7ko Legearen arabera. Horrek eztaibada luzea eragin zuen doktrinan. Fugardo Estivill notarioak<sup>10</sup> taula honetan jasotzen ditu labur-labur aipatu kontraesanak:

---

<sup>10</sup> In FUGARDO ESTIVILL, J. M<sup>a</sup>., «Los derechos del cónyuge viudo y la competencia territorial notarial en las declaraciones de herederos a intestato. Doctrina de las Audiencias Provinciales», *La Notaría*, 16 (2005), 50. or.

<b>Kasua</b>	<b>Kode Zibilaren 945. artikulua (abintestato eskubidea)</b>	<b>Kode Zibilaren 834. artikulua (senipartea)</b>
a) Epaiketa bidezko banantzea, epai irmoarekin	EZ	EZ
b) Epaiketa bidezko banantzea, epai irmoarekin, baina alarguna “errugabe” dela	EZ	BAI
c) Egitezko banantzea, sinesgarriro jasotako adostasunarekin	EZ	BAI
d) Egitezko banantzea, sinesgarriro jasotako adostasunik gabe	BAI	BAI

### **3.- ALARGUNAREN OINORDETZA-ESKUBIDEAK KODE ZIBILEAN, UZTAILAREN 8KO 15/2005 LEGEA INDARREAN JARTZEAZ GEROZTIK**

#### **3.1. Alargunaren senipartea**

##### *3.1.1. Senipartedun izateko baldintzak*

15/2005 Legea indarrean jartzeaz geroztik, hauxe da 834 eta 835. artikuluen idazkera berria:

#### *834. artikulua*

*Ezkontideak ez badaude banandurik, epaiketa bidez ez egitez, euretako bat hiltzean, eta alarguna seme-alaba edo ondorengoekin batera pilatzen bada jarauntsian, alargun horrek gozamen-eskubidea izango du hobekuntzako herenaren gainean.*

### *835. artikulua*

*Ezkontide bananduen artean berradiskidetzea gertatu bada, eta, kode honen 84. artikularekin bat etorritz, berradiskidetze hori jakinarazi bazaio banantzearen gaineko ardura izan zuen epaitegiari, bizirik dirauenak bere eskubideei eutsiko die<sup>11</sup>.*

Eraldaketaren ondoren, argi dago banantzeak berarekin dakarrela banandutako ezkontideak senipartea galtzea hildakoaren oinordetzan. Ez da kontuan hartu behar banantze hori epaiketa bidezkoa den edo egitezkoa bakarrik. Batak nahiz besteak senipartea galtzea eragiten du. Berradiskidetzeaz denaz bezainbatean, horrek seniparteari eustea ahalbidetuko du, betiere berradiskidetzea jakinaraziz gero banantzearen gaineko ardura izan duen epaitegiari. Barkamenaren aipamena, berriz, ez da inondik inora agertzen, eta hori zentzuzkoa da, “erru”aren ideia desagertu denez gero.

### *3.1.2. Zenbatekoa da alargunaren senipartea?*

Uztailaren 8ko 15/2005 Legeak ez du ukitu 837. artikulua lehengo leerrokada; ezbadatu du, ordea, bigarren lerrokada. Zehatz-mehatz esateko, hauxe da artikulua testua eraldaketaren ondoren:

### *837. artikulua*

*Ondorengorik izan ez arren, aurrekoak badaude, alargunak gozamen-eskubidea izango du jarauntsiaren erdiaren gain<sup>12</sup>.*

*(Bigarren lerrokada ezabatuta)*

Labur-zurrean, alargunaren gozamenak hobekuntzako herena kargatzen du, ondorengoak badira senipartedun alargunarekin batera (834. artikulua), eta erdia kargatzen du, aurrekoak badira senipartedun alargunarekin batera (837.

---

<sup>11</sup> Itzulpena autorearena da.

<sup>12</sup> Itzulpena autorearena da.

artikuluak). Ondorengoan artean, ez da bereizketarik egiten; hau da, hildakoarenak bakarrik izan nahiz bi-bionak izan, gozamenak kuota berbera kargatzen du. Lehen kritikaturako bereizkeria, beraz, ezabatu egin da.

### 3.1.3. Alargunaren senipartea konmutatzea

Uztailaren 8ko 15/2005 Legeak egindako eraldaketaren ondoren, jarraikoa da 840. artikuluan idatzera:

#### *840. artikulua*

*Alargunarekin batera pilatzen direnean kausatzailearenak bakarrik diren seme-alabak, alargun horrek eskatu ahal izango du bere gozamen-eskubidea ordaintzea diruzko kapitala esleituz edo jarauntsiko ondasunen erloa esleituz, seme-alabek hala aukeratuta<sup>13</sup>.*

Lehen bezala, alargunak konmutazioa eskatzeko ahalmena du, berarekin batera senipartedun direnean hildakoarenak bakarrik diren seme-alabak. Ordainbide berberak proposatzen dira gaur egun ere, baina alargunari gozatzeko aukera handiagoa eman gabe.

## **3.2. Alargunaren eskubideak abintestato oinordetzan**

Eraldatutako artikulua ondokoa ezartzen du:

#### *945. artikulua*

*Aurreko artikuluan aipaturiko deia ez da gertatuko, ezkontidea banandurik badago epaiketa bidez edo egitez<sup>14</sup>.*

Egungo testuaren arabera, alarguna ez da abintestato oinordekoa izango, bananduta badago epaiketa bidez edo egitez. Berradiskidetzearen inguruan, artikulua ez du ezer esaten, baina badirudi analogiaz aplikatu daitekeela 835. artikulua berria.

---

<sup>13</sup> Itzulpena autorearena da.

<sup>14</sup> Itzulpena autorearena da.

### **3.3. Labur-bilduta**

Uztailaren 8ko 15/2005 Legeak egindako eraldaketaren ondoren, banandutako alargunak senipartea galtzen du eta ez du eskubiderik abintestato oinordetzan ere, epaiketa bidez banandu nahiz egitez banandu. Berradiskidetzeak ahalbidetzen dio alargun horri oinordetza-eskubideak berreskuratzea, baldin eta berradiskidetze hori jakinarazi bazaio banantzearen gaineko ardura izan zuen epaitegiari.

Bestalde, alarguna senipartedun bada kausatzailearenak bakarrik diren ondorengoekin batera, haren senipartea hobekuntzako herena kargatzen du, bi-bion ondorengoekin gertatzen den bezala. Alabaina, kausatzailearenak bakarrik diren ondorengoen kasuan, alargunak konmutazioa eskatzeko ahalmena du.

## **4.- ALARGUNAREN OINORDETZA-ESKUBIDEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU- ZUZENBIDEAN**

### **4.1. Alargunaren senipartea**

Uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Foruzuzenbide Zibilar buruzkoak (Euskal Herriko Agintaritza Aldizkariaren 153. zenbakia, abuztuaren 7koa), 58 eta 59. artikuluetan jasotzen du alargunaren seniparteari buruzko arauketa.

#### *4.1.1. Senipartedun izateko baldintzak*

Horien inguruan dabilta 58. artikuluko azken lerrokada eta 59. artikulua.

*58. atala*

*[...]*

*Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da berriro ezkontzen bada, edo beste batekin ezkondu-bizimodua badarama, edo ezkondu denboran zein ostean ezkontzatik*

*kanpoko umerik izaten badu, testamentuegileak besterik agindu ezean behintzat.*

*59. atala*

*Jarauntsian ez du oinordeko izateko eskubiderik edukiko berari egotzi dakioken arrazoiagatik dibortziatutako edo banandutako ezkontideak<sup>15</sup>.*

58. artikulua, agerikoa denez, seniparte-eskubidea azkentzeko arrazoiak aipatzen ditu. 59. artikulua, berriz, seniparte-eskubidea ez sortzeko kasuak jasotzen ditu. Azken horiei erreparatuz, dibortzioak gozamina kentzen dio alargunari, besterik gabe; beraz, ez da zentzuzkoa 59. artikulua dibortzio-arrazoiaren egoketari buruz hitz egitea. Dibortzioa gertatu bada, jadanik ez dago ezkontza-loturarik, arrazoiak nori egotzen zaion kontuan hartu gabe. Horregatik, 59. artikulua egogarritasunari buruz egiten duen aipamena banantze-kasuari lotu behar zaio, artikulua hitzez-hitzez kototasunak besterik eratortzen bada ere. Hari bertsutik, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-zuzenbidea gaur egun ere “erru”aren ideia darabil, eta ez du horretan aldaketarik izan 1992. urtean legea onetsi zenetik.

*4.1.2. Zenbatekoa da alargunaren senipartea?*

58. artikuluko lehenengo hiru lerroek finkatzen dute zenbateko hori.

*58. atala*

*Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamina izango luke, ondorengoekin edo aurrekoekin batera balego.*

*Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi herenaren gozamina izango luke.*

---

<sup>15</sup> *Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea / Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 2005, 78. or.*

*Azkenengoz, oinordetzailearen bi belaun-lerroetako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamina, lerrootako bakoitzaren edukiaren heinean.*

[...]

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-zuzenbidearen arabera, alargunak jarauntsiaren erdiaren gaineko gozamina du, seniparte gisa, berarekin batera pilatzen diren senipartedunak ondorengoak izan zein aurrekoak izan. Ez badago beste senipartedunik, alargunak bi herenen gaineko gozamen-eskubidea du. Gozamen horrek, betiere, azken lekuan kargatuko ditu ondasun tronkalak; begi-bistakoa denez, tronkalitatea babesteko arauak azken ondorioetaraino eramaten dira.

#### *4.1.3. Alargunaren senipartea konmutatzea*

Horixe arautzen du 58. artikuluko laugarren lerroakadak.

*58. atala*

[...]

*Alargunaren gozamina, tronkaleko ondasunen pentzu denean, eskudiruko kapital baten truke alda dezakete tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabil dezake dirutza hori eta berori dela eta, ez du gordezuna jartzeko eta atzera emateko beharkizunik izango hurrengo lerroaldean aipatzen den moduan ezeztatzen bada gozamen hori.*

[...]

Hortaz, alargunaren konmutazioa gertatuko da, gozamenak ondasun tronkalak kargatzen dituzenean bakarrik, eta konmutatzeko erabaki hori senide tronkalei aitortzen zaie. Erabakia, beraz, ez dagokio alargunari eta ez da kontuan hartzen zein ondorengorekin pilatzen den jarauntsian. Konmutazioa erabakiz gero, alargunari eskudiruzko kapitala ematen zaio, eta askatasun osoz xedatu ahal izango du diru-kopuru hori, erreserbatzeko betebeharririk gabe, salbu eta gozamina azkentzen denean alarguna berriz ezkondu delako, beste norbaitekin ezkondu-bizimodua daramalako edo ezkontza bitartean nahiz



horren ondoren ezkontzatik kanpoko seme edo alaba bat izan duelako.

#### 4.1.4. Alargunaren eskubideak abintestato oinordetzan

Euskal Herriko Foru-zuzenbide Zibilari buruzko Legeak 69. artikuluan jasotzen ditu alargunaren eskubideak abintestato oinordetzan.

##### *69. atala*

*Ondorengorik ez aurrekorik ez badago, alarguna izango da jarauntsiaren oinordeko, alboko senideak baino lehenago, tronkaleko ez diren ondasun guztietan.*

*Bestelakoetan, alargunak 58. atalean aitortutako seniparte-eskubideak izango ditu<sup>16</sup>.*

Abintestato oinordetzan, ondasun tronkalak eta tronkalak ez direnak bereizi behar dira. Tronkaletan, aurretiaz 58. artikulua inguruan esandakoa aplikatu behar da, alegia, alargunari gozamen-eskubidea aitortzen zaio. Tronkalak ez diren ondasunetan, berriz, alarguna abintestato oinordekoa da hirugarren lekuan, hau da, ondorengorik eta aurrekorik ez dagoenean, eta alboko senideen aurretik.

## 4.2. Labur-bilduta

Euskal Autonomia Erkidegoan, uztailaren 1eko 3/1992 Legea aldatzen ez den bitartean, alargunak bere seniparteari eusten dio ez badago bananduta berari egotz dakioken arrazoiaren ondorioz; dibortziatuta egonez gero, ordea, ez dauka inoiz seniparte-eskubiderik. Orobat esan daiteke abintestato eskubideei buruz. Kode Zibilaren azken eraldaketa aintzat hartuta, komeniko litzateke Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilaren Legeak ere egozgarritasunaren ideia ezabatzea.

---

<sup>16</sup> *Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea / Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 2005, 82-83. orr.*

## 5.- BIBLIOGRAFIA

### ***Euskarazko materialak:***

—*Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 1255 orrialde.

—*Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea/Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 2005, 620 orrialde.

—*Oinordetza zuzenbidea*. F. Capilla, A. M. López, E. Roca, M<sup>a</sup> R. Valpuesta, V. L. Montés (koord.), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 766 orrialde.

### ***Gaztelaniazkoak izanik, artikuluko honetarako erabili direnak:***

—ALBALADEJO, M. (zuz.), *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, EDERSA, Madrid, 1989, XI. liburukia, 412.etik 478.erako orr., eta XIII liburukia, 1. bolumena, 244.etik 268.erako orr.

—CANO TELLO, C. A., «La interpretación del artículo 834 del Código Civil (derechos del cónyuge viudo) desde la perspectiva de los Derechos históricos y de los nuevos principios del derecho de familia español», *Revista General del Derecho*, 559 (1991), 2.477.etik 2.488.erako orr.

—CÁRCABA FERNÁNDEZ, M., «Derechos del cónyuge viudo en la sucesión intestada tras la Reforma del Código Civil operada por Ley 11/1981 de 13 de mayo», *La Ley*, 1 (1986), 1177.etik 1181.erako orr.

—EGUSQUIZA BALMASEDA, M. A., *Sucesión legal y voluntaria del cónyuge en las crisis matrimoniales*, Thomson-Aranzadi, Iruña, 2003, 444. or.

—FERNÁNDEZ GONZÁLEZ-REGUERAL, M.A., «Separación conyugal: la legítima del cónyuge viudo», *La Ley*, 1 (1991), 2084.etik 2091.erako orr.

—FUGARDO ESTIVILL, J. M<sup>a</sup>., «Los derechos del cónyuge viudo y la competencia territorial notarial en las declaraciones de herederos a intestato. Doctrina de las Audiencias Provinciales», *La Notaría*, 16 (2005), 27.etik 107.erako orr.

—MARTÍNEZ DE BEDOYA, C., *La situación del cónyuge viudo en el Derecho civil foral de Bizkaia*, foru-testuen bilduma, Bizkaiko Foru Aldundia/Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, VII. liburukia, 1998, 468 or.

—PASTOR VITA, F. J., «Una primera aproximación al proyecto de ley de reforma del Código Civil en materia de separación y divorcio», *La Ley*, 6.235 (2005), 1.etik 11.erako orr.

—REY PORTOLÉS, J. M., «Comentarios a vuela pluma de los artículos de Derecho sucesorio (por ahora los siete primeros), reformados por la ley 11/1981, de 13 de mayo, de modificación del Código civil en materia de filiación, patria potestad y régimen económico del matrimonio», *RCDI*, 549. zenbakia, 1982, 289.etik 360.erako orr.; «Comentarios a “vuela pluma” de los artículos de Derecho sucesorio (cuatro más), reformados por la Ley 11/1981, de 13 de mayo, de modificación del Código Civil...», *RCDI*, 1982, 1535.etik 1584.erako orr.

—RODRÍGUEZ ADRADOS, A., «Los preceptos fracasados en la reforma del Código civil», *RDN*, 1981, 275.etik 317.erako orr.

—SERRANO ALONSO, E., *El nuevo matrimonio civil (Estudio de las leyes 13/2005, de 1 de julio, y 15/2005, de 8 de julio, de Reforma del Código Civil, con formularios*, Colección Estudios Jurídicos, Edisofer, Madril, 2005, 204. or.

***Esther Urrutia Idoiaga***



# **IPARRALDETIK DATOR NOTIZIYA: HERRIKO ETXEENDA KO LEXIKOA**

## **1.- SARRERA**

Hurrengo lerroetan *Herriko etxeendako Lexikoa / Lexique à l'usage des mairies* izeneko liburua aipagai dugu. Lan hori aurtengo maiatzaren 14an, Herriko Etxe Euskaldunen eguna tarteko, Maulen aurkeztu zen. Lana, izenburuak berak dioenez, berbategi elebiduna da (euskara-frantsesa / frantsesa-euskara) eta udal administrazioaren esparruan erabiltzeko idatzi da.

Lerro hauen bidez aurkezten ari garen argitalpenak interes berezia izan du albiste hau idazten ari garenontzat. Izan ere, beste bi lankiderekin batera (Andres Urrutia eta Esther Urrutia) *Administrazio Zuzenbideko Berbategia* (euskara-gaztelania / gaztelania-euskara) liburua atondu dugu, eta argitaratzeaz dago Deustuko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzuaren eskutik. Gure lana urriaren amaieran plazaratuko da, eta hori burutzeko, hizpide dugun liburua aztertu dugu, bibliografian adierazi dugun moduan.

## **2.- LANAREN EGILEAK**

*Herriko etxeendako Lexikoa* liburuaren hasierako orrialdeetan esatenenez, liburuaren egileak hurrengo hauek dira: hasteko, Maite Mujica Ibarlako Herriko Etxeko idazkariaren izena agertzen da. Jarraitzeko, Euskal Konfederazioko Herriko Etxeen batzordea aipatzen da. Dakigunez, Euskal Konfederazioak, bere helburuen artean, euskararen eta euskal kulturaren garapena edozein bide egokiz sustatzea dauka. Amaitzeko, Euskal Kultur Erakundeko euskara zerbitzua agertzen zaigu. Bestalde, liburu hau Iparraldeko euskaltzainek gainbegiraturik egin dela adierazten zaigu. Horrenbestez, berbategi honetan eragile desberdin eta garrantzitsuek hartu dute parte; beraz, behar bezalako bermea eta babesa dituela esan daiteke.

## **3.- ARGITALPENAREN GORABEHERAK**

Lehen esan dugun moduan (liburuan bertan aitortzen denez), liburutxo hau aurtengo Herriko Etxe euskaldunen egunean aurkeztu zen, hots, 2005eko maiatzaren 14an. Jai hori Euskal Konfederazioak eta UEMAk antolatu zuten, euskarak Iparraldeko herri erakundeetan dituen mugen kariaz.

Kontuan izan behar da euskarak zail samar gainditu dituela Iparraldeko herriko etxeen eta beste erakunde publikoen ateak, idatzizko mailan bederen. Baina azkenaldi honetan zenbait udalek hitzarmena sinatu dute euskarari ateak zabaltzeko. Kontuak kontu, legeria eragozle eta oztopatzailearen gainetik badirudi posible dela gure hizkuntzari bere lekua ematea Udaletxeetako eguneroko jardunean.

Dagoeneko (maiatzeko ospakizuna erreferentzia hartuta) 36 udalerrik sinatu dute *Euskara Herriko Etxeetan* deritzon hitzarmena: 14k Lapurdin, beste 14k Behe Nafarroan eta 6k Zuberoan. Hala ere, kostaldeko udal nagusiek (Baiona, Angelu, Miarritze eta Donibane Lohizune) ez dute ekimen horretan interes berezirik. Beraz, gehienbat herri ertainak (Maule bera, hiriburuen artean bakarra, alegia) eta txikiak agertzen zaizkigu. Horientzat guztientzat *Herriko etxeendako Lexikoa / Lexique à l'usage des mairies* nahitaezkoa izango da.

*Herriko etxeendako*

# Lexikoa

Euskara-Frantsesa  
Frantsesa-Euskara

2005

#### **4.- FORMATUA**

*Herriko etxeendako Lexikoa / Lexique à l'usage des mairies* bi euskarritan argitaratu da: paperean eta CD-ROMean. Hau da, paperezko edizioarekin batera CDa ere atera dute eta horrek bilaketak arin egitea edota liburua ordenagailuaren barruan gordetzea ahalbidetzen du.

Erabilgarritasunaren alde eginez, liburua eskolako materialen antzera aurkeztu da. Koaderno itxura du, eta uztaiduna da gainera. Horrez gain, berbategiaren erdi-erdian 'Oharrak / Notes' izeneko atala dago, frantseseko eta euskarazko atala bereizteaz gain, oharrak idazteko bide ere ematen duena.

CDaren barruan datorren dokumentua PDF itxuraz dator eta, beraz, oso erraza da zabaltzeko eta erabiltzeko. Izan ere, gaur egun mota horretako dokumentuak biziki arruntak bihurtu dira.

#### **5.- LEXIKOAREN EZAUGARRI TEKNIKO BATZUK**

Berbategi honen ezaugarri batzuk iruzkinduko ditugu ondoko lerroetan. Argazkietan ikus daitezke aipatuko ditugun kontu batzuk. Lexikoaren lehenengo ezaugarria berehalakoan agertzen zaigu: euskarazko hitzak artikulatu eta guzti idatzi dira. Adierazi beharrekoa da ohiko hiztegietan bestela jokatzen dela, hau da, sarrerak artikulurik gabe jasotzen dira. Zein da arrazoia? Erabilgarritasuna; egileek kontuan hartu dute hurrengoak: askotan udaletako langileek izenburuak eta errotulazioak egin behar izaten dituzte; hori dela eta, egileek nahiago izan dute izenburu hori egoki ematen laguntzea. Gogoan izan behar dugu gure hizkuntzaren eta antzekoen normalizazioaren lehen urratsak seinaletikaren inguruan egiten direla.

Berbategi honetan bestelako ezaugarri teknikoak ere aipa daitezke, beren beregi adierazi ez zaizkigun arren; ondoren, horietako batzuk, guri deigarri egin zaizkigunak, nabarmenduko ditugu:



a) Oro har, berbategiko hitzen kategoria ez da adierazi; hala ere, kategoria-marka bat aurkituko dugu lexikoan: adj., adjektiboaren marka hain zuzen ere. Eta noiz agertzen da marka hori? Hitz horren kategoria beste kategoria batekin nahasteko arriskua dagoenean. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan (Euskaltzaindia: “Hiztegi Batua”, *Euskera*, 45. zk., 2000-2) antzeko jokabidea izan da, hots, “(gramatika kategoria) joskera arazoetan argigarria eta zehazgarria gerta zitekeenean soilik adierazi da”; hori dela eta:

**Aditua:** Expert (adj.)

**Hitzartu:** Convenir / Passer un contrat

**Hitzartua** (adj.): Concerté

b) Berbategi honetako sarreretan aditz jokatu ere erabili izan da. Forma horietako batzuk esaldi eginak dira, karteletako abisuak...

**Ohorez ziurtatzen dut:** J’atteste sur l’honneur

**Ihizia debekatua da:** Interdit de chasser (avis)

**Législation en vigueur:** Indarrean dirau legedia / Dirau legedia

c) Letra larria erabili da hitz hasieran, izen bereziak zein arruntak izan. Bestalde, antza denez, erakunde eta abarren izen osoa letra larriz dago hizkuntza horretan nolabaiteko ohitura badu soilik. Horren ildotik, siglak ere hizkuntza “ofizialean” soilik ipini dira.

**Familia-Laguntzak (FL):** Allocations Familiales (A.F.)

**Garapen egitasmo kolektiboa:** Projet Collectif de Développement (P.C.D.)

**Procureur de la République:** Errepublikako prokuradorea

d) Aurreko puntuari lotuta, adierazi behar dugu nabaritzen dela testu hau zenbait testuren hustuketatik sortuta dagoela, zenbait izendapen zehatz agertzen dira eta:

**Baiona Angelu Biarritzeko (BAB) hiri elkargoa:**

Communauté d'agglomération du BAB

**Baionako musika eskolaren sindikatu anitza:**

Syndicat mixte pour l'école de musique de Bayonne

e) Berbategi honetan, sinonimoak ere agertzen dira, barra baten bidez berezita:

**Batzordea:** Commission / Comité

Baina hitzak adiera desberdinetakoak badira, zenbakien bidez bereizten dira:

**Betebeharra:** 1) Formalité 2) Obligations

f) Aurrean ere esan dugu berbategi hau hitz-zerrenda bat dela, eta hitzak bata bestearen ostean ematen direla. Horrek esan nahi du familia lexikalak ez direla batu; den-denak pare-parean ematen dira. Horrenbestez, ez zaio, esaterako, Hiztegi Batuko hurrenkerari jarraitu, azken horretan hitzak taldeka biltzen dira eta.

**Arau haustea:** Infraction

**Arau ordezkatzaila:** Norme subsidiaire

**Araua:** Norme / Règle

**Araudia:** Réglementation / Statut

g) Berbategiko hitzen ondoan azalpenak gehitu dira parentesi artean; batzuetan, azalpen horiek esanahia zedarritzatzeko erabili dira:

**Commune (ville, village):** Herria

**Commune (mairie):** Herriko Etxea

**Diligence (droit):** Eginbidea

Horrez gain, parentesi artean bestelako argibideak ere agertzen dira:

**Copie (d'un document):** Kopia

**Maire (madame, monsieur le Maire):** Auzapeza (auzapez anderea, auzapez jauna)

# S

- Saihesbidea** : Rocade  
**Saila** : 1) Section 2) Secteur  
**Sailburua** : Chef de département  
**Salaketa** : Dénonciation  
**Salbuespen eskaera** : Demande de dérogation  
**Salbuespena** : Dérogation  
**Saldu agortu arte** : Écouler (commerce)  
**Saldukeria** : Forfaiture  
**Salmenta publikoa** : Vente publique  
**Salmenta xehea** : Vente au détail  
**Salmentak** : Écoulement (stocks)  
**Saltegi orokorra** : Multiple rural  
**Saltegia** : Établissement commercial  
**Saltokia** : Établissement commercial  
**Saltzailea** : 1) Commerçant 2) Commercial (agent)  
**Saneamendu eremua** : Zone d'assainissement  
**Saneamendu kolektiboa** : Assainissement collectif  
**Saneamendu kolektiboaren herriarte sindikatua** : S.I. assainissement collectif  
**Saneamendu sindikatu anitza** : Syndicat mixte d'assainissement  
**Saneamendua** : Assainissement  
**Sare burua** : Tête de réseau  
**Sarea** : Réseau  
**Sartze eguna** : Date d'entrée  
**Sartzeko azterketa** : Épreuve d'accès  
**Sartzeko deialdia** : Convocation d'accès  
**Sartze-orria** : Feuille d'entrée  
**Segurantzza Soziala** : Sécurité Sociale  
**Segurantzza Sozialeko egun sariak** : Indemnités journalières de la Sécurité Sociale  
**Segurantzza Sozialeko kide zenbakia** : Numéro d'affiliation à la Sécurité Sociale  
**Segurantzza Sozialeko sistema orokorra** : Régime général de la Sécurité Sociale  
**Segurtagiria** : Certificat  
**Segurtasun neurria(k)** : Norme(s) de sécurité / Mesure(s) de sécurité  
**Segurtasuna eta osasunbidea** : Sécurité et hygiène  
**Segurtatu** : Certifier  
**Segurtatua** : Conforme  
**Sei hilabete** : Semestre  
**Sei hilabetekaria** : Semestriel  
**Sei hilabetekoa** : Semestriel  
**Sektorea** : Secteur  
**Sententzia** : Sentence  
**Sinadura** : Signature  
**Sinatu** : Signer  
**Sinatzailea** : Soussigné  
**Sindikatu anitza** : Syndicat mixte  
**Sindikatu hauteskundeak / bozkak** : Élections syndicales  
**Sindikatu ordezkaria** : Délégué syndical  
**Sindikatuak** : Syndicat / Organisation syndicale  
**Sindikatuaren eta batzordeen izenak** : Nom du syndicat et des commissions  
**Soberakina** : Excédent  
**Solasgaiak** : Ordre du jour  
**Soldadogoa** : Service militaire  
**Soldadu erroldatzea** : Recensement militaire  
**Soldadu liburuxka** : Livret militaire  
**Soldadutza** : Service militaire  
**Soldata** : Paie / Paye / Salaire  
**Sorteguna** : Date de naissance  
**Sorteguna eta tokia** : Date et lieu de naissance  
**Sortu** : Instituer  
**Sortze agiria** : Extrait de naissance  
**Sortze akta** : Acte de naissance  
**Sortze ziurtagiria / segurtagiria** : Acte de naissance  
**Sozial zentroa** : Centre social  
**Su ematea (mendian)** : Écobaue  
**Suhaka** : Écobaue  
**Suhiltzailea** : Pompier  
**Suntsitze baimena** : Licence de démolition / Permis de démolition

h) Sarrera batzuk pluralez agertzen dira. Kasu horietan, singularra erabiltzea zilegi zen, baina ziurrenik dokumentuetan-eta pluralez agertzen direnez, berbategian ere horrela jaso dira, ohiko erabilerari lehentasuna emanez:

**Atsedanak:** Temps libre

**Etekinak:** Bénéfices

**Herri zergak:** Impôts municipaux

## **6.- HIZKERA JURIDIKO BATERATUA**

Iparraldeko lan honi buruzko berri labur hau bukatzeko, azken ideia bat aipatu behar dugu halabeharrez. Ezaguna denez, gure hizkuntzak dituen arazoen artean, nazioartekotze edo internazionalizazioarena dago.

Zuzenbidearen hizkera, batik bat, estatu eta aginte publiko jakin bati lotuta dagoela esan ohi da. Gure hizkuntza, dakigunez, bi estaturen menpe dago eta horietatik eratortzen diren antolamendu juridikoa eta kontzeptu juridikoak desberdinak dira.

Gertaera horrek ondorio sakonak ditu, euskarari eta hizkera juridikoari dagokienez. Artikulutxo hau ez da leku egokia arazo horiek azaltzeko, baina garbi dago Iparraldeko hiztegi honek langintza horretan lagun dezakeela. Orain dela gutxi testu garrantzitsu baten esperientzia izan dugu, Europako Konstituzioarena hain zuzen; saioa, hala ere, ezerezean geratu da. Laburbilduz, hiztegi honen bidez, Iparraldeko errealitatea ezagutu ahal izango dugu: bertako kontzeptuak eta izendapenak ikasi, euskararen baliabideak landu...

Batzuetan kontzeptuak ez dira Hegoaldeko arauetan islatuko (Communauté d'agglomération du BAB), baina beste batzuetan (Taxe sur la Valeur Ajoutée), erkideak dira erabat, Europaren eraginagatik, besteak beste.

## **7.- LABURBILDUZ**

Hiztegi hau oso erabilgarria iruditu zaigu, bai Iparraldeari bai Hegoaldeari begira. Pirinioez bestaldeko herriko etxeetan euskararen erabilpena sustatzen lagun dezake; kontuan izan behar da euskararen idatzizko erabilerak aurrera egiteko behar-beharrezkoak direla ereduak eta lanabesak. Hori dela eta, liburuak izugarrizko garrantzia izan dezake, dudarik gabe, euskararen ofizializazio bidean edo, behinik behin, administrazioaren eguneroko lanean. Erabilera emankor eta zabala opa diogu.

Hegoaldeko euskaldunei begira ere erabat aberasgarri iruditu zaigu liburuaren edukia, hain zuzen, euskara juridikoaren ibilbiderako kontuan hartu beharrekoa. Antzeko material gehiago etorriko zaigulakoan, albiste labur hau amaitzen dugu.

***Cesar Gallastegi eta Arantza Etxebarria***



# **DERECHO PÚBLICO DE LOS TERRITORIOS FORALES. DE LOS ORÍGENES A LA ABOLICIÓN FORAL LIBURUA AURKEZTEKO HITZALDIA\***

Bizkaiko Batzar Nagusietako idazkari txit argia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari txit argia, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatu txit argia, Celaya maisua, agintariak, gonbidatuak, ikasleak, jaun-andreak: arrasti on guztioi eta eskerrik asko liburu honen jendaurreko aurkezpenean nire ondoan egoteagaitik. Mota honetako ekitaldi baten, behar-beharrezkoa da hasi aurretik eskerrak emotea. Lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deutesdaz Bizkaiko Batzar Nagusiei eta, batez be, bertako idazkariari, Nekane Alonso andreari, bizkaitar guztiona dan etxe honetan abegi handiz hartu naualako. Horrez ganera, nik neuk gidatzen dodan Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua euskal kulturearen, zuzenbidearen eta hizkuntzaren alde egin dauazan jarduera guztietan laguntzeko prest egon da beti, baita gaurko ekitaldi honetan be. Bigarren, eskerrak emon gura

---

\* Bizkaiko Batzar Nagusien Hitzaldi Aretoa, 2005eko maiatzaren 18a, asteazkena, 19.00etan.

deutsodaz baita be Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko ekipo osoari eta, batez be, bertako zuzendariari, Jon Urrutia jaunari, erakunde horrek gure Institutuan betidanik euki dauan konfiantzagaitik: orain arte alkarlanean ibili gara hainbat eta hainbat arlotan, esaterako euskera juridikoaren normalizazioan eta euskal zuzenbidearen ganeko ikerketak zabaltzerakoan, eta aurrerantzean be holan jarraitzeko asmoa daukagu.

Modu berean, Bizkaiko Foru Aldundiari eskerrak emon gura deutsodaz, eta batez be, gaur hona hurreratu dan Kulturako foru diputatuari, Belén Greaves andreari, gure Institutuan egindako lanak behin eta barriro bultzatu ditualako. Orain dala 26 urte, Aldundiak, Deustuko Unibertsitateagaz batera, Euskal Gaien Institutua sortu eban, Mañarikua'tar Andres bizkaitar argiaren eskutik. Ordutik, Aldundiak gure jarduera guztiak bultzatu dauz eta, barriro be, gure eskerrik beroenak emon gura deutsodaz.

Dana dala, pertsona bat barru-barrutik eskertu gura dot, sentitzen dodan guztia berbakaz adierazoko dodan jakin ez dakidan arren. Adrián Celaya Ibarra maisu eta batez be lagunaren ganean nabil. Hasiera-hasieratik eta duda zirkinik egin barik, zuon guztion aurrean liburua aurkeztea onartu eban. Bihotz-bihotzez eskertu gura deutsodaz niri eskainitako berbak eta, batez be, hitzotan igartzen dan maitasuna. Izan be, gu guztion eretxian, Adrián Celaya euskal zuzenbidearen maisua da. Bizimodu osoan euskal zuzenbidea aztertu, irakatsi eta zabaldu dau. Maisu horren ikasle izan eta Deustuko Unibertsitatean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean edo Zuzenbidearen Euskal Akademian lagun izan dogunontzat, Adrián Celaya pertsona errespetagarria baino gehiago, pertsona ohoragarria da. Horregaitik, guztiz hunkituta nago maisuaren berbok entzun eta gero. Benetan be, ez dakit zer esan, ez daukat berbarik, Adrián, hauxe besterik ez: "eskerrik asko, bihotz-bihotzetik".

Bestalde, eskerrak emon gura deutsodaz baita be Deustuko Unibertsitateari, eta batez be gaur hemen gure artean dagoan Ikasleen eta Hizkuntza Politikako errektoreordeari, Rosa Miren Pagola andreari, nire aurretik Euskal Gaien Institutuko gidari izan zanari. Deustuko Unibertsitateak, Zuzenbide Fakultatearen eta Euskal Gaien



**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Santiago LARRAZÁBAL BASÁÑEZ

## **DERECHO PÚBLICO DE LOS TERRITORIOS FORALES**

De los orígenes a la abolición foral



Institutuaren bidez, munduan gehien maite dodan arloa ikertu, irakatsi eta zabaltzeko aukera emon deust: gure kulturea, gure hizkuntza eta gure zuzenbidea. Horretarako, lankideen talde zoragarria alboan euki dot eta batzuk gaur hemen dagoz, lagun eta aholkulari dodan euskal kulturako pertsona garrantzitsu baten gidaritzapean, hain zuzen be, Andres Urrutia jauna, Euskaltzaindiko lehendakaria. Talde horren ondoan lan egitea eta lagun moduan izatea luxuzkoa eta ordainik ez dauan pribilegioa dira niretzat. Edu berean, gaur hemen dagozan Unibertsitateko lankide, ikasle eta lagunei eskerrak emon gura deust, eta ez ditut ahaztuko hemen egon gura izanda etorri ez direnak be, gugaz bihotzez lotuta dagoz eta.

Eta eskerrak emoteko atal honen ostean, gaur modu berezian gogoratu gura neuke itzi gaituen pertsona bat, liburua berari eskaini deust eta: Barakaldoko Salestarren Ikastetxeo historiako irakasle maitea, Luis Rojo Olea jn. Apaiz salestar ohoragarria irakaslea, aholkularia, maisua eta, batez be, laguna izan zan, ez niretzat bakarrik, bera ezagutu eta beragaz bizi izan ginen guztientzat baino. Liburu hau idatzikeran bere adibidea aintzat hartu dot, baita Burtzeñako eta Barakaldoko salestarren ikastetxean ikasle moduan egin nauazan urte zoragarriak be. Hori dala eta, liburu hau berari eskaintzea, atsegina izateaz ganera, nik neukan zor baten ordaina eta gorazarrea be bada.

Eta eskerrak eta eskaintzak aipatu eta gero, gaur hemen aurkezten ari garen liburua idazteko arrazoiak azalduko deust. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko, Euskal Gaien Institutuko eta Aisiazko Ikaskuntzen Fakultateko ikasleei forulurraldeetako zuzenbide publikoko erakundeak azaldukeran, horren ganeko testu edo eskulibururik ez egoala konturatu nintzen, hau da, oinarriko edukiak modu sistematiko eta gaurkotuan ez egozala bilduta. Eduki batzuen inguruan, aldizkari berezietan artikulua bikainak egozan, bai eta monografia ezin hobeak be, baina lan baten be ez ziran batu forulurraldeen goren uneetako zuzenbide publikoaren funtsezko alderdi guztiak, bibliografia gaurkotuagaz, modu didaktikoan aurkeztuta eta arloko espezialistentzat zein bestelako irakurleentzat erabilgarria zana. Gaiak horrenbeste merezi eban, foraltasuna eta euskal eskubide historikoak gure

autogobernuaren giltzarri eta geure nortasunaren funtsezko osagai direlako. Gure aurrekoek gogor defendatu dituez, eta orain geure esku dago horreek defendatzea eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzea, gure lurrian errotuta segidu daien, itzala emoten deuskun Gernikako zuhaitz ohoragarriaren antzera. Baina zer edo zer defendatzeko, lehenengo maitatu egin behar da eta, maitatzeko, ezagutu egin behar da. Eta horixe da, hain zuzen be, nire liburuaren helburua: geure foraltasuna ondo ezagutzea.

Horrexegaitik jorratu nebazan eskubide historikoak doktorego-tesian. Lan horren emaitza izan zan “Contribución a una teoría de los Derechos Históricos Vascos” izeneko liburua, IVAP-HAEEK 1997an argitaratua. Horren ostean, Bizkaiko foraltasunaren ganeko monografia zehatza etorri zan. Liburua Bizkaiko Batzar Nagusiek, orduko hartan Aitor Esteban jn. lehendakari zala, eskatuta egin neban eta 2001ean argitaratu zan lau hizkuntzatan (gaztelania, euskera, ingelesa eta frantsesa), argitalpen zoragarrian, testuari dautsola Aitor Ortiz Viotaren argazki ederrak ebazala. Horri esker, foruen inguruko gaian askoz gehiago sakondu ahal izan neban, eta lan horretatik aurrera, nire ikerketea Euskal Herriko lurralde guztietara hedatzeko unea ailegatu zala ebatzi neban. Bizkaia abiapuntu hartuta eta Bizkaiko Batzar Nagusietarako idatzi neban liburuaren materiala erabiliaz — horreen eskuzabaltasunari esker—, ikerketa Gipuzkoan eta Araban egin neban. Horren ostean, Nafarroako foru-erakundeekaz konparatu nebazan eta, amaitzeko, egiteko bat neukala erabagi neban: Pirinioen bestaldeko euskaldunen, Iparraldeko neba-arreben, foru-erakundeak ezagutaraztea.

Beraz, zuzenbide publikoko foraltasunaren ikuspegi orokorra eskaintzen ahalegindu naiz, lurralde historiko bakoitzeko ezaugarri bereziakaz batera. Izan be, gure Euskal Herri maitea askotarikoa da arlo guztietan, baita erakunde juridikoei begira be. Ideia hori Arnaud OIHENART euskal legelari, idazle eta intelektualak, Iparraldeko foru-erakundeetan eginkizun esanguratsua izan ebanak, atsotitz ospetsu baten adierazi eban: “Herrik bere lege, etxek bere aztura”.

Horrenbestez, gure lege eta gure ohiturak azaldu, irakatsi eta zabaldu behar ziran, zorrozatasunez, hainbestetan leporatu izan deuskuenez, gure erakunde ohoragarrien ganeko mito edo historia asmatuak zabaltzen ari gareala ez salatzeko. Hain zuzen be, Manex GOYHENETCHE Iparraldeko historialari handiak, zoritxarrez orain dala gitxi joan jakunak, alkarrizketa interesgarri baten, OIHENART handiak *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuan egineko gogoeta egoki batzuk gogorarazi euskuzan, XVII. mendean idatzitakoak baino gaur egunekoak emoten dabe eta: “... *los celebérrimos escritores de nuestro siglo desprecian como cosas dudosas y sospechosas, casi todas las que los nuestros refieren sobre el origen y principios del reino, razón por la cual, nosotros debemos trabajar más diligentemente, para que, empleando particular examen y sometiendo cada cosa a severo juicio... separemos lo espúreo de lo legítimo, lo dudoso de lo cierto, y no demos por averiguado lo que no consta por la autoridad de algún documento antiguo o escritor probado. Respecto de lo que se halla entre conjeturas y es opinable, inclinémonos hacia lo que tiene más visos de verdad.*”

Horixe izan da nire lanaren helburua eta horretan ibili naiz hiru urtez. Gaur hemen IVAP-HAEEren eskutik aurkezten dodan liburua horren emaitza da. Foru-lurraldeetako zuzenbidearen iturrietatik ibilbidea egin ostean, astiro-astiro azaldu dot zelan funtzionatzen eben bertako erakundeek (Batzarrek, Gorteak, Aldundiak, udalerrak, etab.). Pirinioen hegoaldeko foru-lurraldeetako erakundeen foraltasuna aztertu eta gero, liburuan foraltasunaren gainerako edukiak jorratu dodaz: izaera itundua, gure autogobernua ulertzeko ezinbestekoa; berdintasunaren ulerkerea, aitoren semetza unibertsala dala bide; oinarrizko eskubideak babesteko sistema aitzindaria, kasu batzuetan, eskubideak eta askatasunak babesteko sistema historiko ezagunagoei, britainiarra kasu, aurre hartu eutsiena; eta berezko sistema judiziala. Gero, foru-autogobernuaren berezko beste osagai batzuk landu dodaz, kasurako Ogasun sistema, segurtasun-eta defentsa-sistema, merkataritzan aritzeko askatasun sakratua eta horrek esan gura eban guztia, eta foraltasuna defendatzeko tresnak (foru-pasea eta sobrekarta-eskubidea). Behin puntu

horretara iritsita, erronka berri bati egin behar izan neutson aurre: foru-sistema Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan jorratu neban, baina hurrengo hau aztertzeko neban oraindik: Pirinioen bestaldeko euskaldunen foraltasuna, lapurtarrena, zuberotarrena eta behe-nafarrena. Euren foru-araubidea ez zan sano ezaguna Bidasoaren alde honetan, eta bazan garaia horretarako. Hori dala eta, nire eginbeharra araubidea aztertu eta zabaltzea zan. Ostantzean, nire lana ez zan guztiz osatuta egongo.

Lan gogorra izan da, baina Jainkoari esker, amaitu egin dot eta orain guztion esku dago, guztiok hango erakunde historiko, juridiko eta politikoak ezagutu ahal izateko. Lur hau maite dogunontzat, erakundeok ezagutu eta ezagutarazotea eginbehar itzuri ezina da. Hartu daigun gure arbasoen lekukoa eta hurrengo belaunaldiei emon. Erakundeak aztertzean harritu egingo gara, gure aurrekoek garai haretako arazoei aurre egin eutsiela eta arazo horreetako asko gaur egun ere bizirik dagozala ikusita: indarkeria amaitu eta bloke eta bandoen araberako banaketa berriro bideratu eben; hizkuntza, ohitura, sistema juridiko, tradizio eta pentsatzeko eta bizitzeko moduak bateratu ebezan; foru-lurraldeek koroagaz eta euren artean elkarbizitzeko esparru itundu eta arrazoizkoa bilatu eben; erakundeen gobernua egunean-egunean kudeatu eben; Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak euren artean, Nafarroagaz eta Iparraldeko euskal lurraldeakaz harremanak izan ebezan; Europako gainerako herrialdeakaz harremanak izan ebezan, etab.


Gutako bakotxak zer edo zer egin behar dau herrialde hau handiagoa eta hobea izan daiten, bakotxak bere erantzukizun zehatza oinarri hartuta, baina guztion eginkizuna dala jakinda. Gabriel Arestiren olerkiak holan dino: “Itzala eman nahi duenak, argia hartu behar du”. Liburu honek argi apur bat emotea gura neuke, guk geuk be itzala eta fruitu onak emon daiguzan, hainbeste gura dogun eta gure herriaren sinbolo unibertuala dan Gernikako zuhaitz bedeinkatuaren moduan: *Gernikako arbola da bedeinkatua, Euskaldunen artean guztiz maitatua, eman ta zabal zazu munduan frutua, adoratzen zaitugu, arbola santua...* Eskerrik asko guztioi.

**Santiago Larrazabal Basáñez**



## LAU JURISTA EUSKALDUN

Lauon izenak esanguratsuak izan arren, nekez erdietsiko genuke horien oihartzuna gaurko euskaltzale askoren artean. Izan ere, Nazario de Oleaga, Hipolito Larrakoetxea, Jesus Maria Leizaola eta Bonifazio Etxegaraik, banan-banan, zer erakutsi eta zer eskaini ugari izan zuten XX. mendeko euskalgintzan.



Lauok biltzen dituen hari luzea zein izan daitekeen norbaitek galdetuz gero, berehalako erantzuna emango nioke. Lauak ziren zuzenbidearen mundukoak; lauak legelariak; eta, zer esanik ez, lauak ere euskaldun eta euskaltzaleak. Oleaga abokatu bizimoduan eta Euskaltzaindiaren zereginetan murgildurik bizi zen; Larrakoetxeak fraile karmeldarraren bokazioan jardun zuen, zuzenbide kanonikoaren ikuspegitik egundoko ekarriak egin zizkiola euskarari; Leizaolak, ezaguna denez, gazte-gazterik landu zituen euskarazko gai juridikoak, politika abertzaleari muzin egin gabe; Etxegarai, azkenez, legelari fina, Espainiako Auzitegi Gorenaren idazkaria, eta, ororen gainetik, ikertzaile zehatza, Euskal Herriko ohitura eta bitzita juridikoaren aztarnak etengabe plazaratu zituen.

Badirudi gure artean halakoak ez direla izan horren ugari; aitzitik, behin eta berriro aldarrikatu da lanbideetako gorabeheretan euskaldunek euskararekiko erakutsi duten axola eza eta ardura falta. Halakoxea sinestea, bestalde, maiz-sarri gertatzen da gure artean, gauzak, behar bezalaxe baino, iraisean eta arrapaladan ikusteko moldea hartu dugulako.

Ez gara horretan makalenak juristok. Egungo bizimoduak aurrera eramaten gaituen modu berean, aldarrikatze zabalak egiten ditugu, batera zein bestera, euskararena ere babestu nahian. Euskara berri-berria dugu, omen, lege-kontuetan. Euskara, bistan da, erabili gabea, halako barrunbeetan. Non zer bilatu, eta, antza denez, geu gara historian lehenak, halako sortzaile goretsiak, gure euskarari betidanik falta duena eman behar diogunok.

Historia, alabaina, temati izaten da, eta ez ditu aldrebeskeriak maite. Historiak berak erakusten digu, gero eta nabariago, denboran zehar atzera joan eta zantzu batzuk badirela, behinolako gizarte euskalduna lanbide-kontuetan ere ibilia zela.

Horren froga xumea da gure aldizkariaren orrialdeetara ekarri nahi izan dugun argitalpenaren albistea. Zerrenda luzekoa da Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko *Bidegileak* bilduma. Izatez, hori du bertako *Kultura Sailak* biderik egokiena aspaldiko –eta ez hain aspaldiko– euskaltzale askoren biografiak agerian jarri eta irakurgai egiteko.



Hori jakinik, harremanetan jarri nintzen bildumaren ardura duen Mikel Atxaga kazetari eta eragilearekin, halako proposamena egiteko. Hitz bitan esanda, xedea nuen guretzat ezagunak ziren eta jurista euskaldunontzat oinarri izan zitezkeen euskaldun legelari aitzindarien biografiak begien bistan jartzea.

Esan eta egin, Atxagak onetsi eta nork bereari lotzeko ahaleginetan hasi nintzen. Nor bakoitzaren atzean behar-beharrezko nuen biografiaren egilea zehaztea. Beharrik, badira Euskal Herrian pertsonaia horien berri zehatz-mehatz eman dezaketenak. Hasteko, Larrakoetxea kanonista karmeldarraren biografia ordena bereko Julen Urkiza eta Luis Baraiazarrak hartu zuten, Jose Luis Lizundia euskaltzainak Leizaola lehendakari zaharrarena hartu zuen bezalaxe. Etxegarairantz, berriz, banuen aparteko lekukoa, hain justu ere, Jose Antonio Arana Martija euskaltzain gernikarra. Gertu-gertutik jarraitu ditu horrek Etxegarairen nondik norakoak, eta bera zen, hortaz, egilerik erakoena. Oleagarena neronek hartu eta laukotea abian jarri zen.

Emaitza, zernahi gisaz, oraintxe du irakurgai gure aldizkariaren irakurleak. Erreferentzia zuzena, beraz, hauxe da: *Bidegileak*, 34. zenbakia, Eusko Jaurlaritza, Kultura saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Internet sarean, orobat, kontsultagai da *Bidegileak* bilduma, helbide honetan: [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/indice\\_e.asp](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp)

Hortxe dira, karpeta baten barruan, lau liburuki labur bezain mamitsu; Oleaga, Larrakoetxea, Leizaola eta Etxegarairen bizien data eta datu aipagarrienak daude horietara bilduta, bakoitza bere liburukian, aurretiaz esandako egileen eskutik.

Merezi du, alabaina, lau jurista euskaldunen xehetasun batzuk ematea, irakurleak suma dezan, laburpen honen berri izan ondoren, zer-nolakoa izan daiteke argitalpenaren edukia:



### **Nazario de Oleaga (1884-1961)**

Bilbotarra izan arren, hurreman estuak izan zituen Oleaga juristak Zeanuri herriarekin. Bera ere, abokatu euskaldunen familia ugari baten aita izan zen; horren ondorioz, Oleaga abizena guztiz ezaguna da Bilboko foro juridikoan. Pentsabide karlistakoa zen, Esteban Bilbaoren bulegokide, Errepublika garaian euskal estatuaren idazleetako bat (batez ere, epaitegien antolakuntzari buruzko arloan), Bizkaiko foru-zuzenbidearen babesle sutsua, eta Bizkaiko Abokatu Bazkunean kargudun eta arduradun. Euskaltzale amorratua, hil arte izan zen Euskaltzaindiaren idazkaria, batik bat, gerra osteko urte ilunetan, orduan aritu baitzen Azkuerekin batera, Euskaltzaindiaren lanak eta kezak aurrera eramaten. Idazle moduan, aipatzekoa da *Zurtasun-gogoa* (1923) liburua, Gregorio Mugika zenak eginiko testu baten euskarazko itzulpena. Bestelako lanak ere egin zituen, hala nola, itzulpenak eta hitzaldiak, irakurleak egiazta dezakeenez aldizkari honen bigarren zenbakian, *Nazario de Oleaga (1884-1961), Bilboko Gotzaitegiaren itzaltzaile juridikoa*, izeneko artikuluan.

### **Hipolito Larrakoexea (1892-1976)**

Inor gutxi jakingo du gaur eguneko jurista euskaldunen artean, berori izan zela, lehen-lehen, zuzenbidearen alorrean ohiko izaten diren kode horien euskartzaitzailea. Zehatzago esateko, Erromako Elizaren Araudia, alegia,



zuzenbide kanonikoaren esparruan 1917. urtean argitaratu zen testua. Erromara joana zen 1924. urtean Larrakoetxea. Hantxe ondu zuen lege-testu horren euskarazko bertsioa, gerora ere, urte askoren buruan, Kardaberaz Bazkunak argitaratuko zuena, 1978. urtean. Bestelako lan sakonak ere egin zituen zuzenbide kanonikoan nahiz euskal literaturan. Aipagarrienak, agian, *Legoaldi* izeonordearekin euskaratu zituen *Grimm Anaien Ipuinak* (1929).



### **Jesus Maria Leizaola (1896-1989)**

Gazte-gazterik ekin zion Leizaola legelariak bere euskalduntasuna eusteari. Testu batzuk ere badira horren lekuko. Administrazio publikoan ibili arren, Leizaolak beti lotu zituen politika eta kulturgintza, bi-biotan landu zituela euskararen ezaugarriak. 1936. urtean eratu zen Eusko Jaurlaritzan bera dugu bultzatzaile eta arduradun nagusia, justizia eta kultura sailburu moduan, Aldizkari Ofizialaren elebitasuna (gaztelaniaz eta euskaraz) sustatzeko eta babesteko. Hartara, euskarak izan zuen, foru-galeraren garaitik lehendabizikoz, zuzeneko presentzia eta izatea legearen esparru ofizialean. Horrek motz eta urri iraun bazuen ere, Leizaolak, horratio, ez zion euskal kulturgintzari utzi. Euskal literaturaz nahiz herriaren etorkizunaz arranguraturik, Eusko Jaurlaritzaren bigarren lehendakariak, nahiz erbestaldi luzean nahiz azken urtetako etxe-itzuleran, beti gorde zuen bere euskal sena eta esku-erakutsia.

### **Bonifazio Etxegarai (1878-1956)**

Etxegaraitarrak (Karmelo eta Bonifazio) ezagun eta sona handikoak izan dira euskal letretan historia, literatura edota euskara gaietan. Bonifaziok, hala ere, inkesa berezia izan zuen beti, musika-zaletasunarekin batera, zuzenbidea-rekiko, eta, batez ere, euskal foru



zaharretatik etorritako hainbat erakunde eta araubideekiko. Eusko Ikaskuntzaren partaide gogotsua, bata bestearen atzetik etorri ziren, XX. mende hasieran haren ikerkuntza eta argitalpenak. Lanean ere, Espainiako Auzitegi Nagusiaren Sala bateko idazkari-kargua irabazi zuen. Euskaltzain osoa izan zen, eta haren sarrera-hitzaldia, guztiz argigarria, euskara eta zuzenbidea uztartze asmo horretan bideratu zuen: *Euskal Erriko etxeen izenak*.

Lau jurista euskaldunen biografiak, lau bidegile garrantzitsuren esanak eta eginak, egoki emanak eta hornituak, irudiz zein bestelakoez... horra hor euskal juristak egun izan dezakeen ikasgai eta solasgarri, bere sustriak eta aurrekariak non eta nolakoak artez eta zuzen ezagutu nahi baditu.

**Andres Urrutia**

## AKADEMIAREN ALBISTEAK

Uda atsedenaldia bada ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiak zenbait jarduera burutu ditu sasoi horretan ere. Zehatz esateko, jarraikoak:

### a) Lehenengoa

Zuzendaritza-batzak bilera egin du irailaren seian.

### b) Bigarrena

- 1.- Akademiaren zortzigarren aldizkaria ia bukatuta dago.
- 2.- *Los Señores de Bizkaia* izenburuko lana inprimategira bidali da. Lan hori Adrian Celaya jaunak prestatu du, BBK-ren babesarekin. Azaroan argitaratuko da.
- 3.- Laugarren hiruhilekoan, *Clásicos de Derecho Vasco-Euskal Zuzenbidearen Klasikoak* deituriko bildumaren 3 eta 4. zenbakiak kaleratuko dira (CHALBAUD eta SOLANO).
- 4.- Abenduaren erdi aldera, ziur asko, kultur ekintza bat burutuko dugu Notarioen Elkargo Txit Argian, eta elkargo horretako lehendakariak hitzaldia emango du.

c) Bestelakoak

- 1.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Abokatuen Elkargoak eman dizkigute urte honetarako diru-laguntzak.
- 2.- Zuzenbide publiko eta pribatuari buruzko jardunaldiak, azaroan gauzatuko direnak, ia prest daude.
- 3.- *Disjurex* argitaletxearekin hitzartu da gure argitalpenen banaketa.
- 4.- Gure web-orria badabil ibili, [www.avd-zea.com](http://www.avd-zea.com) izenarekin.

***Txabi Oleaga Echeverria***

# IZENA EMATEKO ORRIA

## ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIARI

Ni, .....

jaun/andrea, zuzenbidearen jardunean ari naiz, .....

gisa; edo, hala denean, zuzenbideko lizentziaduna edo doktorea naiz, jardunean ez dagoena.

(ea)n bizi naiz ..... (..... posta-kodea),

(kaleko) ..... zenbakiaren

..... (solairuan)

Jakin badakit zein diren ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAK dituen izaera eta helburuak. Ondorenez, elkarte horren bazkide aktibo legez izena eman nahi dut, eta neure gain hartzen dut betebeharra, bazkide-eginbeharrak betetzeko eta urtero-urtero 50 euroko kuota ordaintzeko.

Sinadura

Zuzenbide publikoa

Zuzenbide pribatua

Finantza- eta zerga-zuzenbidea

.....beste edozein atal interesgarri aipa daiteke.

.....izeneko bankuari/aurrezki kutxari  
Jaun-andre horiek: ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIako bazkide egin naizenez gero, arren eskatzen dizuet izen-emate horren ondoriozko urteko kuotaren ordainagiriak ordaintzea, nire kontu honen pentzudan (mesedez, 20 digituak bete):

Kontu-korrontea \_ \_ \_ \_ \_

Sinadura

Orri hau helbide honetara bidali:

**ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA,**

Errekalde zumardia 8, lehenengoa, eskuina.

Telefonoa: 94 425 57 15 - Faxa: 94 424 64 99

Helbide elektronikoa: [secretaria@avd-zea.com](mailto:secretaria@avd-zea.com)

[www.avd-zea.com](http://www.avd-zea.com)

48009 BILBO





# BOLETIN DE INSCRIPCION

A LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

Don/Doña .....

Que ejerce la carrera de Derecho como .....

O, en su caso, es Licenciado o Doctor, no ejerciente,

domiciliado en (población) ..... (código postal) .....

(calle) ..... nº ..... (piso) .....

Informado de la naturaleza y fines de la ACADEMIA VASCA DE DERECHO, desea inscribirse como socio activo de dicha Asociación, obligándose al cumplimiento de los deberes sociales y al abono de la Cuota anual de 50 Euros.

Firma

Derecho Público

Derecho Privado

Derecho Financiero y Tributario

..... indicar otra Sección que se considere de interés.

Al Banco / Caja de Ahorros .....

Muy Srs. Míos, les ruego atiendan al pago de los recibos por cuota anual de inscripción en la ACADEMIA VASCA DE DERECHO, con cargo a mi cuenta (por favor, cumplimentar los 20 dígitos):

CCC \_\_\_\_\_

Firma

Remitir este Boletín a:

**ACADEMIA VASCA DE DERECHO**, Alameda Recalde, 8 – 1º dcha.

Teléfono 94 425 57 15 – Fax. 94 424 64 99

e-mail secretaria@avd-zea.com

www.avd-zea.com

48009 BILBAO







ETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO •  
ECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA /  
DEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACAD  
DEMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN



*Real. Librería Cervantes, S. L.*

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte